



CURRICULUM-PROIEKTUA HEZKUNTZA BEREZIKO IKASTETXEETAN

Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritza

**Curriculuma Garatzeko eta
Irakaslearen prestakuntzarako Institutua (IBI-CEI)**

Hezkuntza Premia Berezien arloa

Alicia Sainz Martinezek landua.

AURKEZPENA

Pertsona minusbaliatuen integrazioaren filosofiak eta martxan jarritako Hezkuntza Erreformak aldaketa garrantzitsuak bultzatu dituzte azken denboraldi honetan Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sisteman, nabarmenetako bat ohiko ikastetxeetan tratatzen diren hezkuntza-behar berezidun ikasleen kopuru gero eta handiagoa izanik. Hezkuntza-komunitateak, irakaslegoak, familia eta elkarteek eta Administrazioak berak onartutako konpromezua garrantzi handikoa izan da zaregin honetan.

Ido honetatik, hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleei eta ikasleen aniztasunari hezkuntza-erantzun egokia eman ahal izateko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak oso kontuan izan du ikastetxeetarako baliabideak eta irakasleentzako formakuntza-planak eskaini beharra. Honela, ohiko ikastetxeetan gauzatu ahal izan diren esperientzia ezberdinek bi aspektu utzi dituzte agerian; egindako aldaketak eta hezkuntza-behar berezidun ikasleei ohiko ikas-inguruneetan, beraientzat ahal den ingurunerik ez-mugatzailletan, arreta eskaintzeko interesa.

Hala ere, badira gaitasun-eskasia larriagoa eta iraunkorragoa duten zenbait ikasle, beren garapen-prozesuaren une batean edo bestean baliabide berezien beharra izan dezaketenak. Hezkuntza Bereziko Ikastetxeak aukera bat izan daiteke ikasle hauei behar bezalako arreta emateko, beren garapena lortzeko baldintza egokiak nekez aurkituko balituzkete ikastetxe hauetatik aparte.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailordeak, bere Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzak eta Hezkuntza Berezirako Zerbitzuak ongi ezagutzen dute hezkuntza-behar larriak eta iraunkorrak dituzten ikasleentzat kalitatezko hezkuntza bat antolatzearen zailtasuna eta, baita ere, Hezkuntza bereziko Ikastetxeetako irakasleek, curriculumaren ardurapean dauden ikasleen hezkuntza-beharrei egokitu eta Ikastetxearen Ikasketa Proiektua burutu ahal izateko, baliabide eta orientabide egokiak edukitzearen garrantzia.

Dokumentu hau marko orokor bezala eskaintzen da, erizpide eta orientabide didaktikoekin, irakasleen lana, hots, nahaste sakonen edo zentzumen eta mugimen-urritasun larrien ondorioz baliabide bereziak behar dituzten ikasleen hezkuntza, errazteko asmoz. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila honen xedeetako bat irakasleek, materiale hauei esker, Hezkuntza Bereziko Ikastetxeen Ikasketa proiektuak planifikatzeko erreferentzia bat izatea da, LOGSEk ikaslego osoarentzat finkatzen dituen helburuak ahazte gabe.

Inaxio Oliveri Albisu

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua

AURKIBIDEA

I. Kapitularia	HEZKUNTZA BEREZIKO IKASTETXEAK	
	- Hezkuntza berezia LOGSEren esparruan	3
	- Hezkuntza Bereziko Ikastetxeak	6
	1. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen eskolatzea	7
	2. Hezkuntza Bereziko Ikastetxeetako ikasleak. Hezkuntza-premiak.....	10
	3. Hezkuntza-mailako helburuak	16
II. Kapitularia	HBko IKASTETXEETAKO CURRICULUM-PROIEKTUA	
	- HBko ikastetxeetan curriculumaren antolamendua	21
	- Ikastetxearen Curriculum Proiektua lantzeko erreferenteak.....	25
	- Ikastetxearen hezkuntza-proiektua eta curriculum-proiektua: osagaiak.....	30
	- ICP lantzeko irizpideak	33
	1. Hezkuntza-mailako helburuak eta edukiak aukeratzeko irizpideak	33
	2. Irizpide metodologikoak	40
	3. Antolamendu-mailako irizpideak.....	45
	4. Ebaluazio-irizpideak	47
III. Kapitularia	CURRICULUM-PROIEKTUA HEZKUNTZA BEREZIKO IKASTETXEETARA EGOKITZEKO PROZESUAK	
	- Curriculum Proiektua lantzeko faseak	57
IV. Kapitularia	HEZKUNTZA BEREZIKO IKASTETXEETARAKO CURRICULUM-PROPOSAMENA	
	- Ikastetxearen testuinguruaren azterketa	65
	- Ikastetxearen curriculumaren antolamendua.....	66
	- Curriculumaren garapena	78
	- Irizpide metodologikoak	93
	- Antolamenduari buruzko erabakiak	100
	- Ebaluazioari buruzko erabakiak.....	103
	LEGEGINTZA-MAILAKO ERREFERENTZIAK	103
	ERABILI DEN DOKUMENTAZIOA	105
		106

I. KAPITULUA:

HEZKUNTZA BEREZIKO IKASTETXEAK

HEZKUNTZA BEREZIA LOGSEren ESPARRUAN

Integrazio Planak, joan den hamarkadan hasita, aldaketa garrantzitsua eragin zuen hezkuntza-premia bereziak zituzten ikasleen hezkuntza ulertzeko eta praktikan jartzeko moduan.

Lehenengo berrikuntzen aurrekariak 1970eko Hezkuntzaren Lege Orokorrean aurkitzen ditugu, non lehenengo aldiz Hezkuntza Berezia gainontzeko ikasleen hezkuntzarekin batera azaltzen den, eta aldi berean, lehenengo aldiz, honako hau ezartzen den: Hezkuntza Bereziako Ikastetxeetan eskolatzea ondoren adierazten diren ikasleentzat izango da “... *adimen urriko pertsonak eta moldatu gabeko pertsonak, beti ere, dituzten anormaltasunak direla-eta, beharrezkoa denean ... eta zilegi den kasuetan, erregimen arrunteko Ikastetxeetan, adimen-urritasun arinak dituzten pertsonentzako Hezkuntza Bereziako Unitateak ezartzea sustatuz*”. Hala ere, lege honek berak xedatzen duenaren arabera, Hezkuntza Bereziaren helburuak, egitura eta iraupena, ikasleen maila desberdinetara egokitu beharko dira, eta ez ikasleen adinera. Horrela, bada, nahiz eta zenbait oinarri berri azaltzen diren, Hezkuntza Bereziaren ikuskerak, pertsonaren defizita hartzen duen ardatz nagusi modura, eta horren arabera, helburu, egitura eta iraupen desberdinak ezartzen dira, ikasle guztientzat orokorrean ezarri direnetik desberdinak izango direnak.

Konstituzioa aldarrikatu ondoren espreski azaltzen da “... *hezkuntza herritar guztientzako eskubidea dela...*”, eta minusbaliotasunak dituzten pertsonak gizarte-arlo guztietan integratzeko politika sustatzen hasi zen. Horren ondorioz, Minusbaliatuak Gizarteratzeko Legea (MGL. 1982) sortu zen, eta, bertan, minusbaliotasun fisiko, psikiko edo sensorialak zituzten pertsonen gizarte-arreta eskaintzeko jarraibideak ezarri ziren -hezkuntza-mailako minusbaliotasunak ere barnean zirela-. Aipatutako pertsonen gizarteratzea lortzeko, eskola-integrazioa funtsezko bitartekotzat jo, eta, beraz, hezkuntza-premia bereziak zituzten ikasleen integrazioa lortzeko plana jarri zen martxan; plan horrek zioenaren arabera, “...*minusbaliotasun larrienak dituzten ikasleak bakarrik eskolatuko dira Hezkuntza Bereziako Ikastetxeetan edo unitateetan ...*”, eta aldi berean, kasu horietan ere, hezkuntzaren helburua, maila bakoitzeko ikasle guztientzat orokorrean ezarritako bera zela ulertzen da.

Honekin batera, eta gizarteratzearen filosofiaren barruan, gure Autonomia Erkidegoan Euskal Herrirako Hezkuntza Bereziaren Plana (1982 urria) diseinatu zen, normalkuntza, integrazioa, sektorizazioa eta indibidualizazioaren funtsezko printzipioak praktikan jartzeko helburuarekin. Plan horrek dioenaren arabera, Hezkuntza Bereziak, hezkuntza arruntaren esku jarri behar ditu pertsonal espezializatua eta pedagogia diferentzialaren barruan erabiltzen diren tekniken aplikazioa, eta kontuan hartu behar du, Hezkuntza Bereziako neska-mutilentzat "...*Ikastetxe Arrunta*" dela, bere filosofia eta egiturekin, Hezkuntza Bereziari lagundu behar diona, hezkuntza hobea lortzeko ..." eta "...*noizean behin, ume oro izan daitekeela Hezkuntza Bereziako programaren bat jasotzen duena*". Laguntza-egitura proposatu zen helburu horiek lortzeko, hala nola, Talde Multiprofesionalak eta Zentro Koordinatzaileak sortzea, eta, gainera, Hezkuntza Bereziako gelak eta Ikastetxeak egokitzea ere gomendatu zuten, honako hau zehaztuta: "...*Hezkuntza Bereziako berariazko ikastetxeek onartuko dituzten ikasleak, dituzten urritasunen edo behar dituzten arreta berezien ondorioz, lehen aipatu ditugun geletan ezin izango dira sartu*" (gela arruntak eta HBko gelak).

Hezkuntza Bereziaren Plana garatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan batzordea sortu zen, "eskola ulerkor eta integratzailearentzat Txostena" lantzeko. Horren bidez, hezkuntza-sistema hobetzeko neurriak hartu, eta ondorioz, hezkuntza-premia bereziak zituzten ikasleei arreta hobea eskaini nahi zitzaaien. Txosten honetan azaltzen denez, "...*Hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren eta gazteen Hezkuntzaren helburuak, eta gainontzeko ikasleen Hezkuntzaren helburuak berdina dira.*" Horren arabera, beraz, ez dago hezkuntza-sistema paralelorik; hezkuntza-sistema bakarra dago, irakaskuntza komunak daude, eta horiek hezkuntza-premiak dituzten ikasleen ezaugarrietara egokitu behar dira.

Urriaren 3ko 1/1990 Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legeak (LOGSE), normalizazioa eta integrazioaren aurreko printzipioak indartu zituen, eta honako hau formulatu zuen: "...*hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako helburuak, ikasle guztientzat orokorrean finkatzen diren helburu berak dira*". Hezkuntza-maila eta -etapa desberdinak, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen ezaugarrietara eta gaitasunera egokitu beharko direla esaten du. Ikasle hauentzako hezkuntza-eskaintza, oinarrizko curriculumetik abiatu behar da, beharrezkoak diren egokitzapenekin eta baliabideekin, eta "...*Ikastetxe arrunt batean, behar diren egokitzapenak edo baliabideak eskaini ez daitezkeenean bakarrik eskolatuko da ikaslea Hezkuntza Bereziako unitate arrunt batean*".

Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskal Eskola Publikoaren Legeak (1993), hezkuntza-premia bereziei buruzko erreferentzia asko azaltzen ditu eta izan daitezkeen baztertze-egoerak saihesten lagunduko dituzten neurri positiboak hartzeko beharra azpimarratzen du honela esanda: *"... ahal den guztietan, ikasle guztien eskolatzea unitate arrunten bidez egingo da, eta, hala behar den kasuetan bakarrik, hezkuntza bereziko unitateen bidez, ikastetxe arruntetan. Derrigorrezkoa den kasuan, ikasle hauei hezkuntza bereziko ikastetxeen bidez eskainiko zaie prestakuntza"*.

Aipatu dugun araudiaren azpian dauden printzipioek batu eta bultzatzen dute Hezkuntza Sistemaren Erreforma. LOGSEk eta garatzen duteneko dekretuek, pertsona orok oinarrizko hezkuntza-helburu berak lortzeko eskubidea duela hartzen dute oinarritzat. Hezkuntza-etapa bakoitzerako proposatu den oinarrizko curriculum hartzen da, modu irekian eta malguan, eta oinarrizko curriculum horrek, zehaztasun-prozesu desberdinak erabilita, oinarrizko hezkuntza-helburuak lortzeko bidea ematen die ikasle guztiei, baita hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei ere.

Horrenbestez, ikasleek oinarrizko hezkuntza-helburuak lor dezaten, Hezkuntza Sistemaren Erreformak, Erreformaren beraren garapenaren bidez, zenbait neurri aurreikusitu ditu curriculumean oinarrituta. Curriculum zehazterakoan hiru sakontasun-maila izango ditugu kontuan:

Lehenengo Zehaztasun Maila: Oinarrizko Curriculum Diseinua.

Curriculumaren lehenengo zehaztasun-maila, hezkuntza-etapa bakoitzerako proposatu diren Curriculum Diseinuek osatzen dute. Esparru orokor horretan oinarrizkotzat jotzen diren hezkuntza-elementuak adierazi eta prestakuntza komuneko jarraibideak ezartzen dira ikasle guztientzat.

Bigarren Zehaztasun Maila: Ikastetxearen Curriculum Proiektua.

Bigarren zehaztasun-maila hau ikastetxe bakoitzean egiten den Curriculum Proiektuari dagokio. Horren bidez, Oinarrizko Curriculum Diseinua ikastetxearen ezaugarrietara, ikasleen errealitatera eta euren ingurunera egokitzen da. Curriculum Proiektuan azaldutako erabakiak izango ditugu gidari hezkuntza-praktika ikasleen premietara egokitzeko orduan. Ikasleen artean dagoen aniztasunaz gainera, bertan azalduko da, besteak beste, zer, noiz eta nola irakatsi behar den eta zer, noiz eta nola ebaluatu. Hezkuntza Bereziko

Ikastetxeetan, Ikastetxearen Curriculum Proiektuak egokitzapen garrantzitsuak azalduko ditu, irakaskuntza ikasleen premietara egokitzeko.

Hirugarren Zehaztasun Maila: Gelako Programazioak eta Banakako Curriculum Egokitzapenak (BCE)

Curriculumaren hirugarren zehaztasun-maila, Curriculum Proiektutik abiatuta, hezkuntza-erantzuna talde jakin baten ezaugarrietara egokitzeko egiten diren Gelako Programazioek osatzen dute. Programazio hauetan, zenbait elementutan aldaketak sar daitezke: edukiak, jarduerak, materialak, metodologia, taldearen antolamendua, ..., aipatu taldean azal daitezkeen hezkuntza-premia desberdinei erantzuteko. Aldaketa hauek, hots, doikuntza edo egokitzapen hauek, curriculumeko aginduzko elementuak ez direnetan egiten dira eta ez dute eraginik izaten proposatu diren helburuetan; beraz, subjektuaren curriculumaren ikuspegitik garrantzi handirik ez duten aldaketak direla esan daiteke, baina aldi berean, garrantzi handia dute ikasleek bizi dituzten egoera desberdinei erantzun ahal izateko.

Horrez gain, eragin handiagoa duten egokitzapenak daude; kasu honetan, programazioa diseinatzeko erreferentzia bezala hartzen den curriculum, aurreko ziklo edo etapa batekoa da, eta curriculum arruntaren helburuak neurri handi batean aldatzen dira. Ikaslearentzat banakako curriculum-egokitzapen bereziak (BCE) dira, izan ere, elementu batzuk jartzen dira beste batzuen ordean, proposatu diren elementuetako bat kendu edo elementu desberdinak gehitzen dituzte. Aldaketa-mota hauek ditugu curriculum zehazteko azken urratsa, eta batzuetan, ikasleak dituen premia bereziei erantzuteko eman beharreko urratsa izan ohi da. Zentzu honetan, curriculum osoan eragina dutenak ere egokitzapen garrantzitsutzat jotzen dira, ikastetxe arruntan gela iraunkorretan zein Hezkuntza Bereziak ikastetxeetan eskolatutako ikasleei dagokienean, esaterako.

HEZKUNTZA BEREZIKO IKASTETXEAK

Aipatu ditugun curriculum egokitzeko estrategien helburua, azken batean, hauxe da: hezkuntza-premia bereziak dituen ikasleak edozein pertsonarentzat finkatzen diren oinarriko helburuak lortu ahal izatea. Beraz, curriculum arruntaren esparruan eta egokitzeko modu desberdinen bidez, hezkuntza-egoera desberdinei erantzuteko modua bideratzen da.

Pertsona-multzo batek larritasun handiko hezkuntza-premia iraunkorrak ditu. Lehenago aipatu ditugun curriculum-egokitzapenez ezezik, neurri bereziak ere behar ditu oinarrizko hezkuntza-helburuak lortzeko. Horrelako kasuetan, egin beharreko egokitzapen garrantzitsuen ondorioz, curriculumak oso ezaugarri bereziak ditu eta, beraz, curriculumaren funtsezko elementuetan eragina izateaz batera, curriculumak garatzeko baliabide bereziak behar izaten dira.

Hezkuntza Bereziko Ikastetxeetan minusbalotasun larriak eta iraunkorrak dituzten pertsonen egoki erantzuteko bidea eskaintzen da. Bestela, Hezkuntza Bereziko Ikastetxerik gabe, ezinezkoa izango litzateke euren garapena sustatzeko baldintza egokiak lortzea. Pertsona-multzo horrek dituen premia larriak eta iraunkorrak, gehienetan, buruko atzerapen larri eta sakonetik edo/eta garapen-arazo orokorretik datoz, horiei lotuta beste zenbait minusbalotasun ere agertzen direlarik. Gaur egun, Hezkuntza Bereziko Ikastetxeen bitartez, hezkuntza-sistemak bidea ematen du pertsona-multzo horrek ere ikasle guztientzat oro har ezarri diren helburu berberak lor ditzan .

Gizarteratzeko eskubidearekin bat etorritik, ikastetxe hauetan ikaslea honako kasu hauetan eskolatuko dugu: lehen aipatu ditugun curriculumaren egokitzapenerako neurriak nahikoak ez direnean, eta, ikaslearen premiei erantzuteko baliabide bereziak eta jarraiak behar direla-eta, ikastetxe arrunt batean erantzunik eman ezin denean.

Ildo horretatik, gogoeta egiteko zenbait galdera planteatzen dira, Hezkuntza Bereziko ikastetxeen funtzioa argi eta garbi definitzeko, eta curriculumaren antolamendua eta Curriculum Proiektua lantzea erraztuko duten zenbait irizpide finkatzeko.

Besteak beste, honako hau planteatu behar da:

- Zein da, oro har, Hezkuntza Bereziko ikastetxeen hezkuntza-helburua?
- Nortzuek erabiliko dute Hezkuntza Bereziko ikastetxe batean curriculumak?
- Zeintzuk izango dira Hezkuntza Bereziko ikastetxeen hezkuntza-helburuak? Baliagarriak al dira helburu arruntak?
- Ikastetxearen Curriculum Proiektua lantzeko orduan, zein erreferentzia hartu behar dugu kontuan?
- Hezkuntza Bereziko ikastetxe baten Curriculum Proiektua lantzeko, zein prozesu jarraitu behar da?
- Eta abar.

Galdera horiek argitzeko, jarraian zenbait erreferentzia azalduko dira. Curriculum berezia erabili behar duten egoerak definitzen lagundu, eta ikastetxe hauen hezkuntza-funtzioari buruzko irizpideak eskainiko dituzte, baita funtzionamendu, curriculumaren antolamendu eta abarri buruzko irizpideak ere; azkenik, irakasleei, curriculum lantzeko prozesuari dagokionez, orientabideak eskainiko zaizkie.

1. Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleen eskolatzea

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen eskolatzeak ziurtatu behar du ikasleek dituzten premiei hezkuntza-erantzun egokia emango zaiela. Ikaslea ahalik eta ingurune normalizatuenean gizarteratzeko printzipioa eduki behar du helburutzat. *"Eskolatu, ingurunea ahalik eta gutxien murriztuta"*; printzipioa hori, praktikan, hainbat heziketa-modutan ikusten da, besteak beste, Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan, baldin eta ikasle jakin batzuen hezkuntza-premiei erantzun egokia ematen badiete. Beraz, hezkuntza bereziko ikastetxeetan eskolatzea ez da ohiko egoera. Egoera berezia da, premia bereziak eta behar diren berariazko baliabideak direla-eta, ikastetxe arruntean hezkuntza-erantzun egokia aurkitzen ez duten ikasleentzat antolatua.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen eskolatzea, ondoren adierazten diren hiru funtsezko premisak kontuan hartuta egin behar da:

- ikasle bakoitzak, bere hezkuntza-premien arabera, behar duen curriculum-mota;
- ikaslea ahalik eta gutxien murriztuko duen giroa aukeratzea, ikaslearen gizarte-garapena ziurtatzeko;
- azkenik, ikasle bakoitzaren eskola-egoera aldizka jarraitzeko eta aztertzeko neurriak aurreikustea, eboluzio-une bakoitzean ikaslearen eskola-egoera zein den baloratu ahal izateko.

Azaltzen diren hezkuntza-premiak anitzak izanik, erabili beharreko arreta-modalitateak ere era askotakoak dira, batez ere, ikasleetako bakoitzak bere garapenerako behar dituen berariazko baliabide eta laguntzen araberrakoak. Ia kasu gehienetan, laguntza eta baliabide berezi horiek ikastetxe arruntetan koka daitezke, era horretara, hezkuntza-erantzun integratzaileak indartzeko; beste zenbait egoeratan, larritasun eta iraunkortasun handiagoko hezkuntza-premiak dituzten ikasleentzat, baliabide horiek hezkuntza bereziko ikastetxeetan aurkituko dira.

Praktikan, hezkuntza-premia larriak eta iraunkorrak dituzten ikasleei eskaintzen zaien hezkuntza-arreta, funtsean, bi esparrutan planteatzen da: Hezkuntza Bereziko ikastetxeak, eta ikastetxe arruntetan dauden Gela Iraunkorrak.

1.1. Hezkuntza Bereziko Ikastetxeetan.

Minusbaliotasun larriak dituen subjektu bat hezkuntza bereziko ikastetxe batean eskolatzea honako kasu honetan proposatuko da: ebaluazio eta orientazio psikopedagogikoa egin ondoren, curriculum arruntetik asko urrunduta, ikaslearen hezkuntza-premiekin curriculumaren egokitzapena eskatzen dutenean, eta, horrez gain, giza baliabide eta baliabide material intentsiboak eta iraunkorrak behar dituztenean.

Kontuan hartu behar dugu, Hezkuntza Bereziko ikastetxeek aldaketak izan dituztela, aldagai soziologikoei eta hezkuntza-mailakoei eraginda. Alde batetik, pixkanaka-pixkanaka Hezkuntza Bereziko ikastetxeetara joaten den ikasle-kopurua gutxituz joan da, hezkuntza-sistema arruntaren normalkuntzaren eta gizarteratzearen ondorioz; bestalde, ikastetxe arrunt hauetara joaten diren ikasleek azaltzen dituzten hezkuntza-premien larritasuna areagotu egin da; ondorioz, metodologia eta baliabide espezializatuagoak erabiltzea beharrezkoa da, baita curriculum modu egokian egokitzea eta pertsonaren garapenerako oinarrikoak diren arloetan arreta eskaintzea ahalbidetzen duten antolamendu-sistemak planteatzea ere.

Ikastetxe hauetan, hezkuntza-zeregin espezializatua gailentzen da, Ikastetxearen Curriculum Proiektuan islatuko dena eta Curriculum horri izaera desberdina edo berezia ematen diona, izan ere, curriculum-egokitzapen garrantzitsuekin erlazionatutako hezkuntza-erantzunak eskaintzen ditu; hau da, egokitzapen garrantzitsua izan duen ikastetxearen curriculum izango da, baita lantzeko orduan etapa desberdinetako curriculum arruntaren erreferentziak erabil daitezkeenean ere.

Arrazoizkoa da pentsatzea, neurri handi batean egokitutako Curriculum Proiektuaz gain -ikastetxearen hezkuntza-zeregina gidatzen duena-, ikasle bakoitzak bere premietara egokitutako banakako lanerako plan edo programazio bat ere behar duela, banakako curriculum-egokitzapena, alegia. Banakako curriculum-egokitzapena egiteko, erreferentzia modura Ikastetxearen Curriculum Proiektuaren helburuak hartuko dira, eboluzio-etapa edo -une

desberdinetan planteatu direnak, 4. kapituluan zehaztasun handiagoarekin azaltzen den moduan.

1.2. Ikastetxe arruntetako gela iraunkorretan

Ikastetxe arruntetan gela iraunkorrak daude, hezkuntza-premia larriagoak eta iraunkorrak dituzten ikasleei lagundu ahal izateko. Ikasle-talde iraunkor batek, hezkuntza bereziko tutore batek eta pertsonal laguntzaileak osatzen dituzte gela iraunkorrak; berriazko arazoaren eta minusbaliotasunaren sakontasunaren arabera, gela arruntean egoki garatu ezin daitekeen hezkuntza-programa behar dute. Hezkuntza-erantzunaren eredu honek, premia berezietara egokitutako banakako arreta ahalbidetzen du, eta aldi berean, gizarteratzea eta integrazio pertsonala errazten ditu, baliabideak berak gizarte-espazio normalizatu batean integratuta baitaude.

Gela hauek baliabide berezi eta iraunkorrak, espazioaren egituraketa eta berriazko programazioa behar dute, izan ere gela hauetako ikasleen ezaugarriek curriculum neurri handi batean egokitzea eskatzen dute. Egokitzapen honen emaitza gelako programazio bat da, curriculum arruntetik neurri handi batean aldentzen dena. Hori gertatzen da hezkuntza bereziko gela iraunkorrekin, baita autismoa edo beste zenbait arazo sakon duten ikasleen gela iraunkorrekin ere.

Gela-mota honen hezkuntza-lana, Gela Arrunteko Curriculum Proiektu batean islatzen da. Ikaskuntzari dagozkion alderdietan desberdina da, baina antolamendu, espazio partekatu, eta abarri dagokienez, Ikastetxearen Curriculum Proiektuaren barne dago; beraz, hezkuntza-premia larriei erantzun espezializatu emanaz gero, horrelako ikasleak gure ingurune arruntean sartu eta gizarteratzeko modua dago.

2. Hezkuntza Bereziko ikastetxeetako ikasleak. Hezkuntza-premiak.

Berriazko ikastetxe bateko curriculum jaso dezaketen ikasleak sailkatzeko orduan, ikasleek dituzten minusbaliotasunak bakarrik kontuan hartzea oso arriskutsua da, izan ere, pertsona guztiek ez dituzte minusbaliotasunak modu berean azaltzen. Horrez gain, gaur egun buruko atzerapenaren ikuskeran aldaketa berriak izan dira, hezkuntza-arreta eskaintzeko orduan elementu oso interesgarriak eskaintzen dituztenak. Buruko Atzerapenei buruzko Elkarte Amerikarrak

(A.A.M.R. 1992)⁽¹⁾ zera proposatzen du: minusbaliotasuna duen pertsonak ohiko ingurunean lortzen duen funtzionamendu-maila buruko atzerapena aztertzeko orduan kontuan hartu beharreko elementu gisa hartzea. Beraz, orain arteko pentsamoldea aldatuz, ikuskera honek garrantzi handiagoa ematen die pertsonak bere ingurunean moldatzeko dituen egokitzapen-faktoreei eta faktore funtzionalei, Adimen Kozientearen arabera atzerapen-mailari baino.

Pertsonaren gaitasunen eta normalean ibili ohi deneko inguruneetan agertzen duen funtzionamendu-mailaren arteko elkarrekintza kontuan hartuz, pertsonari laguntzeko behar diren arreta-motak, eta arreta horien iraupena eta intentsitatea baloratuko dira. Zentzu honetan, egokitzapen funtzionalaren irizpidea hezkuntza-ingurunera ezarriz, honako hau esan dezakegu:

“hezkuntza bereziko ikastetxea, zenbait ikaslerentzat beharrezko arreta da; ikasle horiek eskola-inguru arruntan azaltzen duten funtzionamenduan arreta-mota berezia eta banakakoa behar da, baita gainbegiraketa edo laguntza jarraia ere ikasleak garatzen dituen zereginetan”.

A.A.M.R. Elkartearen arabera, buruko atzerapenaren kasu baten aurrean aurkituko gara:

- Egungo funtzionamenduan muga garrantzitsuak daudenean
- Adimen-mailako funtzionamendua neurri handi batean batezbestekoaren azpitik dagoenean
- Ondorengo egokitzeko trebetasunen artetik (*) bi edo gehiago mugatuta daudenean:
 - Komunikazioa
 - Norberak bere burua zaintzea
 - Etxeko bizitzarako trebetasunak
 - Gizarte- trebetasunak
 - Komunitatearen erabilera
 - Nork bere burua gidatzea

¹ VV.AA. *Mental retardation*. 1992. American Association on Mental Retardation. Washington

- Osasuna eta segurtasuna
 - Akademika funtzionalak
 - Aisialdia
 - Lana
- Atzerapena 18 urte izan baino lehenago antzematen da

(*) *Egokitzeko trebetasunak* terminoak, *egokitzeko jokabideak* terminoa ordezkatzuz, pertsona oro pertsonalki eta gizartean moldatzea lortzeko behar den gaitasun-multzo handia barne hartzen du.

Normalean, egoera hori, garapenean atzerapen orokorrak eta sakonak daudelako eta sentimen-defizitak daudelako, non beste zenbait urritasun ere azaltzen diren, gertatzen da. Kategoria horiek interpretatzeko orduan malguak izanik, zenbait egoera defini daitezke, zeintzuk pertsonak agertzen dituen minusbaliotasun larrien eta egokitzapen-maila baxuaren arabera, hezkuntza-programan eragina duten, baita hezkuntza-programa garatzeko behar diren baliabideak prest edukitzean ere.

Jarraian, curriculum berezia zein kasutan garatu behar den esango dugu. Hauexek dira kontuan izan beharreko egoera garrantzitsuenak:

- **Garapenaren arazo sakonak eta buruko atzerapen larri eta sakona dituela-eta, hezkuntza-premia bereziak eta iraunkorrak dituen ikaslea.**

Ikasle hauen ezaugarri nagusia hauxe da: komunikazioa, autonomia eta gizarte-ingurunearekiko elkarrekintza garatzeko orduan arazo larriak izatea. Ikaskuntza-programen helburua izango da ohitura funtzionalak bereganatzea, ahalik eta autonomia pertsonal eta sozialik handiena lortzeko. Ikasle horiek hezkuntza-ingurunea ondo egituratua behar dute, laguntza eta gainbegiraketa jarraiekin. Askotan izaten dituzte beste zenbait arazo, hala nola arazo organikoak, epilepsia, sentimen-nahasteak, adimen-paralisiak, muskulu- eta neurona-zailtasunak, eta abar. Hezkuntza-mailan eman beharreko erantzuna, funtsean, ongizate pertsonala hobetzera zuzendu behar da, ingurunearekin elkarrekintza izateko estrategiak eta autonomia pertsonalerako estrategiak eskainiz.

Argi dago horrelako zailtasunak dituzten pertsona guztiek ez dutela, nahita nahiez, hezkuntza bereziko ikastetxe batera zertan joanik eskolatzen direnetik. Ikasle bakoitzak dituen gaitasunak nolakoak diren ikusita, beste aukera batzuk

egon daitezke. Ingurune normalizatu batean ere jardun daiteke curriculum egokitua erabilia. Hala ere, ikasle bakoitzaren garapen pertsonaletik abiatuta premiak ikusita, baloratu egin behar dugu noiz erabili behar diren curriculum eta baliabide intentsiboago eta egokituagoak.

• **Urritasunanitzekin lotutako hezkuntza-premia larriak eta iraunkorrak dituzten ikasleak:**

- **Sentimen-minusbaliotasun larriek, beste zenbait minusbaliotasun asoziatuekin (urritasunanitzak), eragindako hezkuntza-premia bereziak.**

Ikasle-multzo honek sentimen-arazoak izaten ditu entzumenean edo ikusmenean. Zenbat kasutan, bietan batera. Gainera, buruko atzerapena edo bestelako arazoak ere izaten ditu, neuromotoreak edo osasunari dagozkionak. Minusbaliotasun horiek neurri handi batean baldintzatzen dute ikaslearen autonomia pertsonal eta soziala, baita komunikazioaren garapena ere. Ikasle hauek, pertzepzio-gaitasuna seriooki erasanda dute, eta horrez gain, garapen ebolutiboa normalizat jotzen denetik oso urrun dago eta eskuhartze desberdinak eta oso bereziak behar ditu. Ikasle hauengan ebaluatu behar dena honako hau da: jasotako estimulazio goiztiarra, hizkuntza bereganatzeko aukerak, komunikaziorako sistema alternatiboa edo osagarria, baita azaltzen dituzten arazoak ere; hori guztia, ikasle-multzo horrentzako curriculum egokiena aukeratzeko eta non garatu erabakitzeke.

- **Mugimen-minusbaliotasun larriek, beste zenbait minusbaliotasun asoziatuekin (urritasunanitzak), eragindako hezkuntza-premia bereziak.**

Ikasle hauek minusbaliotasun fisikoen ondorioz muga handiak dituzte; minusbaliotasun fisiko horiek minusbaliotasun psikikoekin batera agertzen dira, eta ikaslearen autonomia pertsonalaren, komunikazio-gaitasunaren garapena eta ongizate fisikoa eta emozio-ongizatearen garapena larriki baldintzatzen dute. Hezkuntza-premiez gain, osasun- eta gizarte-mailako premiak ere azaltzen dituzte, iraunkorrak eta hezkuntza-planetan kontuan hartu beharrekoak. Laguntza iraunkorra behar dute, ingurune fisikoa eta gizarte-ingurunea egokitzea behar dute, baita baliabide tekniko espezializatuak ere, curriculumera sartzea erraztuko dutenak eta ikasleen

autonomia eta burubide fisikoa ahalbidetuko dutenak. Minusbaliotasun asoziatuak daudenez, zaila da ikasleek duten ikaskuntza-maila ebaluatzea, baita dakitena edo egiaz ikasteko gai direna asmatzea ere; horregatik da garrantzitsua ikasleengan ikusten ditugun mugak ikasle bakoitzarekin banaka aztertzea, curriculumera iritsi ahal izateko: ikasleek dituzten hezkuntza-premia eta premia pertsonalak, laguntza tekniko bereziak, pertsonal laguntzaile iraunkorra, eta abar.

- **Sentimen-minusbaliotasunek edo neuronen eta mugimenaren gaixotasunek eragindako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak.**

Entzumen- edo ikusmen-defizita, edo edonolako mugimen-minusbaliotasuna, hala nola garun-paralisia, eta abar, duten ikasleek, erlazionatutako beste minusbaliotasun-mota asoziatu larririk gabe, funtsean curriculumera sartzeko berriarazko bitartekoak behar izango dituzte (zeinuen hizkuntza, bimodala, kontzeptuen taula, ahots digitalizatuko ordenadorea, taula fotosilabikoak, eta abar), eta bitarteko horien bidez curriculum arrunta garatu ahal izango dute. Hala ere, ikasleak Hezkuntza Bereziko ikastetxe batean eskolatuta daudenean, Curriculum Proiektuak arazo hauen aurrean sarrera-neurri egokiak hartu behar ditu, eta horretarako, kontuan hartu beharko du, ikasle hauen erreferentzia-curriculum curriculum arrunta izango dela, hau da, OCDetan proposatzen diren helburu orokorrak, nahiz eta ziur aski, curriculum-arlo batean edo gehiagotan egokitzapenak zehaztu ditzakeen.

Ikastetxearen curriculum lantzeko prozesuari dagokionez, garrantzitsua da irakasleek hezkuntza-premiak antzematea, bai taldekoak bai ikasle bakoitzak dituenak ere, izan ere, ikasleen ezaugarriek garapen-aukera desberdinak eskaintzen dituzte eta laguntza-maila desberdinak behar dituzte, hezkuntza-planteamenduan islatu behar direnak. Zentzu horretan, Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan antzeko ezaugarriak dituzten ikasleak biltzen dira, behar duten baliabide-motak eta hezkuntza-mailako arreta kontuan hartuz. Ikasle-talde honen oinarrizko hezkuntza-premia bereziak zehaztu daitezke, ikastetxearen curriculum egokituaren funtsezko elementua eta ardatza osatuko dutenak.

Ondoren adierazten den moduan laburtzen dira premiak:

1. Komunikazioarekin erlazionatutako hezkuntza-premiak

- ongizate pertsonala lortzeko, ingurunearekin elkarrekintza-estrategiak behar dituzte
- ahozko hizkuntzaren edo beste komunikazio-sistema baten bidez, zeinuen hizkuntzaren bidez, eta abar, euren komunikazio pertsonala hobetu behar dute
- Ingurune fisikoa eta soziala ezagutzeko eta portaera- nahiz egokitzapen-arazoak saihesteko, estrategiak garatu behar dituzte
- euren barne-egoera eta egoera fisikoa zein emozionala gainontzekoei adierazteko komunikazio-estrategiak behar dituzte
- beste pertsona batekin duten komunikazioan, intenzionalitatea finkatzea behar dute
- funtzio sinbolikoa bereganatzea eta hizkuntzaren erabilera erraztu behar dira.

2. Autonomia eta Identitate pertsonalarekin erlazionatutako hezkuntza-premiak

- portzentaia handi batek, osasunarekin eta ongizate pertsonalarekin erlazionatutako arreta medikoa behar du
- zenbait ikaslek beste zenbait arazo asoziatu azaltzen dituzte, hala nola epilepsia, jarrera-mailako arazoak
- euren sentimen-pertzepzioa indartzea behar dute, izan ere kontzientzia-maila mugatua eduki dezakete.
- ongizate fisikoa eta emozio-ongizatea emango dien askatasun pertsonala lortzea behar dute
- askatasuna ematen dieten oinarrizko ohiturak bereganatzea behar dute: elikadura, garbitasuna, portaera, ...
- eguneroko jardueretan parte hartzea behar dute, eta euren aukeren neurrian, etorkizunean lana izatea.

3. Gizarte-esparruan dituzten premiak

- garapen pertsonalerako beste pertsonekin harreman normalak edukitzea behar dute, baita ahalik eta ingurune ez-murritztaileenetan moldatzea ere
- gizarte- eta emozio-giro sendoa eskaini behar zaie
- pertsonen egiteak eta izango diren gertaerak aurreikusten ikastea behar dute
- euren ekintzak ibili ohi direneko testuingurura egokitu behar dira
- gizarte-ingurunearen gainean kontrola izaten ikasi behar dute, eta ez bakarrik ingurune fisikoan
- euren ongizate pertsonalerako beharrezkoak diren aisialdia, zaletasunak, eta abar, antolatzea zaila egiten zaie

- hainbat inguruetan parte hartzeko laguntza behar dute (hezkuntza-ingurunea, familia, aisialdia, lan-ingurunea, ...)

4. Ezagutza-garapenarekin erlazionatutako premiak

- ikasitakoa orokortzeko zailtasun nabariak azaltzen dituzte
- pentsamendu zehatza dute eta hurbileko egoeretan hobeto erantzuten dute; pertzepzio-memoria- eta arreta-mailako berariazko zailtasunak dituzte
- ingurunea ezagutzeko eta giro egituratu batean euren ekintzak antolatzeko estrategiak bereganatzea behar dute
- prozesu sinbolikoak errepikatzeko eta bereganatzeko arazoak dituzte
- printzipioak eta arauak ateratzea eta egoera desberdinetara ezartzea zaila egiten zaie.

5. Berariazko laguntzen premiak.

- banakako arreta behar dute
- giro egituratua eskaintzea behar dute
- laguntza-mota desberdinak behar dituzte, baita zereginak betetzeko maiz gainbegiratzea ere
- elkarrekintza pertsonalaren bidez, emozio-oinarria eskaini behar zaie
- ingurunea hobeto ezagutzeko, komunikazio alternatiboarekin erlazionatutako hezkuntza-baliabideak eta -metodologiak behar dituzte
- beraienezko funtzionaltasun gehiago eta askatasun pertsonal handiagoa eskainiko dieten ikaskuntzak aukeratu behar dira
- ingurunera sartzeko, curriculumean eta ingurunean bertan egokitapenak behar dituzte.

3.- Hezkuntza Bereziko ikastetxearen hezkuntza-helburuak

Minusbaliotasun garrantzitsuak dituzten pertsonen hezkuntzan planteatzen diren helburuak, hezkuntza arruntean planteatzen diren helburu berak dira. Ikasle ororentzat helburua da gaitasunak ahalik eta gehien indartzea, hots, afektibitateari, fisikoari, ezagutzari eta gizarteari dagozkien alderdiak indartzea, ikaskuntza-prozesuetan eta garapen pertsonalean eragina izan dezaketen egoerak orekatuz eta optimizatuz. Hezkuntza-sistemak, etapa desberdinetan (haur-hezkuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza) helburu jakin batzuk

planteatzen ditu, eta helburu horiek egoera berezietan ere baliagarriak dira; adin kronologikoa, hezkuntza-etapa bakoitzaren berezko interes bereizgarriak, eta abar errespetatzean datza; aldi berean, egoera pertsonalak ere kontuan hartu behar dira, eta horren arabera, ikaskuntza-prozesuaren baldintzak aldatu, hezkuntza-helburuak, -edukiak eta -metodoak subjektuen gaitasunetara eta premietara egokituz.

Gaur egun ezin daiteke hezkuntza ulertu, “bizi-kalitatea” eta ongizatea printzipioak bertan sartu gabe. Bizi-kalitatearen kontzeptua, gizabanakoak dituen garapen-aukerek in erlazioan dago; zentzu honetan, hezkuntza, bere baitan, kultur balore garrantzitsua da, eta hezkuntzaren barruan sartzeak bizi-kalitatearen parametroetako bat adierazten du. Minusbaliotasun larriak eta iraunkorrak dituzten ikasleak aipatzean, kontuan hartu behar da, ikasle hauek dituzten gizarte-mailako, osasun-mailako eta hezkuntza-mailako premiak bizi-kalitatearen osagai garrantzitsuak direla. Ondorioz, egingo den hezkuntza-planteamenduak, irakaskuntza-kalitatea hobetzeaz ezezik, ongizate fisikoa eta emozio-ongizatea ere hobetzen lagunduko du.

Hezkuntza bereziko ikastetxeetako curriculumaren helburuetako bat, minusbaliotasun larriak dituzten ikasleei, gaitasunen garapena ziurtatzea izango da, ingurune desberdinetan ahalik eta autonomia handienarekin parte hartu ahal izateko, horrela ahalik eta bizi-kalitate eta ongizate handiena lortu ahal izateko. Helburu hauek betetzera zuzentzen den curriculumak, garatzeko erreferentzia bezala, hezkuntza-etapa bakoitzaren oinarritzko curriculum-diseinuetan planteatzen diren printzipio orokorrak hartuko ditu, zeintzuk ikaskuntza-helburuak, edukiak, edukien denboralizazioa, aplikatu beharreko metodologia, laguntzak eta baliabideak, eta abarren egokitzapena gidatuko duten.

II. KAPITULUA:

HEZKUNTZA BEREZIKO IKASTETXEEN CURRICULUM-PROIEKTUA

Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan Curriculum Proiektua lantzeko orduan, batez ere, ikasleak dituen hezkuntza-premia bereziak hartu behar dira kontuan, premia larri eta iraunkorrak, eta, aldi berean, irakatsi eta ikasteko prozesuak horren arabera nola egokitu behar diren ere ondo aztertu behar da. Eskola-curriculumak testuingurura eta ikasleen ezaugarrietara egokitu behar denez, Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan Curriculum Proiektua osatzeko modua bera ere ezberdina da, bestelakoa. Baditu, beraz, besteekin alderatuta, osagai bereizgarri batzuk:

1. Lehenik eta behin, Hezkuntza Bereziko ikastetxe baten Curriculum Proiektuak curriculumaren oso egokitzapen handia dakar; izan ere, curriculumak lantzean, ***curriculum orokorraren helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak neurri handi batean aldatu behar dira***. Gainera, arloen antolamendua, edukien sekuentziak nahiz antolamendua, eta eskola-antolamendurako moduak ere egokitu egin behar dira.

2. Bigarren, ***proiektu bakar batetik ikasle-talde anitzari erantzun behar zaio***, ezaugarri asko kontuan hartuta: adina, garapen-maila, eboluzio-erritmoak, behar duten laguntza-mota, askatasun-maila, itxaropenak, eta abar.

3. Ondorioz, Curriculum Proiektuak egoera desberdinetarako erantzun desberdinak artikulatu eta integratu behar ditu, eta horrek ***ikastetxea antolatzeko moduan, maila guztietan zeharkako eragina izango du***: etapak eta zikloak eta horien erreferentzia-adinak egokitu beharko dira, baita profesionalen antolamendua, espazioak, denbora, ikasleak multzokatzeko modua, eta abar.

Orokorrean, curriculumak egokitzeko prozesuak continuum ideari erantzuten dio, egile desberdinek jadanik azaldu dutena. Curriculumak sailkatzeko egin diren saiakera desberdinen artean, Hegarty eta Hodgson⁽²⁾ egileek curriculum berezi bat izan daitekeena azaltzen dute, hots, hezkuntza-premia bereziak integratzeko ikuskera. Egile horien arabera, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen curriculumak, eskolaren antolamenduarekin batera aztertu behar da, izan ere, eskola-antolamenduak zehazten du aldaketak dituen

(2) HEGARTY S., HODGSON A., CLUINIES-ROSS L. 1988. *Aprender juntos. La integración escolar*. Morata. Madrid.

curriculum bat eskaintzeko aukera, curriculum arruntetik edo curriculum berezi batetik abiatzen dena.

Bost kategoria bereizten dituzte. Horietako bakoitzak curriculuma egokitzeko modalitate bat ekarriko du, eta, aldi berean, eskolaren antolamenduan eta aurreikusitako laguntza-sisteman izango du eragina. Egile hauek egindako sailkapenean oinarrituta, parekotasuna ikusten da, batetik, proposatuko kategoria horiek, eta, bestetik, gure hezkuntzako curriculumaren egokitzapen-motak alderatuz gero. Hori argi ikus daiteke 1. koadroko eskeman.

Sailkapen horren arabera, curriculum arruntean egiten diren eta 1. eta 2. kategoriari dagozkien egokitzapen orokorrak bereiz daitezke. Horrez gain, curriculum arruntetik abiatuta egokitzapen garrantzitsuak egin ahal dira, eta ondorioz, Banakako Curriculum Egokitzapenak (BCE) sortzen dira, 3. kategorian azaltzen den bezala. Beste muturrean aurkituko genituzke curriculum bereziak eta desberdinagoak osatzen dituzten egokitzapen garrantzitsuak; kasu hauetan, egokitzapen-maila, koalitatiboki eta koantitatiboki handiagoa da, eta curriculum arruntaren edota baliabide arrunten bidez ikasleei erantzun ezin zaien egoeretan egiten da, 1. koadroko 4. eta 5. kategoriatan azaltzen den bezala.

Curriculuma egokitzeko azken modalitate honi buruz jarduten du agiri honek. 4. eta 5. kategoriak, gure hezkuntza-praktikan planteatutako antzeko hezkuntza-egoerekin bat datoz: ikastetxe arruntetan eta Hezkuntza Bereziako Ikastetxeetan Gela iraunkorrak edota Hezkuntza Berezia. Kasu honetan proposatzen diren hezkuntza-programetan lehentasuna dute ikaskuntza-mota funtzionalek, autonomia pertsonalaren garapenak, baita gizarte- eta komunikazio-mailako trebetasunak ere. Curriculum-mota berezi honek, curriculum arruntaren elementu gehienek aldaketa eragiten du; ikasleek dituzten minusbaliotasun larriek eta iraunkorrek eragindako hezkuntza-premien arabera proposatzen da, izan ere, minusbaliotasunaren ondorioz ikaskuntzarako zailtasun handiak dituzte.

1. koadroa

<i>Hegarty eta Hodgson. Sailkapena</i>	<i>LOGSE EAEn</i>
1. Curriculum orokorra.	<ul style="list-style-type: none">• Oinarrizko Curriculum Diseinua (OCD).
2. Curriculum orokorra, zenbait aldaketarekin.	<ul style="list-style-type: none">• Ikastetxearen Curriculum Proiektua (ICP).• Zikloetako Curriculum Proiektua.• Ikasgelako programazioa.
3. Curriculum orokorra, aldaketa esanguratsuekin.	<ul style="list-style-type: none">• Banakako Curriculum Egokitzapena (BCE).• Gelako programazio egokitua.
4. Curriculum berezia, gehikuntzekin.	<ul style="list-style-type: none">• Curriculum funtzionala.• Oinarrizkotzat jotzen diren zenbait arlotan zabalduetako curriculumak; autonomia, gizarte-gaiatsunak, komunikazioa, ...• Egoera Berezietan Curriculum Proiektua (Gela Iraunkorra, Zeregina Ikasteko Gela, ...).
5. Curriculum berezia edo desberdina	<ul style="list-style-type: none">• Hezkuntza Bereziko Ikastetxeetako Curriculum Proiektua.• Egokitzapena, oso modu esanguratsuan

Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan curriculumaren antolamendua

Hezkuntza bereziko ikastetxeetan hezkuntza-premia bereziak dituzten adin desberdineko ikasleak hezten dira, hezkuntza-ibilbide osoa barnean hartuta, haurtzarotik helduarora. Proposatzen den curriculumak hezkuntza-premia pertsonal eta banakako hauekin bat etorri behar du, baina aldi berean, hezkuntza-etapa bakoitzeko adinaren berezko interesak ere kontuan hartu behar ditu.

Hezkuntza-premia larriak daudela ikusita, arrazoizkoa da ikastetxeak helburu orokorrak planteatzea, hiru hezkuntza-etapetako helburuetan oinarrituta (haur-hezkuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza). Ondoren, helburu orokor horietan, egin beharreko egokitzapenak, aldaketak eta lehentasun-mailaketak egingo dira, edo helburu berriak eta egokiagoak sartu, testuinguruaren eta ikasleen ezaugarriak aintzat izanik. Horrez gain, kontuan hartu behar da, hezkuntza-premiak ikasleen adin kronologikoarekin batera aldatuz doazela, beraz, ikastetxearen curriculumak bateragarri egin behar ditu premia bereziak eta adin kronologikotik ondorioztatutako lehentasunak.

Ondorioz, planteatuko den ikastetxearen curriculumak, aurretik egokitutako helburu orokor batzuk lortzera bideratuko da; curriculum honetan, hezkuntza-etapa desberdinak planteatu daitezke, berezko hezkuntza-helburuak edukiko dituztenak. Antolamendua etapaka eta zikloka eginda, errazago eta argiago definituko da ikasleak eskolatzeko-prozesu osoan egindako curriculumak, baita hezkuntza-etapa bakoitzari dagozkion programak eta metodologiak proposatu eta ebaluatzeko modua ere.

Hezkuntza-premia bereziak dituen ikasleak hezkuntza-sisteman ustez egin dezakeen ibilbidea kontuan hartuta, ikastetxearen curriculumak antolatzeko proposamena egiten da, eta, proposamen hori gero, era horretako proposamenetan malgutasunez jokatu behar dela jakinda, egokitu egin behar da ikastetxe bakoitzaren ezaugarrien arabera (2. *koadroa*).

Proposamen horretan, curriculumak unitate bakarra osatzen du, nahiz eta bertan ondo bereizitako *etapak* dauden. Etapa horien bidez, oinarritzko hezkuntza-helburuak lortu nahi dira, aurretik egokitutakoak. Berezko helburuak dituzten hiru etapa bereizten dira, eta etapa horiek egokituz, ikastetxearen Haur hezkuntza, Lehen hezkuntza eta Bigarren hezkuntza osatzen dira. Azken etapa honetan, hots, Bigarren hezkuntzan, helduarorako saltoa ematen da, horrela, ikasleak hezkuntza-sisteman egin dezakeen ibilbidea osatuz.

Etapa hauetan hezkuntza-ziklo desberdinak bereizten dira. Ziklo bakoitzak, plangintzarako, edukiak antolatzeko, ikasleak multzokatzeko, ebaluaziorako, eta abar, **marko edo unitate bat** osatzen du. Antolamendua zikloka egiteak, ikasle bakoitzaren gainean egin beharreko jarraipena errazten du eta minusbaliotasun larriak dituen pertsonaren ikuspegi pertsonalagoa eta indibidualizatuagoa eskaintzen du, non ikaslearen une ebolutiboa adinaren berezko interesekin integraturik jarraitzen den.

Ikaskuntza-edukiak antolatzeko orduan, edukiak **esperientzia-esparrutan** antolatzea erabakitzen da, ezagupen-arloen ordeztan, izan ere, hezkuntza-premia bereziak dituen ikasleentzako ikaskuntza, nagusiki bizi ditzakeen esperientzia esanguratsuetara lotuta dago. Esparruaren kontzeptua erabilgarria da, izan ere, ikasleak ardatz esanguratsuen inguruan (autonomia pertsonala, komunikazioa, ezagutza-garapena, eta abar) egin ditzakeen jardueren eta esperientzien ideia adierazten du. Ardatz edo esparru horiek, ikaskuntza-edukiak eta -jarduerak banatzea ahalbidetzez gain, proposamen didaktikoak hezkuntza-etapa bakoitzaren esperientzia esanguratsuekin erlazionatutako esparru handien inguruan antolatzea ere ahalbidetzen du.

Hezkuntza Bereziko ikastetxe batean curriculum antolatzeko orduan, zenbait irizpide kontuan hartu behar ditugu, helburuak, ikaskuntza-edukiak antolatzeko, hots, irakaskuntza-jardura osoa ikasleentzako ezaugarrietara egokitu behar dugu. Aipatu irizpideak honako hauek dira:

- Ikasleentzako adin kronologikoa eta adinari lotutako premiak eta interesak
- Ikasleentzako hezkuntza-premia bereziak
- Erabiliko diren curriculum-erreferentzia arruntak
- Ikasleentzako curriculum-mota esanguratsuenak
- Abiapuntu eta helburu izango diren egokiteko trebetasunak
- Etapen eta zikloen erreferentzia-adinaren egokitzapena
- Erabiliko diren curriculum-erreferentzien egokitzapena

2. koadroa

IKASTETXEAREN CURRICULUMA

ikastetxearen helburu orokorrak, modu esanguratsuan egokituak

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza



<i>Ikastetxearen Curriculum Zikloak</i>	<i>Adina Zentroaren etapa</i>	<i>HPB eta Curriculum-erreferentziak</i>	
1. Zikloa	8 urtetik behera salbuespen bezala, haur-adineko ikasleak	HPB + Haur Hezkuntzako helburu egokituak	Haur Etapa
2. Zikloa	8-11/12 urte	HPB + Lehen Hezkuntzako helburu egokituak	Lehen Etapa
3. Zikloa	12-15/16 urte	HPB + Lehen Hezkuntzako helburu egokituak	
4. Zikloa	15-18 urte	HPB + Lehen Hezkuntzako eta DBHko helburu egokituak • Zereginen Ikaskuntzarako Programak: Zereginak: Oinarrizko Ikaskuntzak egokitzea • Autonomia pertsonalerako programak	Bigarren Etapa
5. Zikloa Gizarte Bermerako Programak	18-20 urte	HPB + DBHko helburu egokituak. • Zereginen Ikaskuntzarako Programak: Zereginak: Oinarrizko Ikaskuntzak egokitzea • Autonomia pertsonalerako programak	



ikastetxearen helburu orokorrak, modu esanguratsuan egokituak

Ikastetxearen Curriculum Proiektua lantzeko erreferenteak

Hezkuntza Bereziko ikastetxe baten curriculuma, sakonki egindako egokitzapen-edo zehaztapen-prozesuaren ondorioa da, non ikasle guztientzat oinarrizko hezkuntzan proposatutako zenbait helburu moldatu, ordezkatu edo aldatzen diren.

Curriculuma egokitzeko edo zehazteko prozesu hau, oinarri bezala edo ardatz bezala zenbait erreferente hartuz egiten da. Curriculuma lantzea zailago egingo duten arazoak saihesteko, garrantzitsua da, termino honekin zer ulertzen den argitzea, baita irakasle-taldeak “erreferentea” ideia hezkuntza bereziko ikastetxeetan curriculuma lantzeko testuinguruan nola erabili behar duen argitzea ere.

ERREFERENTEAREN ideia, baieztatzeko eta aztertzeko eredu bezala hartzen den zerbaitekin erlazionatzen da; azterketa honen emaitzaren arabera, elementu jakin batzuk erabilgarriak izan daitezke, eta beste zenbait, berriz, erabilgarriak ez direnez, egokitu, aldatu, moldatu edo kendu egin behar dira.

Idea hau laburbilduz, funtsean bi erreferente-mota bereizten dira, curriculum-proiektua lantzeko orduan kontuan hartu beharko direnak. Erreferente horiek, euren inguruan aldagai anitz laburbiltzen eta antolatzen dituzte, hezkuntza-prozesuan eragina dutenak; elementu esanguratsuenak adierazten dituzte, eta elkarren artean erlazionatzean, emaitza bezala ikasle-multzo jakin baten premia berezietara egokitutako curriculum baten diseinua lortzen da.

Bai Hezkuntza Proiektua, bai Hezkuntza Bereziko ikastetxe baten Curriculum Proiektua ere, bi ardatz nagusien inguruan garatzen da:

- ***Erreferente Berezia: Hezkuntza Premia Bereziak***

Hezkuntza Proiektua eta Curriculum Proiektua lantzeko orduan, kontuan hartu beharreko alderdiak dira ikasleen errealitatea eta euren hezkuntza-premien larritasuna eta iraunkortasuna, adin kronologikoa, behar ditzaketen laguntza jarraiak, euren autonomiarako ezinbestekoak diren ikaskuntzak, eta abar. Azken finean, Curriculum horietan azalduko zaizkigu ikaslearen hezkuntza-premia eta premia pertsonalak, ikastetxearen ezaugarriak eta bereizgarriak, eta neurri handi batean arrunta eta orokorra denetik aldentzen den gauza oro, ondorioz, helburu desberdinak planteatzea, aldatzea edo beste batzuegatik ordezkatzeko eragiten dutenak.


• **Erreferente Arrunta: Oinarrizko Curriculum Diseinuak**

Erreferente honek erabilera orokorreko parametroak biltzen ditu, hezkuntza-errealitatea islatzen dutenak eta hezkuntza-etapa desberdinetako Curriculum Diseinuetan proposatzen diren helburu orokorrak eta oinarrizkoak azaltzen dituztenak. Erreferentzia horiek, hezkuntza bereziko ikastetxeetan literalki ezar ezin direnak, hezkuntza-premia bereziekin batera, egokitzapen egokiak egiteko abiapuntutzat hartzeko beste parametro bat osatzen dute. Minusbaliotasun larriak dituzten ikasleen curriculum-eskaintza egokitzeko abiapuntu dira, eta oso lanabes erabilgarria dira zer irakatsi eta zer ikasi zehazteko, gizarte-ingurunearen eta familia-ingurunearen gaitasun-maila eta ezaugarriak kontuan hartuz. Ondorengo adibidean azaltzen den bezala, DBHko helburu orokorrak, curriculum-a azken hezkuntza-etapetako ikasleen ezaugarrietara egokitzeko orduan, erreferente bezala erabil daitezke.

Helburu orokorra	egokitzapena → Helburuarekin erlazionatutako edukiak
<p>a/ <i>Gorputzaren beraren funtzionamenduaren oinarrizko alderdiak ezagutzea eta ulertzea, baita erabaki pertsonalek norbanakoaren osasunarentzat eta taldeko osasunarentzat dituzten eraginak ere; ariketa fisikoa egiteko azturak, garbitasunak eta elikadura orekatsuen dituen onurak baloratzea, baita bizitza osasuntsua egitea ere.</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> • Garbitasun-azturak praktikan jartzea, hala nola, zainketa pertsonala, hilekoa, bizarra moztea, orraztea, eta abar. • Segurtasun pertsonalean eragin dezaketen lanabesak, aparatuak edo makinak ezagutzea eta erabiltzea. • Elikadura-azturak bereganatzea: janarien kontrola, pisu-taulak erabiltzea, elikadura-jarrera desegokiak kontrolatzea, eta abar. • Elikagaia egokiak ezagutzea eta dieta pertsonalaren autokontrola. • Ariketa fisikorako aztura osasuntsuak bereganatzea. • Zaletasunak eta jolas-jarduerak praktikatzea, aisialdi pertsonalari erantzuteko. • Beste zenbait.

Erreferente arruntaren (parametro orokorrak adierazten dituenak), eta erreferente bereziaren artean (minusbaliotasun larriak dituzten ikasleen hezkuntza-premiak biltzen dituenak), dagoen erlazioak modu esanguratsuan egokitutako curriculum bat osatzen du, hezkuntza-sistema arruntaren antolamenduan eta egituran integratuta dagoena. (3. Koadroa)

3. Koadroa: curriculum lantzeko erreferenteak




Ikastetxearen curriculum-proiektua lantzeko orduan, eta erreferente hauek ezarri ahal izateko, irakasle-taldeak, ziur aski, irizpideak beharko ditu, euren lana bideratuko duten irizpideak, hain zuzen ere. Agiri honetako I. Kapituluan hezkuntza-premia berezien deskribapena egiten da, eta bertan, ikastetxeko ikasleek dituzten hezkuntza-premia bereziak baloratzen eta definitzen lagunduko dituzten zenbait orientabide azaltzen da.

Erreferente arruntari dagokionez, Oinarrizko Curriculum Diseinuak oinarrizten direneko iturri desberdinen azterketak, Ikastetxearen Curriculum Proiektua lantzeko lehenengo informazioa eskaintzen digu. Iturri psikologikoa, pedagogikoa, epistemologikoa eta soziologikoa, irakasle-taldeak curriculuma egokitzeko prozesuari ekin baino lehen egin beharreko gogoetarako erreferentea dira, eta eskola-erantzun egokiagoa eman ahal izateko kodeak eskainiko dituzte. Iturri bakoitzak premia larriak eta iraunkorrak dituzten ikasleen ezaugarriei buruzko informazioa eskainiko ditu, eta aldi berean, helburuak aukeratzean, irakasteko moduan, eduki garrantzitsuenak, eta abar, aukeratzeko orduan orientatu egiten dute, azkenean, ikastetxeko ikasleentzako Curriculum Proiektua lortuz.

Ondoren agertzen den eskeman, gogoetarako zenbait irizpide azaltzen dira, larritasun bereziko premiak dituzten ikasleentzat hezkuntza-helburu egokituak formulatzeko.

(4. Koadroa)

4. Koadroa: hpb dituzten ikasleen kasuan, curriculumaren iturriei buruzko informazioa.



Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua eta Curriculum Proiektua: osagaiak

Ikuspuntu teoriko batetik pentsa daiteke, curriculum-proiektua egin aurretik, ikastetxearen hezkuntza-proiektua definitu behar dela. Arrazoizkoa dirudi, hezkuntza-etapa bakoitzaren ikaskuntza-helburuak eta -edukiak zehaztu baino lehen, eskola-elkarteak ikastetxearen helburu nagusiak zeintzuk diren erabakitzea; ikastetxearen ezaugarriak aztertu beharko dira, baita inguruneak eta ikasleenak ere, ikasleentzat proposatuko den hezkuntzari buruzko zenbait erabaki komun hartzeko.

Hala ere, ikuspuntu praktiko batetik, curriculum-proiektua eta hezkuntza-proiektua lantzea, dinamikoagoa den zerbait da, egitura linealari jarraitzen ez diona; bi elementuak hertsiki erlazionatuta daude, ondorioz, elementuetako batean egiten diren aldaketek, beste elementuan aldaketak eragiten dituzte. Hezkuntza-praktikan ohikoa da, hezkuntza-proiektua egitea eta curriculum-proiektua egitea hertsiki lotuta egotea, eta proiektuetako bat lantzen den bitartean hartzen diren erabakiak, beste proiektuak bere gain hartuko ditu eta bertan integratuko dira. Hau da lantze-prozesuan gertatzen dena, eta neurri handiagoan gertatzen da praktikan jartzean, izan ere, hezkuntza prozesu dinamikoa eta progresiboa da, hertsiki itxita ez dagoena; aitzitik, elementu jakin batzuk aldatuz joatea beharrezkoa da, aldagai desberdinetara eta hezkuntza-egitean izaten diren aldaketetara egokitzeko.

Hezkuntza-proiektuaren funtzioa, irakasle-taldeari esparru orokor bat eskaintzea da, non zenbait berezko hezkuntza-printzipio definitzen diren, eta ikasleen, ikastetxearen eta kokatzen deneko gizarte-ingurunearen eta kultur ingurunearen ezaugarri jakinei irtenbidea ematen zaien. Hezkuntza-proiektuan zehazten dira bai hezkuntza-helburuak eta -xedeak, bai eskola-elkartearen estamentu desberdinen oinarritzko alderdiak ere.

Osagaiak honako hauek dira:

Ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren osagaiak

- Ikastetxearen gizarte-testuinguruaren eta kultur testuinguruaren azterketa
- Ikastetxearen azterketa
 - hurbileko ingurunearen azterketa
 - HBko ikastetxearen ikasleen ezaugarriak eta premiak
- Ikastetxearen identitatea
- Ikastetxearen hezkuntza-helburuak

- Lerro pedagogikoa
- Ikastetxearen elementuen egitura eta antolamendua
 - elementu pertsonalak eta antolamendua
 - elementu materialak eta antolamendua

Curriculum-proiektua ikastetxearen hezkuntza-proiektuan oinarritzen da, eta hezkuntza-eskaintza ikastetxeko ikasleen eta testuinguruaren ezaugarrietara zehazteko, egokitzeko eta moldatzeko funtzioa du. Zeregin hori ikastetxeko irakasle-taldeak bere gain hartu behar du, eta gogoeta bateratua egiteko, ideiak trukatzeko eta akordioak hartzeko aukera eskaintzen du, ..., horrela, jarduera akademikoa eta hezkuntza-mailakoa bideratuko duten erabakietan adostasuna eta partehartze aktiboa ziurtatzeko. Proiektua lantzean, irakasle-taldeak, zer, nola eta noiz irakatsi eta ebaluatu erabaki beharko du, eta erabaki horiek irakaskuntza-ikaskuntzako elementu desberdinetan eragina izango dute: helburuak, edukiak, ebaluazio-irizpideak eta -prozedurak, irizpide metodologikoak, prozesuaren ebaluazioa, eta beste zenbait.

Hezkuntza Bereziko ikastetxe baten curriculum-proiektua lantzeko prozesuan, minusbaliotasun larriak dituzten ikasleentzat garrantzi gutxien duten helburuak eta edukiak **kendu** egingo dira; ikasle hauen berariazko premiei erantzungo dieten beste zenbait alderdi osagarri edo alternatibo **aldatu** edo gehitu egingo dira; ikaslearen garapenerako garrantzitsuen diren edukiak **zabaldu**; edo bestela, curriculum ofizialean azaltzen ez diren beste zenbait helburu eta eduki **gehitu**, denboralizazio desberdina dutenak edo minusbaliotasun larriak dituen ikasleak behar duen arretarekin kontuan hartzen ez direnak.

Zer eta **nola** irakatsiko den, espazioa eta denbora antolatzeko modua, eskainiko diren laguntzak, ikasleek dituzten premia berezientzako metodologia alternatiboa edota berariazkoa, eta abar, ikastetxeko ikasleentzat curriculum-proiektu egokitua eta berariazkoa osatuko duten elementuak dira.

Curriculum-proiektua agiri eta material desberdinek osatzen dute, norabide pedagogiko berean antolatuta eta bideratuta daudenak, eta mailaka lantzen direnak. Curriculum-proiektuak honetarako balio du:

- Eskola-elkartearen aurrean, minusbaliotasun larriak eta iraunkorrak dituzten ikasleen asmoak eta helburuak azaltzeko, zehazteko eta adierazteko; zentzu honetan, curriculum-proiektua ikastetxearen hezkuntza-proiektuan oinarritzen da.

- Hezkuntza-premia larriak dituzten ikasleei eskaini behar zaien hezkuntza-erantzunari buruz gogoeta batera egiteko, erabili behar diren metodologia bereziak, ikasle hauen premietarako lehentasuna duten ikaskuntzak, ingurunean egin beharreko aldaketak, ..., erabakiz.
- Kudeaketa eta koordinazio pedagogikoari buruzko erabaki eraginkorrak hartzen laguntzeko: ikastetxean norabide pedagogiko jakin bat finkatzen du, irakasle-taldean zereginak banatzen laguntzen du, ikastetxeko sistema eta ikasleen baliabide berezien plangintzarako eta antolamendurako sistema berezia zehazten du, eta abar.
- Ikastetxeko irakasleei, familiei eta hezkuntza-administrazioari, hezkuntza-premia larriak eta iraunkorrak dituzten ikasleentzat proposatzen den irakaskuntza-ikaskuntza mota ezagutzera emateko.
- Ikastetxearen eta ikasleen ebaluazioan erreferente bezala erabiltzeko, izan ere, adierazleak eskaintzen ditu proposatzen denaren eta ikasleen premien arteko koherentzia-maila eratzeko, diseinua baloratzeko, ikastetxearen errealitatera hurbiltzeko eta hezkuntza-erantzunaren kalitaterako.

Hezkuntza Bereziko ikastetxe batean curriculum-proiektua lantzeko jarraitu behar den prozesua, osatzen duten osagaiak bezalaxe, edozein ikastetxeko curriculum-proiektuaren antzekoa da. Honako hauek dira:

Ikastetxearen curriculum-proiektuaren osagaiak

- | |
|---|
| <ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxearen helburu orokorrak • Hezkuntza-etapa bakoitzaren eta zikloen ezaugarriak • Garapen-esparruen edo -arloan helburuak • Hezkuntza-ziklo bakoitzean, edukien sekuentziak • Ebaluazio-irizpideak, hezkuntza-etapa igarotzeko irizpideak • Aukera metodologikoak • Espazioaren eta denboraren antolamendua • Ebaluaziorako, tutoreen jardunerako eta ikasleen jarraipena egiteko irizpideak |
|---|

IKASTETXEAREN CURRICULUM-PROIEKTUA LANTZEKO IRIZPIDEAK

Ikastetxearen curriculum-proiektuaren lantzea zenbait irizpidek zehazten dute, hezkuntza-helburuak eta ikaskuntzarako edukiak aukeratzeko orduan kontuan hartu behar direnak, ikasleak eskola-jardueran zehar azalduko dituen premiekin bat etortzeko. Curriculum-proiektua lantzean, gainera, irakasleek ikaslearen eskola-jardueran zehar, une bakoitzean irakatsi behar dutenari buruzko erabakiak hartzea ahalbidetzen da, planteamendu orokor bati erantzunez, plan orokor baten barruan.

Hezkuntza-premia larriak eta iraunkorrak dituzten ikasleen hezkuntzaren lehentasunak zeintzuk diren definitzea oso zeregin zaila da, aldagai desberdin ugari eta aukera desberdin ugari baitago; horregatik, irakasle-taldeak zenbait funtsezko irizpide kontuan hartu behar ditu, irakaskuntza-ikaskuntzan lehentasunezkoa denari eta ez denari buruz erabakiak hartzeko, eta ondorioz, curriculuma egokitzeko lana errazteko.

Irizpide edo printzipio hauek hezkuntza-helburuak formulatzeko eta aukeratzeko orduan eragina dute; horrez gain, irakaskuntza-metodologiaren aukerak, ebaluzio-metodoetan, antolamenduan, ikasleen multzokatzetan, eta abar, ere eragina dute. Irakasle-taldea, curriculum-proiektua lantzeko orduan, funtsezko irizpide batean oinarrituko da: ikasleen premia bereziak eta premia horien larritasuna, eta horren arabera, globaltasun handiagoa eskainiko duten beste zenbait irizpide azalduko ditu, besteak beste, testuinguru normalizatuetan modu askean funtzionatzeko beharrezkoak diren trebetasun-motak, ikasleen adin kronologikoa, ikasleen osasun- eta segurtasun-baldintzak, etorkizunean, aisialdian, lanean, eta abar murgiltzeko behar diren trebetasunak, eta abar.

Jarraian, minusbaliotasun larriak dituzten ikasleen irakaskuntzan eta ikaskuntzan ezinbestekoak diren zenbait irizpide deskribatuko ditugu, hezkuntza-helburuak aukeratzea eta irakas-praktikaren plangintza baldintzatzen dutenak. Nahiz eta guztiek izan eragina curriculum-proiektuaren elementu desberdinetan hartzen diren erabakietan, ondoren azaltzen dugun bezala multzoka daitezke:

1. Hezkuntza-mailako helburuak eta edukiak aukeratzeko irizpideak.

1.1. Adin kronologikoarentzat egokiak diren helburuak aukeratzea

Pertsonen adinak berarekin batera ezaugarri eta premia jakin batzuk ditu, beste ezaugarri-mota batzuetatik askeak direnak, hala nola, gaitasuna, gizarte-maila, eta abar. Haur-adinak berezko premiak ditu, nerabezaroan azaltzen direnetik

desberdinak edo helduarorako iragaite-etapan azaltzen diren desberdinak. Horrez gain, gizarteak balore eta exijentzia jakin batzuk azaltzen ditu, eta pertsonen adin kronologikoarekin espreski erlazionatutako zenbait itxaropen formulatzen ditu. Horrela, adibidez, gizarte-inguruneak tolerantziaz erantzuten dio jabetze batean modu txarrean jokatzeko duen ume bati, baina gauza bera onartezina bihurtzen da, adin gehiago duen ume baten kasuan, nerabe baten kasuan edo gazte baten kasuan.

Minusbaliotasunak dituzten pertsonen kasuan, azaltzen dituzten premia pertsonaletako asko adin kronologikoarekin erlazionatuta daude, minusbaliotasunik ez duen edozein pertsonarekin gertatzen den bezala. Horregatik da garrantzitsua aukeratzen diren helburuek eta jarduerak, adin kronologikoaren berezko premiak eta interesak azaltzea.

Curriculum lantzean, adinaren arabera erreferentziak hartu behar dira, minusbaliotasunik gabeko ikasleek aukeratutako lituzkeen jarduerak eta inguruneak aztertuz. Komenigarria izan daiteke, ikasleek dituzten interesen, premien, lehentasunen, ohituren eta kulturaren inbentario bat egitea, adinaren eta ibili ohi diren ingurunearen arabera. Informazio hori oso eraginkorra izango da irakaskuntzarako helburuak eta jarduerak aukeratzeko orduan, bereziki minusbaliotasunik ez duten pertsonekin elkarrekintza errazten dutenak.

Adin kronologikoa kontuan hartzeak, irakaskuntzan erabiltzen den materiala kontuz aukeratzea eskatzen du (mugimendu-mailako trebetasunak garatzeko, jolaserako materialak, komunikazioa edo ezagutza-alderdiak garatzeko, ...), ikasle bakoitzaren adinera egokitu behar dena. Adibide zehatz bat jarriz, ikasle txiki batek koloretako piezak erabil ditzake mugimendu-gaitasunak garatzea lortzeko; hala ere, ikasle nerabe baten kasuan ez litzateke komenigarria izango material hori erabiltzea; egokiagoa da objektu errealak erabiltzea, hala nola, kodeak, etengailuak, larakoak, eta abar, mugimendu-trebetasun berak garatzen dituztenak, ikaslearen adinarekin eta ingurunearen eskakizunekin bat datorren materialaren bidez.

1.2. Arazoaren izaera eta larritasuna kontuan hartzea

Aztertzen ari garen ikasle-multzoak dituen arazoek, eta arazo horien izaerak, ikaskuntza bereganatzeko zailtasun garrantzitsuak jartzen dituzte, ikaslearen garapenean zehar azaltzen direnak, haurtzaroran, nerabezaroran edo gaztaroran, baita helduaroran ere. Ikasleek euren bizitzan zehar egingo duten ikaskuntza baldintzatuta dago, ondoren adierazten den bezala:

- ikasteko gaitasun mugatua: beregana dezaketen trebetasun-kopurua txikiagoa da
- ikaskuntzan moteltasuna eta zailtasuna: denbora eta esperientzia-kopuru handiagoa behar dute
- ikasitakoa ez ahazteko zailtasuna
- ikasitakoa adierazteko eta orokortzeko zailtasunak: testuinguru desberdinetan ikasitako trebetasunak laburtzea, beste giro batzuetan modu praktikoan ezartzeko, zaila egiten zaie.

Ezaugarri hauek hezkuntza-programen planteamendua bideratu behar dute, lehenik eta behin, gaur egun eta etorkizunean ibiliko direneko inguruneetan modu autonomoan parte hartzeko trebetasunen irakaskuntza aukeratzuz.

1. 3. Ikaskuntza funtzionalei lehentasuna ematea

“*Funtzionaltasun*” kontzeptuak, norbaitek egin beharreko ekintzak adierazten ditu; minusbaliotasunak dituzten ikasleen kasuan, eurek ez badituzte ekintzak garatzen, beste norbaitek garatu beharko lituzke. Printzipio honek, besteak beste Lou Brown-ek⁽³⁾ garatu zuena, zeregin eta trebetasun funtzionalen erreperitorioen ikaskuntza planteatzen du, izan ere, pertsona batek bere kabuz zenbat eta gehiago egin, orduan eta aukera gehiago edukiko du komunitatean parte hartzeko eta bere bizi-kalitatea hobetzeko.

Printzipio honek zuzeneko eragina du hezkuntza-helburuak eta ikaskuntza-edukiak aukeratzeko orduan, non funtzionalenak direnek nagusi izan behar duten. Interesgarriagoak izango dira, bereziki adin jakin batzuetan, ingurunean funtzionaltasun-maila altua duten ikaskuntzak, nahiz eta, hezkuntza-testuinguruan, batzuetan, funtzionaltasun gutxiago duten ikaskuntzak planteatzen diren, baina beste hezkuntza-helburu batzuk jarraitzen dituztenak, hala nola portaerari dagokionez kontrol handiagoa lortzea edo bereganatutako ikaskuntzei eustea.

Curriculum-proiektuan pertsona batek bere egungo ingurunean, baita etorkizuneko giro desberdinetan ere, ahalik eta autonomia handienarekin moldatzeko behar dituen trebetasunak zehaztu beharko dira; izan ere, etorkizunean, trebetasun horiek izango dira garrantzitsuenak ikasle bakoitza aipatu giro desberdinetara egokitzeke.

⁽³⁾ LOU BROWN. 1989. *Criteria de funcionalidad*. Fundación Catalana Síndrome de Down. Barcelona

Hezkuntzaren azken helburuetako bat, ikasle bakoitzak giro desberdinetan ahalik eta partehartze handiena lortzea da; zentzu honetan, curriculum-proiektua, ikaslea ingurune desberdinetan ahalik eta modu eraginkorrean integratzea ahalbidetuko duten trebetasunak irakasteko diseinatuko da: etxea, komunitatea, eskola, aisia, eta abar, bai gaur egun, bai bere bizitzan zehar ere.

Curriculum funtzional batek, aldi berean, ikaslea, zuzenean eragiten dioten gertaeretan, eragina izateko gaitzeko joera du; horrela, hezkuntza-programek oinarrizko komunikaziorako trebetasunak eta burujabe izateko trebetasunak garatu behar ditu, ikaslea normalean ibili ohi den giro desberdinetan “*funtzionatzeko*” balio dutenak, bere bizitzako hurbileko gertaeretan eragina izateko aukera areagotzeko, eta giroa hobeto kontrolatzeko. Komunikazio eta autonomia pertsonalarekin erlazionatutako trebetasunak bereganatzea, egungo momentua kontuan hartuz aztertu behar da, baita etorkizunean, ikasleek pertsona bezala duten bilakaeran izan ditzaketen premiak kontuan hartuz ere. Horretarako, hezkuntza-ziklo edo -etapa desberdinetan garatu beharreko helburuak sekuentziatu behar dira, esparru desberdinetan ikaskuntza-helburu bezala azalduko direnak. Zentzu honetan, komunikazio- eta gizarte-trebetasunak izaten dira ikasteko beharrezkoenak, izan ere, atzerapen garrantzitsua duten ikasleek, portaera-mailako arazoak izaten dituzte, hala nola, haserrealdiak, ezkortasuna, eta abar; arazo horien jatorria komunikaziorako gaitasunik ezan aurki dezakegu, normalean arazo larriek beraiekin izaten dituztenak.

1.4. Ikaskuntzaren zentzu instrumentala

Ikaskuntza instrumentalaren ideia, lehen azaldu dugun ikaskuntzaren funtzionaltasun printzipioarekin zuzenean erlazionatzen da, baita ikaskuntzaren ekologiaren zentzuarekin ere: beharrezkoa da ikaskuntzak bereganatzea, ingurunean funtzionatzeko, integrazioa lortzeko eta ingurunean jarrera egokia lortzeko lanabes erabilgarriak izango direnak. Ikaskuntzak *lanabestzat* jotzen dira, ingurune fisikoan eta gizarte-ingurunean moldatzeko balio dutenak, inguruneko mezuak ulertzeko, ..., azken finean, ahalik eta burujabetasun handienarekin ekintzak garatu ahal izateko.

Ikaskuntza instrumentala kontzeptua, bere osotasunean hartuta, hezkuntza-etapetan proposatutako zenbait helburutan ere islatzen da. Zehazkiago, Lehen Hezkuntzak irakurmen- eta idazmen-teknikak ingurunearekin komunikazioa izatea ahalbidetzen duten lanabes bezala planteatzen ditu, eta hezkuntza-etapa honi nortasuna ematen diotela esan daiteke. Helburu hau kasu honetan ere lor daiteke. Defizit

garrantzitsuak daudenean, curriculumak ikaskuntza instrumentalak eduki behar ditu, nahiz eta edukiak eta erabilitako metodoak neurri handi batean desberdinak izan. Minusbaliotasun garrantzitsuak dituzten pertsona gehienek, lanabes desberdinen bidez komunikaziorako trebetasunak beregana ditzakete: testu idatziak erabili beharrez, ikus-zeinuak, irudiak, sinboloak edo beste komunikazio-sistema alternatibo edo argigarriak erabili behar dira, minusbaliotasun garrantzitsuak dituzten pertsonentzat eta beraiekin erlazionatzen diren pertsonentzat oso erabilgarriak izango direnak.

1.5. Trebetasun alternatiboen irakaskuntza

Trebetasun alternatiboen irakaskuntza, ikaslearentzat lehentasunezkoak diren zenbait ikaskuntza bereganatzeko muga larriak daudenean planteatzen da; orduan irakatsi behar dira trebetasun alternatiboak, helburu berak lortzera zuzentzen direnak. Premia larriak dituzten ikasleen hezkuntza, curriculumak edo programazioa, ezin izan daiteke programazio estandarizatuen kopia hutsa, non ikasle ororentzat ikaskuntza-sekuentzia berdinak planteatzen diren.

Ezagutza-minusbaliotasun garrantzitsuak dituzten ikasleen eskola-programetan, ikaskuntza-estrategiak aukeratu behar dira, zeintzuk egunero gertatzen diren egoera desberdinei irtenbidea emango dioten, ikasleek erraz bereganatzeko moduan. Garrantzitsuena subjektua jardura garatzeko gai izatea da eta autonomiaz egitea; bigarren-mailan egongo da perfekzioa edo ekintza edo zeregin jakin hori nola garatzen duen. Trebetasun alternatiboen irakaskuntza dugu minusbaliotasunak dituzten pertsonen hezkuntzako helburuetako bat, beraz, curriculumak zenbait oinarritzko ikaskuntza beste eduki alternatibo batzuegatik aldatu direla islatu behar du, ikasle hauek beregana ditzaketenak eta ikasleen autonomia bultzatzen dutenak.

Jarraian, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntza-programetan, trebetasun alternatiboen zenbait adibide azaltzen dira, ohiko ikaskuntza-dukien ordeaz azaltzen direnak:

Proposatutako trebetasuna	Tebetasun alternatiboa	Jardueren adibidea
<p>1. Irakurmena eta idazmena</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Testuinguru funtzionaletan zeinuak, errotuluak eta piktogramak ezagutzea. • Produktuak eta ontziak ezagutzea. • Inguruneko informazioa ezagutzea, piktogramen, zeinuen eta etiketen bidez. • Piktogramak dituzten jarraibideak ulertzea eta interpretatzea. • Produktuen zerrenda batekin erosketak egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Adierazle desberdinak ezagutzea eta erabiltzea: jangelarako, sarrerarako, irteerarako, bainugelarako, autobusaren geltokirako ...</i> • <i>Ontziak eta produktuak baztertzea: jatekoak direnak eta jatekoak ez direnak.</i> • <i>Gelako eta etxeko ontzi desberdinak baztertzea: kaxak, botilak, poteak, fardelak ...</i> • <i>Ikastetxeko sarrera eta irteera aurkitzea, jangela, supermerkatua ...</i> • <i>Bainugela aurkitzea, eta gizonena eta emakumeena bereiztea.</i> • <i>Autobusaren geltokia, trena, metroa, telefono publikoa ... aurkitzea.</i> • <i>Musika-kasetaren teklak ezagutzea, martxan jartzeko erabiltzea, bideo-zinta gustukoena ezagutzea, piztinara joateko zereginen sekuentziak "irakurtzea", jatzeko edo arropa kentzeko ..., liburuskak "irakurtzea" edo interpretatzea, sukalderako errezetak, telefonoa erabiltzea, ...</i> • <i>Ohiko produktuen etiketak ezagutzea. Erosketa egiteko ontzien etiketak erabiltzea. Etiketa ezagutuz aukeratzea. Produktuen etiketak dituen erosketak egiteko liburua erabiltzea.</i>

/...../

Proposatutako trebetasuna	Trebetasun alternatiboa	Jardueren adibidea
2. Matematika. Dirua zenbatzea eta erabiltzea.	<ul style="list-style-type: none">• Beharrezko diru-kopurua erabiltzea. • Txartelak erabiltzea. • Kalkulagailua erabiliz zenbait produktu erostea.	<ul style="list-style-type: none">• <i>Produktu jakin bat erosteko diru-kopuru nahikoa duten txanpon-paketeak bereiztea. Pakete bakoitza, erostea dagokion produktaren irudiaren bidez adieraziko da.</i>• <i>Ordainketa jakin baterako "behar" diren txanponak eta bileteak ezagutzea. Adib.: 100 PTA ogia erosteko, 25 PTA txikle bat erosteko, ...</i>• <i>Beharrezkoak diren produktuen txartelak, denda edo erosteko lekua adierazten duten txartelak egitea eta erabiltzea.</i>• <i>Freskagarriak, elikagaiak, bonobusak, eta abar, erosteko txartelak erabiltzea, ...</i>• <i>Kalkulagailuan, kenketa erabiltzen irakastea, produktu desberdinak erosteko.</i>
3. Komunikazioa. Oinarrizko premiak komunikatzea, eskaerak egitea: pertsonalak, produktuak, zerbitzuak, ... informazioa ematea, eta abar.	<ul style="list-style-type: none">• Komunikaziorako koadernoak edo agenda erabiltzea. • Oinarrizko eskaerak egitea. • Hitzak dituzten orriak. • Beste zenbaitekin jarduerak batera egitea.	<ul style="list-style-type: none">• <i>Ikasleak egin beharreko eskaerak adierazten dituzten irudiak dituzten orriak edo kartulinak, hala nola jan nahi duen menua, egin nahi duen jarduera, joan nahi duen lekua, ...</i>• <i>Erabilera arrunteko hitzekin orriak, taulak edo kartulina plastifikatuak, bai-ez, izena, ikastetxeko gelak, aisialdirako lekuak: zinema, kafetegiak, eta abar.</i>• <i>Gaitasun handiagoa duten zenbait lagunen laguntza, euren premiak piktogramen bidez interpreta ditzaketenak, ikastetxeko leku desberdinak ezagutzeko ulerterrazak diren sinbolo grafikoaren bidez identifikatzeko, eta abar.</i>

Irizpide hauek kontuan hartuta, hezkuntza-programek ikaskuntza jakin batzuei lehentasuna eman behar diete eta ondorengo koadroan laburbiltzen diren zenbait ezaugarri bete:

5. Koadroa: Helburuak eta edukiak aukeratzeko orduan lehentasunak

- *Normalean ibili ohi diren inguruneetan autonomiaz parte hartzeko beharrezkoak diren trebetasunak irakastea.*
- *Oinarritzotzat jotzen diren trebetasunak ikasteko denbora gehitzea.*
- *Erabiliak izateko aukera handien duten trebetasunak eta maiztasun gehiagorekin erabiltzen diren trebetasunak ikasteko aukeratzea.*
- *Zailak ez diren trebetasunak irakastea.*
- *“Azaleko ikaskuntzak” irakastea, garapen-zona potentzialaren barruan daudenak edo bereganatzeko zorian daudenak. Trebetasun zailak irakasteak denbora eta ahalegin izugarria eskatzen ditu, curriculum desorekatu dezakeena, ikaslearentzat errazagoak eta ohikoagoak diren beste zenbait trebetasun ahaztuz.*
- *Ikasleak ahalik eta giro ez murriztaileenetan parte hartzeko -eskolan, familiarrean eta komunitatean-, beharrezkoak diren trebetasunak aukeratzea: parkea, kafetegia, zinea, merkatua, garraiobideak aisia, lanean hasi aurretiko giroa, eta abar.*
- *Oinarritzko trebetasunak irakastea, irakaskuntza bukatzean ez ahazteko moduan.*
- *Euren bizitzako jardueretako trebetasunak irakastea, eskola-girotik at, ikasleen gaur egungo bizitzan eta etorkizuneko premietan eragina dutenak.*
- *Une honetan behar diren trebetasunak kontuan hartzea, baita etorkizuneko premiak ere.*

2. Irizpide metodologikoak

2.1. Ikaskuntzaren eredu ekologikoa

Minusbaliotasunak dituzten pertsonen hezkuntzaren helburuetako bat, ezagupenak garatzea da, baina aldi berean, ezagupen horiek ibili ohi diren ingurunean aplikatzea ere bai, ondorioz, aukeratzen den hezkuntza-ereduak, hezkuntza-ekintza garatzen deneko testuinguru kontuan hartu behar du. Zentzu honetan, ikaskuntzaren ikuspegi ekologikoak irakaskuntzara ekarpen garrantzitsuak egiten ditu, izan ere, eskola-esparrua ekosistema bat bezala hartzen du, ingurune desberdinak dituen ekosistema, non garapena eragiten duten egoera desberdinak gertatzen diren. Testuinguruaren garrantzia egile desberdinek azpimarratu dute, hala

nola, Kemmis, Mc. Taggart, Doyle, eta abarrek. U. Bronfenbrenner-ek⁽⁴⁾, besteak beste, honako hau planteatzen du: “... hezkuntza oro ingurune batean gertatzen da, ingurunea irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren testuingurua da; hezkuntzarako aukera eta gaitasun desberdinak sortzen ditu eta hezkuntzari zenbait muga jartzen dizkio”.

Ikuspuntu honetatik, hezkuntza-prozesua eskola-elkarteak osatzen duen ingurune berean eta bertan izaten diren elkarrekintzetan osatzen da. Ikastetxea eta bertan gertatzen dena, gela barruko bizimodua, elikatzeko guneak, osasuna, jolasgaraia, aisia, ..., elkarbizitzarako guneak dira, non elementu, material eta gizaki desberdinak erlazionatzen diren, esperientziak, garapena eta ikaskuntza eraginez.

Trebetasun funtzionalak, euren berezko testuinguruan hobeto irakasten eta ikasten dira; hori oraindik argiago ikusten da ikasteko zailtasun handiak dituzten pertsonen kasuan. Gogoratu behar dugu, garapenean atzerapen larriak eta sakonak dituzten ikasleen irakaskuntza eta ikaskuntzako ezaugarrietako bat, ikasitakoa orokortzeko eta beste egoera batean erabiltzeko duten zailtasuna dela.

Horrek guztiak, ikaskuntza-ibilbideak giro edo testuinguru errealetan garatzea eragiten du, non bertan ondo moldatzeko oinarrizko trebetasunak irakasten diren; horrela, egoera batean ikasitako gaitasunak eta trebetasunak, antzeko beste egoera batzuetan ezartzen laguntzen zaie. Irakasle-taldearentzat, gainera, betidanik zaila izan den arazo bati konponbidea ematen dio, hala nola arlo edo esparru desberdinetako edukiak erlazionatzea, ikaslearentzat, eskolarentzat eta familiarentzat oso esanguratsuak diren jardueretan eta inguruneetan bilduz.

Ikaskuntzaren eredu ekologikoa lantzen duen edozein curriculumek bete beharreko zenbait baldintza honako hauek dira:

- Ikasleak, gaur egun ibili ohi direneko eta etorkizunean ibiliko direneko zenbait testuinguru edo ingurune desberdin azaldu beharko ditu: eskola, etxea, aisia, komunitatea, eta abar.
- Testuinguru bakoitzak osatzen dituen giroak aztertuko dira. Adib.: etxeko esparruan, zenbait azpi-esparru aurkitzen ditugu, hala nola, sukaldea, bainugela, logela, eta abar.

⁽⁴⁾ BRONFENBRENNER, U. 1987: *La ecología del desarrollo humano*. Paidós. Barcelona

- Azpi-esparru bakoitzean garatzen diren jarduerak zehaztu behar dira, baita jarduera horiek garatzeko behar diren gaitasunak eta trebetasunak ere. Adib.: sukaldean jarduera desberdinak egiten dira, zuritzea, nahastea, irabiatzea, etengailuak piztea, eta abar, eta zeregin hauetako bakoitza egiteko, mugimen-trebetasun, komunikazio-trebetasun, eta abar jakin batzuk behar dira.

Eredu honen hedapen praktiko bat ondorengo adibidean azaltzen da:

Ingurunea: Sukaldea	Jarduerak	Gaitasunak edo trebetasunak
<p>Azpi-inguruneak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sukaldea (elikagaiak prestatzea) • Garbiketa-zona (harraska, ...) • Sukaldeko lanabesen zona, ... • Jangelaren zona • Konketa eta bainugela • Beste zenbait 	<ul style="list-style-type: none"> • Ogitarteko bat prestatzea • Elikagaiak garbitzea • Ogia, patatak, ..., ebakitzea • Fruta eta barazkiak zuritzea • Esnea, arrautzak, ..., iraulitzea • Elikagaiak nahastea • Beste zenbait 	<ul style="list-style-type: none"> • Elikagai egokia aukeratzea: ogia, urdai-azpikoa, gurina, ... • Laban egokitua erabiltzea. • Ogia erditik ebakitzea • Gurina ogian jartzea • Hestebeteak aukeratzea • Ogitartean jartzea • Beste zenbait

2.2. Komunikazio- eta gizarte-trebetasunen irakaskuntza

Minusbaliotasun larriak dituzten ikasleek topatzen duten beste zailtasun bat, gizarte-ulermena nahikoa garatzea eta komunikazio-jokabideak garatzea da, komunikazioa zentzu zabalean hartuta. Arrazoi desberdinak daude, ahozko jokaera terminalak huts egitea gerta daiteke, edo aitzitik, akatsa osagaietako baten aurretiko komunikazio-prozesuan gerta daiteke. Maiz gertatzen dira bi gauzak batera: ahozko hizkuntzan nahasteak gertatzen dira, eta aldi berean, ahozko komunikazioaren aurretiko prozesuan asaldurak edo defizitak gertatzen dira; beste batzuekin komunikazioa izateagatik eta gizarte-ingurunearekin erlazionatzeagatik interesik eta arretarik ezarengatik gertatzen da egoera hori.

Kasu hauetan, sistema alternatiboen edo argigarrien irakaskuntza planteatu behar da, pertsona hauei oinarrizko komunikazio- eta ulermen-estrategiak eskaintzeko. Komunikazio-asmoa izan eta komunikatzea ahalbidetzen dieten zenbait aurretiko jarraibide egoki garatu dituzten ikasleek, hala ere, ahozko kodeen bidez komunikazioa lortzeko zailtasunak dituzte eta beste kode batzuk bereganatu behar dituzte. Ikasle hauentzako zeinuen sistemak eta irudikapen-sistemak edo sistema

piktografikoak egokiak izan daitezke, irudikapen-mota desberdinetan oinarritzen direnak, hala nola marrazkiak, objektuak, argazkiak, sinboloak, inprimatutako hitzak, eta abar. Besteak beste BLISS, MAKATON eta SPC sistemak aurkitzen ditugu.

Kaltetuen dagoen ikasleak, komunikazio-arretarik ez duena, adierazpen-hizkuntza ulermen-hizkuntza baino lehen irakastea behar du, Benson Schaeffer-en⁽⁵⁾ Guztizko Komunikaziorako metodoak adierazten duen bezala, eta laguntza teknikoak eskaintzea behar du, hala nola, teklatuak, seinale argidunak eta entzumen-seinaleak, konmutadoreak, mezuak adierazteko eta aukeratzeko taulak, eta abar, komunikaziorako duen gaitasuna areagotzeko.

Metodo alternatibo edo argigarri bat aukeratzeko orduan, komunikazio-gaitasunak baloratzea beharrezkoa da, kode eraginkorra zein izango den erabaki baino lehen; horretarako kontuan hartu beharko dugu: metodo alternatibo edo argigarri bakoitzaren berezitasunak, bereganatzeko zailtasuna, erabiltzeko baldintzak, ..., izan ere, jakina da zeinuen sistemak garapen-maila baxuagoarekin beregana daitezkeela, eta irudikapen-sistemek edo sistema sinbolikoek, berriz, gaitasun-maila handiagoa eskatzen dute. Kasu guztietan, eta aukeratzen den komunikazio-metodoa alde batera utzita, gizarte-ingurunea ulertzeko *ikus-laguntzak erabiltzea* beharrezkoa izango da ikasle hauen irakaskuntzan.

Ikus-laguntzak: argazkiak, sinboloak, grafikoak, piktogramak, eta abar; ahozko hizkuntzak ez bezala, ikasleari abantailak eskaintzen dizkie, izan ere:

- gertaerei buruzko informazio egonkorra ematen dute
- objektuei, pertsoneri eta ekintzei buruzko informazio zehatza ematen dute
- objektu errealak bezalakoak dira eta beraiekin erlazioa daitezke
- jadanik gertatu diren jardueri eta gertaerei buruzko informazioa ematen dute
- ikus-laguntzen erabilerak egungo eta etorkizuneko gertaerei buruzko aurreikuspenak egitea eta espazioan eta denboran kokatzea errazten du.

2.3. Jokabide disruptiboak eta desafiatzaileak

Hezitzaileek, irakasleek eta familiarek azaltzen duten kezka nagusienetako bat, minusbaliotasun psikiko garrantzitsuak dituzten zenbait ikaslek azaltzen dituzten portaera desegokiak gutxitzea da. Komunikazio-trebetasun nahikoa ez dutenez,

⁽⁵⁾ SCHAEFFER, B. 1993: *La mejora de la enseñanza del lenguaje en niños autistas*. VII. Autismoaren Nazio Biltzarreko Aktetan. Salamanca. Amarú

portaera dugu euren premiak, nahiak adierazteko, edo beraiantzako kontrakoak diren egoerak saihesteko modu bat. Hau da, jokabide disruptiboek, desegokiek edo desafiatzaileek, beraiantzako eta besteekiko erlazioetan arazoak sortzen dituztenak (ingurunean integratzeko aukerak zailagoak egiten baitituzte), askotan komunikazio-funtzioa betetzen dute.

Gaur egun, testuinguruaren aldagaiak garrantzi handia hartzen du portaera-mailako arazoak ulertzeko eta aztertzeke orduan, izan ere, ingurunearen baldintzen eta azaltzen diren jokabide disruptiboen artean elkarrekintza dago. Minusbaliotasun larriak dituzten pertsonak testuinguruaren baldintzen aurrean ahulagoak dira eta menpekotasun handiagoa azaltzen dute; aitzitik, ingurunea egoki antolatuz eta aipatu ahultasun-mailara egokituz, jokabide-adierazpen desegokiak urrun daitzeke eta egokitzapen-maila pertsonala handiagoa eskain daiteke. Ikasle hauek berezko ingurunean hobeto ikasten dutela eta egoera batean ikasten duena beste egoera batean ezartzeko zailtasunak dituztela kontuan hartuz, lehentasunezko printzipio metodologiko bat, jokabide-mailako arazoak aztertzea izango da, gertatzen diren lekuan eta unean, eta ikaslea ibili ohi deneko testuinguru desberdin batean arazoa aztertzea saihestuz. Ondorioz, ikastetxearen curriculumak berak ezarri behar ditu arazo horiek kontrolatzeko eta aztertzeke metodo egokiak.

Jokabide-mailako arazoak hezkuntza-testuinguruan aztertzeke teknika oso erabilgarria da *“jokabideen hipotesi funtzionala”*. Teknika honen bidez, ikaslearentzat zailtasun gehien azaltzen dituzten testuinguruko baldintza eta egoera desberdinak aztertzea ahalbidetzen da; beraz, testuinguruko zein alderdi aldatu behar den baloratzen da, baita indartu beharreko gaitasun pertsonalak ere. Laburbilduz, eskuhartzea ondoren adierazten diren faseen arabera egituratzen da:

- Jokabide-mailako nahastea ebaluatzea.
- Ingurunea aldatzea, eskatzen zaionari buruzko informazio nahikoa eskaintzeke, hala nola, eskatzen zaionari buruz, une eta leku bakoitzean egin behar duenari buruz, eta abar.
- Pertsonaren gaitasunak aldatzea, izan ere minusbaliotasun psikiko garrantzitsuak dituen pertsonak ez du gaitasun nahikoa gauzak adierazteke, eta ondorioz beste zenbait portaera desegoki azaltzen dira.
- Programazio Positiboa terminoa erabiltzea; bertan irakasten diren gaitasunek, portaera moldagabearen funtzio bera betetzen dute eta ondorio berak lortzea ahalbidetzen dute.

- Komunikazio-trebetasunak irakastea, ingurunea ulertzeko, oinarritzko emozioak komunikatzeko eta jokabide-mailako moldatu ezinak saihesteko.

3. Antolamendu-mailako irizpideak

3.1. Gelaren eta ikastetxearen hezkuntza-ingurunearen antolamendua

Bizi gareneko inguruneak informazio anitza eta desberdina eskaintzen du, garapen normala duten pertsonak interpretatu eta erabiltzen dutena. Baina garapen-prozesuan asaldura garrantzitsuak dituzten pertsonen kasuan ez da gauza bera gertatzen; kasu hauetan, ikasleek ez dute ingurunea ulertzeko eta berarekin komunikatzeko behar diren estrategiarik; egunean zehar izango diren jarduerak eta gertaerak ezagutzeko zailtasunak dituzte; ez dakite beraiengandik zer espero den, eta ondorioz, portaera-mailako arazo ugari sortzen da. Kasu hauetan, ikasleak ibili ohi direneko ingurunea oso modu egituratuan antolatzea beharrezkoa da, egunero izaten diren ekintzak eta gertaerak *aurreikusteko gaitasuna* bereganatzeko helburuarekin.

Ingurunea modu egokian antolatzeak, ingurunea ulertzen laguntzen digu, baita ingurunean ohizkoak diren gertaerak aurreikusten eta aurreratzen ere, ingurunean bertan eragin ahal izateko eta modu egokian moldatu ahal izateko. Gizarte-ingurunea, espazioa eta denbora antolatuz, kode estimularrien bidez, ikus-mailakoak, entzumen-mailakoak, ukimen-mailakoak, eta abar, ikasleak dituen mugak desagertaraziko dira -kasu honetan komunikazio-mailako mugak direnak, ikasleari ingurunearen gainean gutxieneko kontrola edukitzea eragozten diotenak-, eta aldi berean, bai eskola-ingurunean bai familian, komunitatean, eta abar, moldatzeko trebetasun erabilgarriak bereganatzea lortu nahi da.

Ingurunea egituratzeak, ikasleak ibili ohi direneko inguruneko elementu guztiak egituratzea esan nahi du, hots, ibili ohi direneko inguruneko estimuluak, materialak, objektuak eta pertsonak egituratzea, ikasleen hezkuntza-prozesuan parte hartzen dutenak.

Ikaskuntza-ingurunearen diseinuan, nagusiki bi aldagai hartzen dira kontuan: espazioa eta denbora. Bi dimentsio hauek, elkarren artean erlazionatzen direnak, oso diseinu argia eduki behar dute, hezkuntza-espazioak, -giroak eta -inguruneak antolatuz: gelak, bulegoak, bainugelak, jangelak, ikastetxearen aretoak, eta abar, seinaleztapenak eta kodeak erabiliz, espazio fisikoari eta bertan normalean gertatzen

denari buruzko informazioa lortzea ahalbidetuz. Ikasleak, egin behar duenari buruzko informazio nahikoa eta aldez aurretik, berehala edo epe ertainera gertatu behar denari buruzko informazioa, non gertatuko den eta zer espero denari buruzko informazioa jasotzea da helburua, ikasleak bere hurbileko inguruneari buruz aurreikuspenak eta antolamendua egiteko aukerak indartzeko. Ingurunea bi dimentsioetan antolatzea eta egituratzea gomendatzen da.

• ***Espazioaren antolamendua.***

Kodeen bidez egiten da, ikasleari inguruneko gertaerak hobeto ulertzea eta ingurunearen gainean kontrola izatea ahalbidetuko dutenak. Espazioaren antolamendurako honako lanabes hauek erabil daitezke:

- Piktogramak eta seinaleztapen-kodeak, espazio, gela, bulego, bainugela, jangela, bideo-areto, lantegi, sukalde, eta abar bakoitzerako.
- Sinboloak edo hormirudiak bulego bakoitzerako, baita bulego bakoitzean dauden pertsonen argazkiak ere.
- Marra koloredunak edo zintak, bulego desberdinetara iristeko bideak adierazten dituztenak.
- Bulego edo zona bakoitzeko berezko lanabes edo materialen argazkiak edo marrazkiak, egin beharreko zereginarekin erlazionatuz.

• ***Denboraren antolamendua***

Denboraren antolamendua egiteko, eguneko ekintza nagusiekin sekuentziak erabiltzea erabilgarria da, zeintzuk ikus- edo entzumen-mailako sinboloen edo kodeen bidez, egin beharreko ekintza bakoitza adieraziko duten, aurrekoa, ondorengoa, eta abar. Egin ahala estaltzen diren ekintzen argazkiak erabil daitezke; zereginen agendak edo liburuak erabiltzea, zeregina osatzen duten sekuentzia bakoitzaren argazkiekin, adibidez, edalontzi bat cola-cao prestatzeko zeregina, eta abar. Entzumen-seinaleak ere erabil daitezke, hala nola txirrinak edo musika, zeregin jakin bat noiz bukatzen den, eta abar, adieraziko dutenak.

3. 2. Ikasleak multzokatzea

Minusbaliotasun larriak dituzten ikasleei eskaini behar zaien arretak, antolamendua behar du, ikaslearen adin kronologikoarekin, ikasteko duen modu bereziarekin eta gizabanako bakoitzaren berezko banakako premiekin erlazionatutako premia orokorreari erantzutea ahalbidetuko duena. Premia desberdinei erantzungo dieten antolamendua egin behar da, hala nola, beste batzuekin erlazionatzeko eta taldearekin batera ikasteko premiari, baina baita arreta eskaintzeko denbora

indibidualizatuagoa behar duten premiei ere. Ikasleak multzokatzea, irakasleak antolatzea, espazioak antolatzea, eta abar, arreta desberdinak eskaini behar direla kontuan hartuz egin behar da, hala nola:

1. Taldeari eskaini behar zaion arreta

Minusbaliotasun larriak dituzten ikasleen ezaugarriak kontuan hartuz, lanerako talde txikiak osatzea gomendagarria da. Ikasle hauek multzokatzeak ez du multzokatze zorrotza izan behar; aitzitik, taldeko ikasleak aldatuz joatea gomendagarria izan daiteke, ikaskuntza-zereginen, ikaskuntza-jarduerak edo zereginak egiten direneko testuinguruen, eta abar arabera. Ikasleak multzokatzeko orduan, ondoren adierazten diren irizpideak kontuan hartuko dira:

- ikasleen adin kronologikoa
- egin beharreko zereginak
- ikaskuntzak egiten direneko esparrua
- ikastetxeko espazio jakin batzuetan, jarduera bera garatzen talde bat baino gehiago egoteko aukera, eta abar.

2. Banakako arreta

Ikasleen zenbait premia, banaka erantzun behar dira, ikasleak bere banakako programan dituen helburuei erantzun ahal izateko, ondorioz, beharrezkoa da, programazioaren barruan, banakako programan azaltzen diren alderdi zehatzak irakasteko denbora izatea. Arreta honek, espazioen, irakasleen, ikasleen, eta materialen antolamendua zehazten ditu.

4. Ebaluazio-irizpideak

Curriculum-proiektua lantzean, eta minusbaliotasun larriak dituzten pertsonen bizitzarako beharrezkotzat jotzen diren helburuak, edukiak eta gaitasunak aukeratzean eta egokitzean, irakasle-taldeak, curriculum-proiektuan zehaztea komeni den ebaluazioari buruzko gogoeta-prozesua egin behar du. Ebaluazioak, hezkuntza-ekintzaren prozesuei eta emaitzei buruzko informazioa emateko funtzioa betetzen du; ikaskuntza-prozesuak ikasleen ezaugarrietarako eta premietarako egokia den egiaztatze helburua du, eta horren arabera, hobetzeko neurriak hartu; hezkuntza-helburuak bete ote diren zehazten du; eta abar. Horrez gain, irakasle-taldearentzat baliabide bat da, elkarren artean zorrozki eta sistematikoki

ebaluazioari buruzko gogoeta egiteko eta berezko hezkuntza-ekintza aztertze eta ikertze balio duena.

Ebaluazioa prozesu jarraia da, ikaskuntza-prozesuarekin paraleloki gertatzen dena; ebaluazio-prozesuan hiru une nagusi bereizten dira. Lehenengoa, **hasierako ebaluazioa** da, ikasleen premiak eta abiapuntu bezala hartu beharreko baldintzak ezagutzeko, euren ingurunean autonomiaz jokatzeko ikasi behar dutena eta ikaskuntza erraztuko duten laguntzak eta elementuak ezagutzeko. Beste une bat, **ebaluazio jarraia** da, prozesuan zehar egiten dena, gertatzen ari dena ezagutzeko eta hezkuntza-programa premietara egokitzeko behar diren aldaketak gehituz. Azkenik, **amaierako ebaluazioa** dago, helburuak lortu ote diren eta zein neurritan lortu diren zehazten duena.

Curriculum-proiektua lantzeko orduan lortu nahi den helburuetako bat, ebaluazio-irizpideak irakasle-taldeak aho batez onartutakoak izatea da, eta ahalik eta modu argienean formulatzea; irizpideak zehaztean, familiei informazio egokia ematea ahalbidetzen da, baita ebaluazioari zentzua ematea ere, lortu nahi diren helburuak, prozesua eta emaitzak argituz.

Ebaluazioak, aldi berean, ikasle hauen ikaskuntzan oinarritzotzat jotzen diren eta aurretik aipatu ditugun printzipio berdinak ditu, beraz, ebaluatze orduan kontuan hartu beharreko **irizpideak** honako hauek izango dira:

- adin kronologikora egokitutako ikaskuntzak ebaluatzea
- ikaskuntza funtzionalak eta erabilgarriak ebaluatzea
- pertsonarentzat berarentzat eta ingurukoentzat garrantzitsuak diren ikaskuntzak ebaluatzea
- gaitasun orokorren ikaskuntzak ebaluatzea
- ikaskuntza desiragarriak eta positiboak ebaluatzea

Ebaluaziorako lanabesak, hala nola galdeketak, inbentarioak, eskalak, eta abar, ikasleen adin kronologikoarekin bat etorri aukeratu behar dira, eta hezkuntza-etapa edo -ziklo bakoitzean egokienak erabiltzea gomendatuz, adibidez:

- Lehenengo zikloetan garapen-arlo handiak ebaluatzen dituzten eskalak erabil daitezke; garapen-arlo hauek komunikazioa, lagunartekotasuna, autonomia, mugimen-garapena, ezagutza-garapena, eta abar dira, zeintzuk Haur eta Lehen Etapen Curriculum Diseinuetako esparru eta arloetan ere azaltzen diren. Honako garapen-eskala hauek dira egokiak: HAIZEA-LLEVANT Eskala, PAC, PEP (Psiko-hezkuntzazko profila), BDI (Battelle Garapenaren Inbentarioa), Portage gida, Carolina

Curriculumak, direlakoak eta abar, curriculum-egokitzapenez gain, ebaluazioan derrigorrezko elementuak direnak.

- Ikasle nerabe eta helduen kasuan, ebaluaziorako erabiltzen diren lanabesek, funtsean, honako alderdi hauek eduki behar dituzte kontuan: ingurune desberdinetan moldaera burujabeak, oinarrizko arazoei irtenbidea ematea eta testuinguru desberdinetan sartzea, hala nola, lana, aisia, eskolako bizitza, etxeko bizitza, komunitateko bizitza, eta abar, eta ebaluaziorako xede izango dira ingurune horietan funtzionatzeko beharrezkoak diren gaitasunak. Normalean erabiltzen diren lanabesak honako eskala hauek dira: EVELCAD, APEP, ICAP, PCA (Jokabidezko Programa alternatiboak: Gizarte Gaitasunen Programa), direlakoak, eta abar.

Hezkuntza-zereginean, behaketa-eskalak egitea oso erraza da, ikasle bakoitzak zeregin eta gaitasun jakin batzuetan azaltzen duen berariazko maila ebaluatzea ahalbidetuko dutenak, teknika desberdinen bidez, hala nola: produkzioak aztertzea, zeregin jakin batzuetan behaketa sistematikoa, eta abar. ***Desberdintasunen azterketaren teknika*** oso erabilgarria da, ez bakarrik ikaskuntzak ebaluatzeko, baita irakasteko eta ikasteko erabilgarriena dena aukeratzeko eta antolatzeke ere. Teknika hori ikaslea ibili ohi deneko inguruneen inbentarioak eginez aplikatzen da, hala nola, lanean, aisian, egin beharreko joan-etorriak, eta abar, baita ingurunean funtzionatzeko beharrezkoak diren jardueretan pertsonak dituen gaitasunak zeintzuk diren ebaluatzea ahalbidetuko duten eskalak eginez ere. Jarduera jakin bat garatzeko behar den gaitasunaren eta ikasleak berez duen trebetasunaren arteko desberdintasuna ebaluatzen da; hezkuntza-zereginerako proposamena ebaluatutako desberdintasunaren arabera egiten da. Praktiko izateko eta hezkuntza-ingurunean gaitasunak eta trebetasunak ebaluatzea ahalbidetuko diguten lanabesak lortzeko, ondoren adierazten diren urratsak eman daitezke:

- Gaur egun eta etorkizunean, pertsona batek moldatu beharko dueneko inguruneen zerrenda finkatu.
- Ingurune bakoitza azpi-inguruetan edo zonetan zatitu.
- Azpi-ingurune bakoitzean normalean izaten diren egoerak eta jarduerak, eta ikaslea burujabe izateko ikasi behar dituenak, deskribatu.
- Jarduera horietan parte hartzeko behar diren gaitasunak deskribatu.
- Ikasleak dituen gaitasun errealek ebaluatu.

- Indartu behar diren gaitasunak finkatu, baita horretarako behar diren laguntzak ere.

Gaitasun-maila ebaluatzeko orduan, ikasle bakoitzak jarduerak garatzeko edo ikaskuntza berriak bereganatzeko behar izan dituen laguntza osagarriak baloratzea garrantzitsua da. Minusbaliotasun larriak dituzten pertsonak, ikaskuntza-objektuarekin lehenengoz topo egiten dutenean ikasten ez dutenez, ikasten saiatzen diren bakoitzean, laguntzak eskaini behar zaizkie, ahalik eta esperientzia arrakastatsuenak lortzeko. Laguntza edo lagungarri horien bidez, ikaskuntza-jarduerara hurbilketa egokia egitea ahalbidetzen da, zereginaren aurrean jarrera positiboa agertuz. Laguntza-mota eta laguntzaren beraren intentsitatea ebaluatu behar dira, honako laguntza hauek behar ote dituen baieztatuz:

- Eskuen bidezko laguntzak edo laguntza fisikoa
- Ikus-mailako laguntzak
- Keinuen bidezko laguntzak
- Ahozko laguntzak eta gidak
- Eskaini behar zaion laguntza-kantitatea
- Eskainitako laguntzak emateari utzi behar zaion unea edo beste laguntza egokiago batzuegatik ordezkatu behar diren unea.

6. Koadroa: Hezkuntza Bereziko Ikastetxeetan Curriculum Proiektua lantzeko irizpideak

HBko ikastetxeetan CP lantzeko irizpideak

● **Helburuak eta edukiak aukeratzea**



1. Adin kronologikoa eta HPB
2. Nahastearen izaera
3. Ikaskuntza funtzionalak
4. Ikaskuntza instrumentalak
5. Trebetasun alternatiboak

● **Irizpide metodologikoak**



6. Aukera metodologikoak
7. Komunikazio- eta gizarte-trebetasunak
8. Jokabide disruptiboak
9. Ikaskuntzarako berezko inguruneak
10. Ikastetxeko espazioen diseinua

● **Antolamendu-mailako irizpideak**



11. Ikasleak multzokatzea
12. Baliabide pertsonalak eta materialak
13. Hezkuntza-ingurunea: espazioa, denbora eta abar
14. Koordinazio-irizpideak

● **Ebaluazio-irizpideak**



15. Ebaluazioaren zentzua eta irizpideak
16. Ebaluaziorako lanabesak
17. Ebaluaziorako uneak
18. Ebaluazio-txostenak
19. Prozesuaren ebaluazioa

III. KAPITULUA:

HEZKUNTZA BEREZIKO IKASTETXEETAN

CURRICULUM-PROIEKTUA EGOKITZEKO PROZESUA

Hezkuntza Bereziko ikastetxeek, beste edozein ikastetxek bezala, curriculum-proiektua lantzea behar dute, non ikastetxearen errealitatea eta ikasleari bere eskolatzean zehar eskainiko zaizkion irakaskuntza eta ikaskuntza guztiak azalduko diren.

Gainera, Hezkuntza Bereziko ikastetxeetara gaur egun joaten diren ikasleekin erlacionatutako baldintzak ere badaude, zeintzuk, arrazoi handiagoarekin, ikastetxe hauetan eskaintzen zaien curriculum-a aztertzea eta egokitzea eskatzen duten. Integrazio-planaren eta martxan jarritako hezkuntza-erreformaren ondorioz -zeinek hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen curriculum-a egokitzeko berezko neurriak ezartzen dituen-, ikastetxe hauetako ikasleengan garapena izan da. Gaur egun, hezkuntza bereziko ikastetxeetako ikasleek hezkuntza-mailan azaltzen dituzten arazoak larriagoak dira, izan ere, ikastetxe hauetan minusbaliotasun larrienak eta gaitasun-maila txikiak duten ikasleak biltzen dira.

Bestalde, eta aurreko kapituluan esan dugun bezala, minusbaliotasunen ikuskeran aldaketa garrantzitsuak izan dira, hezkuntza-esparruan eskuhartzeko metodo berriak eragin dituztenak eta minusbaliotasunak dituzten pertsonen zailtasunei (hala nola, autonomiaren garapena, komunikazio-trebetasunak, gizarte-ingurunea ulertzeko trebetasunak, eta abar), erantzuteko metodologian eta moduan berrikuntzak ekartzen dituztenak.

Edozein ikastetxetako curriculum-proiektua lantzea hezkuntza-praktikaren azterketa-prozesua egitea dela kontuan hartuta, Hezkuntza Bereziko ikastetxeen kasuan, eta gaur egun bertara joaten diren ikasleen arazoak kontuan hartuta, ikasleen hezkuntza-premiei eta egungo egoerari erantzuneko dien curriculum-proiektua egiteko beharra are nabariagoa bihurtzen da.

Ikastetxearen curriculum-proiektua lantzeko unea, irakasle-taldearentzat oso une garrantzitsua da, izan ere, partehartze aktiboa egiteko aukera, gogoeta batera egiteko eta erabakiak batera hartzeko aukera eskaintzen du, eta curriculum-proiektuan bertan sartuko dira, gertatzen diren aldaketek eragiten dituzten berrikuntza metodologikoak.

Curriculum-proiektua lantzeko orduan, irakasle-taldeak edozein ikastetxetan jarraitzen den antzeko prozesua jarraitzen du; curriculuma zehazteko eman beharreko urratsak beste edozein ikastetxetan ematen direnak dira; hezkuntza-praktika, testuingurua aztertzea, ikastetxearen hezkuntza-helburuak aukeratzea, ikasleak eta baliabideak antolatzeko moduak erabakitzea, eta abar. Hori bai, egokitzeko neurri eta zehaztapen-neurri sakonagoak erabili beharko dira, prozesuan zehar hartzen diren erabakiak ikasleek gaur egun dituzten eta etorkizunean izango dituzten ezaugarrietara eta premietara egokitu ahal izateko.

Laburbilduz, beste edozein ikastetxetako *antzeko prozesua* da, baina elementu desberdinak dituena, curriculuma zuzentzen deneko ikasleek dituzten hezkuntza-premia bereziek zehaztuko dituztenak, eta proposatzen diren helburuak baldintzatuko dituztenak, horiek aldatuz edo moldatuz. Emaitza bezala, ikastetxe arrunt bateko curriculuma baino sakontasun handiagoa duen curriculum-egokitzapena lortzen da, eta modu esanguratsuan egokitutako curriculum berezi bat osatzen du. Hezkuntza-eta honetako curriculum-proiektuak honako hau isladatu beharko du:

- Ikastetxearen curriculumak barne hartzen dituen hezkuntza-etapak edo -atalak, bakoitzari dagokion adin kronologikoarekin bat etorritik, Hezkuntza Bereziko ikastetxeen kasuan, aldatu edo egokitu ahal direnak.
- Hezkuntza-ziklo desberdinen curriculum-garapena, hezkuntza-eta bakoitzean proposatu diren helburu, esparru eta eduki desberdinekin.
- Proposatutako diseinuetatik abiatuta, gelako edo mailako programazioak egiteko irizpideak.
- Ikasle bakoitzaren Banakako Programa ezartzeko irizpideak, baita azterketa, jarraipena eta ebaluazioa egiteko prozedura ere.
- Horrez gain, beste zenbait elementu ere azalduko dira, hala nola, ikasleen antolamendua, erabiliko diren metodologiak, curriculum bereganatzeko bitartekoak, ikastetxeko baliabideak esleitzeko lehentasunak, arazo bereziei buruzko erabakiak, eta abar.

Curriculumaren garapena egiteko hartu beharreko erabakiak, hezkuntza-premia berezietan oinarrituta, eta minusbaliotasun larriak eta iraunkorrak dituzten pertsonen irakaskuntzan eta ikaskuntzan erabiltzen diren irizpide nagusietan oinarrituta hartu behar dira.


CURRICULUM-PROIEKTUA LANTZEKO FASEAK

Curriculum-proiektua lantzeko prozesuan, irakasle-taldeak urrats desberdinak eman behar ditu, zeintzuk derrigorrez ez duten proposatzen den hurrenkera jarraitu behar. Irakasle-taldearen gogoetak, ikastetxearen aurretiko esperientziak, ikasleak dituen premia-mota bereziak, eta abar, curriculumaren egokitzapenari ondoren adierazten diren fase batetik edo bestetik ekitea eragingo dute. Prozesu honetan bi oinarriko zeregin daude: lehenengoa, testuinguruaren eta ikastetxearen egoeraren azterketa da; bigarrena, erabakiak hartzea da, hala nola: curriculum osatuko duten elementuak, curriculumaren antolamendua, helburuak aukeratzeko lehentasunak, proposatuko diren edukiak, erabiliko den metodologia, kontuan hartuko diren ebaluazio-irizpideak, eta abar.

Prozesu honetan fase desberdinak bereizten dira, ondorengo orrialdean eskema moduan azaltzen direnak. Fase hauek honela laburbiltzen dira:

- I. Fasea. Ikastetxearen testuinguruaren azterketa.
- II. Fasea. Ikastetxearen curriculum antolatzeko erabakiak.
- III. Fasea. Hezkuntza-etapa edo -atalen diseinua.
 - a. Ikastetxearen hezkuntza-helburu orokorrak definitzea
 - b. Hezkuntza-etapa edo -atal bakoitzaren helburuak definitzea
 - c. Hezkuntza-etapa edo -atal bakoitzaren esparruak definitzea
 - d. Esparru bakoitzaren helburuak eta edukiak adieraztea
- IV. Fasea. Printzipio metodologikoa definitzea.
- V. Fasea. Ikastetxearen antolamenduari buruzko erabakiak.
- VI. Fasea. Ebaluazioari buruzko erabakiak.

7. koadroa: CURRICULUM-PROIEKTUA LANTZEKO FASEEN ESKEMA ETA HARTU BEHAR DIREN ERABAKIAK



1. FASEA. Ikastetxearen testuinguruaren azterketa.

Curriculum-proiektuaren lantzea, aurretik egin behar den zeregin batean kokatzen da, hots, ikastetxeko baldintzen azterketa eta ikastetxeko hezkuntza-printzipioei buruzko gogoeta. Zeregin hauek, egiz, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan (IHP) lantzen dira; bertan zenbait erabaki azaltzen dira, ikasle guztiek hezkuntzaren helburu orokorrak beregana ditzaten baldintza egokiak eskaintzeko helburua dutenak. Praktikan, ohikoa da bi agiriak lantzeko orduan erlazioak izatea eta testuinguruaren azterketa paraleloki egitea. Azterketa honetan ondoren adierazten diren alderdiak kontuan hartuko dira:

1.1. Gizarte-testuingurua eta kultur testuingurua.

Gizarte-testuingurua zehazten duten egoeren eta ezaugarrien azterketa, hala nola, alderdi ekonomikoak, kultur mailakoak, hezkuntza mailakoak, familiartekoak, eta abar, ikastetxearen testuinguruaren ebaluazioan abiapuntuetako bat da. Azterketa honen helburua da minusbaliotasun larriak dituzten seme-alabak dituzten familien errealitatea ulertzea eta ezagutzea, dituzten hezkuntza-premiak ezagutu eta baloratu ahal izatea, familiak eta hurbileko inguruneak espero dituzten hezkuntza-helburuak ezagutzea, eta eskolak ikasleen garapenean betetzen duen papera definitzea.

1.2. Ikasleen hezkuntza-premia bereziak

Aldagai honek neurri handi batean aldatzen du ikastetxeak eskaini behar duen curriculum-eskaintza, izan ere, hezkuntza-premia larriak eta iraunkorrak dituzten ikasleei lagundu nahi zaie. Hezkuntza-premien balorazioaren helburua ez da ikasleen defizitak zerrendatzea; helburua ikasleen hezkuntza-premiak zeintzuk diren kontuan hartzea da, eskola-zeregina antolatu ahal izateko, eta horrela abiapuntuak, eskuhartze-helburuak eta -estrategiak aukeratuz.

1.3. Ikastetxearen ezaugarriak.

Ikastetxea dugu curriculum baldintzatzen duen beste aldagai bat. Ikastetxea aztertu behar da, hots, alderdi fisikoak, azpiegitura, erabilgarri dauden gelak, eskura dituzten materialak eta baliabideak, egoera, inguruneak gizarteratzeko eskaintzen dituen aukerak, inguruneko baliabideak. Horrez gain, gizarte-alderdiak ere aztertu behar dira, hala nola historia eta *“ikastetxearen kultura”*, denbora aurrera joan ahala sortzen den, gizarte-erakunde orotan gertatzen den bezala. Zentzu honetan, garrantzitsua da irakasle-taldeak gogoeta bateratua egitea eta hezkuntza-premia larriak dituzten subjektuen hezkuntzak

lortu nahi duenari buruzko ideia bereganatzea. Prozesu honen bidez definituko dira, hezkuntza-helburuak, ikaskuntza-premiak, ikastetxearen funtzioa, baita profesional bakoitzak behar dituen baliabideak eta funtzioak ere.

2. FASEA. Ikastetxearen curriculumaren antolatzearen erabakiak.

Fase honetan ikastetxearen curriculumaren antolamendua erabaki behar da, ikasleen premien eta ezaugarrien arabera. Fase honen ezaugarriak dira, gogoeta, curriculum-proposamenen azterketa, ikasleen ezaugarrien azterketa eta curriculumaren antolatzearen irizpideak aukeratzea. Ikastetxearen hezkuntza-etapak edo -atalak, hezkuntza-erreforman proposatzen diren etapekin bat etorritik definitu behar dira. Garapen-maila oso desberdinak ote dauden jakin behar da, baita aldagai horren eta adinaren, hezkuntza-premien, curriculumeko iturriek ematen duten informazioaren, eta abar, arabera nola antolatu jakin ere. Irakasle-taldeak zeregin desberdinak beteko ditu, besteak beste:

- Curriculumeko iturrietatik hartutako informazioa aztertzea
- Haur, Lehen eta Bigarren Etapen curriculum-diseinuetan proposatu diren helburuak aztertzea
- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen ikaskuntzako printzipio nagusiak aztertzea
- Ikastetxearen curriculumaren nola antolatuko den erabakitzea
- Ikastetxeak ikasleentzat ezarritako helburu orokorrak definitzea
- Ikastetxearen curriculumaren osatuko duten hezkuntza-etapak edo -atalak definitzea, baita helburuak ere.

3. FASEA. Ikastetxearen hezkuntza-etapen edo -atalen curriculum-garapena.

Fase honetan, hezkuntza-etapa desberdinetako curriculum-diseinuen eskaintzen dituzten erreferentziak aztertu behar dira arreta handiz, ondorioz, ikastetxearen erreferente arautzaile bezala zein elementu erabil daitezkeen, zein elementu egokitu eta aldatu behar den eta zein elementu ez duen balio ikasleen hezkuntza-premia bereziei erantzuteko, jakin ahal izateko. Aldi berean, edukiak antolatu behar dira eta behar diren aldaketak egin, arloren antolamendua esparruak eginez edo hezkuntza-etapa desberdinetan arloren bat kenduz, egokia bada. Curriculum-erreferentzia hauek ikastetxean nagusi diren hezkuntza-premiekin erkatu behar dira. Curriculumaren egokitzeko zereginak honako hauek izango dira:

- Hezkuntza-etapen curriculum-diseinuak aztertzea eta erreferentzia baliagarriak lortzea.
- Hezkuntza-etapa edo -atal bakoitzaren helburuak definitzea.
- Hezkuntza-etapa bakoitzean edukiak banatuko direneko esparruak edo arloak definitzea.
- Arlo edo esparru bakoitzaren helburuak definitzea.
- Arlo edo esparru bakoitzeko edukiak aukeratzea, sekuentziazioa eginez eta antolatuz.

4. FASEA. Printzipio metodologikoen definizioa

Fase honetan definitu behar dugu irakatsi eta ikasteko prozesuan jarraitu behar den metodologia-lerroa; hezkuntza-helburuak lortzea erraztuko duten metodoak, teknikak eta estrategiak. Premia jakin batzuei erantzuteko, hala nola jarrera-mailako nahasteak, komunikazio-gaiatasunen garapena, laguntza teknikoaren erabilera, eta abar, hartuko diren aukera metodologikoak, eta eta eredu bat ala beste aukeratzeko irizpideak zehaztuko dira.

Hartzen diren aukera metodologikoen, ondorengo faseetako zenbait alderdi baldintzatuko dituzte. Ikasleak multzokatzeko modua, trebetasun jakin batzuen irakaskuntzak eskatzen duen indibidualizazio-maila, ikasleen ratioa egokitzea, espazioaren eta denboraren antolamendua edo ikastetxeko gela diseinu egokia, aldagai metodologikoen menpe izango dira.

5. FASEA. Ikastetxearen antolamenduari buruzko erabakiak

Ikastetxearen curriculum-proiektuan azalduko dira, hezkuntzan parte hartzen duten profesionalen erantzun koordinatua ziurtatzeko garatu behar diren ekintza guztiak. Antolamenduarekin erlacionatutako zenbait alderdi Antolakuntza eta Jarduera Araudian (AJA) lantzen dira, beraz, AJA jadanik egin badago, curriculum-proiektuak AJAn hartutako erabakiak bakarrik azaldu beharko ditu. Aitzitik, AJA lantzen oraindik hasi ez badira, fase hau garatzeak antolamendu-mailako erabakiak hartzeko aukera eskaintzen du. Alderdi desberdinei dagokienez hartuko dira erabakiak. Alde batetik, ikasleen orientazioa eta jarraipena egiteko modua bateratu behar da, baita familiekin dagoen erlazioa eta euren seme-alaben garapenari buruzko informazioa antolatzeko modua, ikastetxeko profesionalen artean koordinazioa taldeen jarraipena ziurtatzeko, eta abar, ere. Bestetik, zenbait profesionalak eskuhartuko dute: laguntzaileak, tutoreak, logopeda, eta abar, eta ondorioz, koordinazioa areagotu egin behar da, eta profesional bakoitzak bete beharreko funtzioak eta ikasleei arreta eskaintzeko

irizpideak definitu behar dira. Bestalde, espazioak jarduera desberdinetarako nola banatu antolatu behar da, baita material didaktikoak eta hezkuntza-baliabideak erabiltzeko irizpideak ezarri ere. Irakasle-taldeak hartu beharreko erabakiak, besteak beste honako hauek dira:

- Ikasleen jarraipenerako irizpideak ezartzea
- Familiekin koordinazioa egiteko irizpideak ezartzea
- Materialen eta baliabideen erabilerarako irizpideak definitzea
- Ikastetxeko irakasleen koordinazioa antolatzea (AJA)
- Profesional desberdinen funtzioak definitzea (AJA)
- Ikastetxe kanpoko beste zenbait zerbitzurekin koordinazioa izateko irizpideak ezartzea (AJA)

6. FASEA. Ebaluazioari buruzko erabakiak

Fase honen helburua, hezkuntza-prozesuan zehar ebaluaziorako une desberdinak antolatzea da. Hasierako ebaluazioa nola egin, informazioa biltzea eta baloratzea, hori guztia, une bakoitzean ikaslearentzat irakaskuntza-lehentasunak ezartzeko eta hezkuntza-eskuhartzea orientatzeko. Ebaluazioaren helburuetako bat, prozesuan zehar informazioa ematea da, eta ez bakarrik prozesua amaitzean; hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek ikaskuntzarako behar duten denbora luzea kontuan hartuz, ikasten ari direnaren ebaluazioa denbora-tarte laburretan antolatu behar da, horrela, prozesuaren aurrerapen txikiak eta horretarako behar diren laguntzak baloratu ahal izateko. Zentzu honetan, ikasleen ikaskuntzarekin bat datozen ebaluazio-estrategiak hartzea garrantzitsua da, beraz, jarraipenerako lanabes egokituak egitea interesgarria izango da, garrantzitsuenetzat jotzen diren ikaskuntzak ebaluatzeko. Fase honetan, ondoren azaltzen diren alderdiak definitu behar dira:

- Ebaluazio-irizpideak
- Hezkuntza-etapa edo -atala igarotzeko irizpideak
- Ebaluaziorako erabili beharreko prozedurak
- Proposatzen den curriculumarekin bat datozen ebaluaziorako lanabesak lantzea edo egokitzea
- Ikasleei eta familiei informazioa nola emango zaien antolatzea eta txostenak egiteko ereduak aukeratzea
- Ebaluazioaren arduradunak zeintzuk diren eta ebaluazioa egiteko uneak zehaztea
- Irakaskuntza-eta ikaskuntza-prozesuaren ebaluazioa.

IV. KAPITULUA:

HEZKUNTZA BEREZIKO IKASTETXEETARAKO CURRICULUM-PROPOSAMENA

Kapitulu honetan Hezkuntza Bereziko ikastetxe baten curriculum lantzeko orientazioak azaltzen dira, prozesu honen adibide desberdinekin batera. Orientazio hauek proposamen bezala ulertu behar dira, eta helburu bakarra curriculum egokitzeko prozesuaren zenbait alderdiren adibideak jartzea da. Nolabait, oinarrizko curriculum-diseinua edo curriculum-eredu itxia da, hezkuntza bereziko ikastetxeetan zuzenean ezartzeko. Ikastetxe bakoitzak, irakasle-talde bakoitzak eta eskola-elkarte bakoitzak, berezko ezaugarriak dituzte, curriculumaren emaitza baldintzatzen dutenak. Ikasleen ezaugarriak, hezkuntza-premiak eta dituzten arazoak, ikastetxean kokatzen direneko lekua, baita ikastetxearen aurretiko esperientzia ere, berezko gogoeta behar duten alderdiak dira eta curriculum egokitzeko neurriek egoera zehatz bakoitzarekin bat etorri behar dute.

Hala ere, orientazio hauek irakasle-taldearentzat curriculum lantzean erabakiak hartzeko erreferentzia eta laguntza izatea lortu nahi da; xede horrekin zehazten dira eman beharreko urratsak, hartzen diren erabakiak, ikaslearen premien arabera ikaskuntzak aukeratzeko printzipioak nola aplikatu, eta abar.

Curriculum egokitzeko dauden zenbait fasetan, eskema edo koadroen bidez adibideak egin dira, prozesuaren ikuspegi ahalik eta argiena eta praktikoa emateko; beste zenbait fasetan, irakasle-taldeari mailakako erabakiak hartzea erraztuko dioten gidak eta irizpideak eskaintzen dira. Proposamen hau lantzeko abiapuntua hirukoitza da: alde batetik, ikastetxe-mota honetako ikasleen hezkuntza-premia larriak eta iraunkorrak kontuan hartu dira; bigarren, ikasle hauen ikaskuntzarekin eta irakaskuntzarekin erlazionatutako printzipio metodologikoak; azkenik, hezkuntza-etapetako oinarrizko curriculum-erreferentziak kontuan hartu dira.

Adibide eta proposamenetan, aurreko kapituluan aipatu ditugun faseak jarraitzen dira.

1. Fasea. Ikastetxearen testuinguruaren azterketa

Eskola-elkartearantz garrantzi handien duten elementuak agertuko dira, eskola-elkartek hurbileko errealitatean antzematen dituen bezala. Alderdi hauetako asko, IHC lantzean planteatu dira, beraz, baliteke irakasle-taldeak jadanik ikastetxearen eta ikasleen testuinguruari buruzko informazio nahikoa edukitzea. Baina azterketa hori ez bada egin, ondoren azaltzen den proposamena gida bezala erabil daiteke.

1. proposamena: Ikastetxearen testuingurua aztertzeo gida

Gizarte eta Kultur Testuingurua

- Ikastetxea kokatzen deneko ingurunearen ezaugarriak
- Ikastetxearen ingurunea eta erabilgarri dauden eskola-elkarteko baliabideak
- Familien eta Guraso Elkartearen itxaropenak
- Hizkuntza testuingurua (gizartea, familia, eskola)
- Ingurune baliabideak eta baldintzak, ikasleen hezkuntza-erantzuna hobe dezaketenak
- Ikastetxearen inguruko ingurune normalizatuak, ikasleen hezkuntzan aprobeitza daitezkeenak
- Gizarte-elementuak eta kultur elementuak (demografia-aldaketak, komunitate-proiektuak, ...), ikastetxean eragina dutenak

Ikasleen hezkuntza-premiak

- Ikastetxeko ikasleak: deskribapena, ikasle-kopurua, adina,
- Hezkuntza-premiak azaltzen diren esparruak: komunikazio-esparrua, autonomia eta identitate pertsonalaren esparrua, gizarte-esparrua, ezagutza-esparrua, osasun-esparrua, jokabidea, eta abar
- Curriculum bereganatzeko bitartekoekin erlazioatutako premiak
- Baliabideekin eta laguntzekin erlazioatutako premiak

Ikastetxearen ezaugarriak

- Eskola-elkartearen ezaugarriak
- Irakasle-taldeko partaideak
- Ikastetxearen historia eta ibilbidea
- Ikastetxearen azterketa, pedagogia-esparrutik, antolamendu-esparrutik eta funtzionamendu-esparrutik
- Ikastetxea bereizten duen pedagogia-lerroa
- Ikastetxean egin eta positiboki baloratu diren esperientziak eta proiektuak
- Aldaketak egin behar diren alderdiak
- Inguruneak gizarteratzeko eskaintzen dituen aukerak
- Ikastetxearen azpiegitura
- Erabilgarri dauden materialak eta baliabideak

2. Fasea: Ikastetxearen curriculumaren antolamendua

Adibide desberdinak aurkezten dira. 2. proposamenak, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen ikuspegitik curriculum-iturriak aztertzean lortzen dugun informazioa egokitzeko modua azaltzen du. 3. proposamenean, Hezkuntza Bereziko ikastetxe baterako oinarrizko helburuak planteatzen dira, hezkuntza-etapen helburuetatik eta helburu horiek hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei egokitzetik abiatuta. 4. eskemak, Hezkuntza Bereziko ikastetxe bateko hezkuntza-etapa guztietan curriculum antolatzeko proposamena azaltzen du.

2. proposamena: hpb dituzten ikasleei egokitutako curriculum-iturrien azterketa

Iturri Epistemologikoa

- zein ikaskuntza dira funtsezkoak ikasleentzat?
- zein da ikaskuntza jakin batzuen sekuentziatzioa?
- zein eduki dira funtzionalagoak?
- ikaskuntza jakin batzuek zein autonomia-maila behar dute?
- beste zenbait, ... (ikus 29. or.)

Lehenengo hezkuntza-zikloak	Ondorengo hezkuntza-zikloak
<ul style="list-style-type: none">• Ikaskuntzarik funtzionalenak aukeratzea• Ikaskuntza jakin batzuk planteatzea• Sekuentzia gutxiko ikaskuntzak• Oinarrizko autonomia pertsonala bereganatzea• Oinarrizko komunikazio-trebetasunak bereganatzea• Aske funtzionatzeko oinarrizko zereginak bereganatzea	<ul style="list-style-type: none">• Testuinguru zehatzetan ikaskuntza funtzionalak planteatzea• Zeregin askeak egiteko ikaskuntzak• Testuinguru desberdinetan autonomia pertsonala azaltzea• Testuinguru desberdinetan funtzionatzeko autonomia: familian, aisian, lanean hasi baino lehen ...• Testuinguru desberdinetan erlazionatzeko oinarrizko komunikazio-estrategiak• Trebetasun alternatiboak irakastea

Iturri Pedagogikoa

- zeintzuk dira ikasleek dituzten hezkuntza-premia bereziak?
- zein baliabide- eta laguntza-mota behar dituzte?
- zein irakaskuntza- eta ikaskuntza-printzipio hartu behar dira kontuan?

- nola erabili ikastetxeko ingurune arrunta?
- beste zenbait ... (ikus 29. or.)

Lehenengo hezkuntza-zikloak	Ondorengo hezkuntza-zikloak
<ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxearen ingurune arruntak erabiltzea • Ikus-mailako eta keinuen bidezko laguntzak erabiltzea • Komunikaziorako Sistema argigarriak erabiltzea • Ingurune hurbila egituratzea • Ohiko egoeretan jarrera kontrolatzea • Akatsak egiteko aukerarik gabeko ikaskuntzak planteatzea • Beharrezkoak diren laguntza-motak ebaluatzea • Irakasleak bitarteko bezala betetzen duen papera • Berdinkideekin ikaskuntza • Curriculum funtzionalaren garrantzia 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxetik kanpoko ingurune arruntak erabiltzea • Adin kronologikora egokitutako inguruneak • -Testuinguru desberdinetan ohiko zereginak aztertzea • Testuinguru desberdinetan ezartzeko Komunikazio Trebetasunak irakastea • Testuinguru desberdinetan jarrera-egokitzapena • Eguneroko bizitzako egoera desberdinetan aplikatutako curriculum funtzionala

Iturri Psikologikoa

- zeintzuk dira ikasleen ezaugarri psikoebolutiboak?
- osasunari eta ongizate pertsonalari dagokienez, zein premia dituzte?
- nolakoa da emozio- eta afektibitate-garapena?
- zein zailtasun dituzte ikasteko, nola ikasten dute hobeto?
- beste zenbait ... (ikus 29. orr)

Lehenengo hezkuntza-zikloak	Ondorengo hezkuntza-zikloak
<ul style="list-style-type: none"> • Ongizate fisiko eta emozio-mailakoa eskaintzea • Gogo-aldarteak komunikatzeko estrategiak sustatzea • Gizarte-ingurunea ulertzeko estrategiak indartzea • "Sentitzen" duen pertsona tratatzea • Pertsonarentzako proposamen esanguratsuak • Autonomia pertsonala garatzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxetik kanpoko egoeretan ongizate fisiko eta emozio-mailakoa • Ikasleek aisialdirako, lanerako, osasunerako, eta abar, dituzten premia pertsolanak kontuan hartzea • Helduaroko premiei buruz pentsatzea • Testuinguru desberdinetan komunikazio-estrategiak erabiltzea • Pertsona bezala garapena indartzen duten ikaskuntzak

Iturri Soziologikoa

- zeintzuk dira hurbileko ingurunearen lehentasunak?
- zein eskaera egiten ditu familiak?
- zeintzuk dira bere inguruneko jarduerarik ohikoenak?
- nolakoa da ikaslearen ingurunea, landatarra, hiritarra ...?

- beste zenbait (ikus, 29. or.)

Lehenengo hezkuntza-zikloak	Ondorengo hezkuntza-zikloak
<ul style="list-style-type: none"> • Autonomia pertsonalerako ikaskuntza erabilgarriak • Ikaskuntza funtzionalak ingurunean • Familientzako ikaskuntza esanguratsuak • Hurbileko ingurunea ulertzeko ikaskuntzak • Inguruneak eskaintzen dituen baliabide arruntak erabiltzea • Inguruneko gizarte-zerbitzu arruntak erabiltzea • Inguruneko zerbitzuekin koordinazioa 	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte-testuinguruetan erabilgarriak diren ikaskuntzak: kalean, etxean, jangelan, aisian, ... • Testuinguruaren ezaugarrietara egokitutako ikaskuntzak (hiritarra, landatarra...) • Familiako, taldeko, eta abar jarduerak partekatze ikaskuntza esanguratsuak. • Helduaroan azaltzen diren premien arabera ikaskuntzak • Testuinguru desberdinetan funtzionatzeko autonomia: familian, aisian, lanean hasi baino lehen, ...


3. proposamena: Hezkuntza-helburuak Hezkuntza Bereziko ikastetxera egokitzea

Hezkuntza-helburuak Hezkuntza Bereziko ikastetxeko ikasleen ezaugarrietara egokitzeko, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako helburu orokorrak hartu dira abiapuntu bezala, zeintzuk xedetzat ikasleen gaitasunak garatzea duten, alderdi fisikoan, ezagutza-mailan, afektibitate-mailan eta psikologia- eta gizarte-mailan. Oinarrizko gaitasun hauek T. Mauri-k⁽⁶⁾ proposatutako esparruetan multzokatu dira, eta Ford-ek⁽⁷⁾ burutiko atzerapena definitzean formulatutako egokitzeko trebetasunekin erlazionatu dira. Jarraitzen diren pausuak honako hauek dira:

⁽⁶⁾ MAURI, T. *Los contenidos escolares*. Aula de Innovación Educativa, 11. Graó. Barcelona.

⁽⁷⁾ VERDUGO, M.A. (1995) *Personas con discapacidad*. Siglo XXI. Madrid

3. proposamena (jarraipena):



(*)⁽⁸⁾ *Egokitzeko trebetasunak* terminoak, egokitzeko jarrera terminoa ordezkatzen du, eta moldaera pertsonal eta gizarte-moldaera autonomoa lortzeko beharrezkotzat jotzen diren gaitasun-multzozabalarari egiten dio erreferentzia.

⁽⁸⁾ VERDUGO, M.A. (1995) *Personas con discapacidad*. Siglo XXI. Madrid.

a) Pixkanaka-pixkanaka, norberak bere gorputzaz jabetzea, ezagutzea eta kontrolatzea, euren buruari eta sexu-nortasunari buruzko irudi positiboa eratuz, ekintzarako eta adierazpenerako gaitasunak eta mugak baloratuz, eta osasunari eta ongizateari dagokienez, oinarrizko azturak bereganatuz.

b) Ohiko jardueretan gero eta askatasun handiagoarekin jardutea, pixkanaka-pixkanaka afektibitate- eta emozio-segurtasuna bereganatuz, eta aurre hartzeko gaitasuna eta nork bere buruan konfidantza izateko gaitasuna garatuz.

c) Gero eta esparru zabalagoan gizarte-harremanak izatea, entzuteko jarrera garatuz eta pixkanaka-pixkanaka nork bere interesak, ikuspuntuak eta ekarriak besteekin artikulatzen ikasiz.

d) Pertsona helduekin eta lagunekin harremanak finkatzea, elkarri afektibitatea agertuz, desberdintasuna errespetatuz eta laguntzarako eta elkarlanerako jarrerak garatuz.

e) Hurbileko ingurunea jakinminez eta kontu handiz behatzea eta aztertzea, hurbileko ingurunea osatzen duten ezaugarri esanguratsuenak bereiziz, baita elkarren artean dauden erlazioak ere.

f) Ingurunekeo zenbait kultur adierazpen ezagutzea, beraiekiko errespetuzko jarrerak, interesa eta parte hartzeko jarrera azalduz, baita hurbileko ingurunekeo beste zenbait kultur adierazpenen aurrean interesa eta errespetua agertzea ere.

g) Errealitateko alderdi desberdinak, bizitakoak, ezagututakoak edo imajinatutakoak, adieraztea eta gogoratzea, eta jolasak eta irudikatzekeo eta adieraztekeo beste zenbait moduk eskaintzen dituzten aukera sinbolikoen bidez adieraztea.

h) Ahozko hizkuntza ohiko komunikazio-egoeretara egokituta erabiltzea, gainontzekoei ulertzeko eta ulertuak izateko, ideiak, sentimenduak, esperientziak eta nahiak adieraztekeo, esanahiak ulertzen aurreratzeko, norberaren jarrera arautzeko eta besteengan eragina izateko.

i) Adierazpenerako aukerak aberastea eta gehitzea, eskura dituzten baliabideak eta bitartekoak erabiliz; aldi berean, adinaren berezko arte-adierazpen desberdinekin erlazioa izatea eta baloratzea.

a) Nork bere gorputza ezagutzea eta baloratzea, eta gorputza garatzen laguntzea, osasun-mailako, garbitasun-mailako eta ongizate-mailako azturak hartuz, eta jarrera jakin batzuek osasunean eta bizi-kalitatean duten eragina baloratuz.

b) Ohiko jardueretan eta taldeko harremanetan autonomiaz jardutea, aurre hartzeko eta afektibitate-harremanak finkatzeko aukerak garatuz.

c) Taldeko jarduerak antolatzen eta egiten laguntzea, demokratikoki ezartzen diren arauak eta erregelak onartzea, norberaren helburuak eta interesak taldeko gainontzeko partaideenekin artikulatzea, ikuspuntu desberdinak errespetatuz, eta bakoitzari dagozkion erantzukizunak bere gain hartzea.

d) Gizarte-egoera ezagunetan pertsonekin harreman orekatsuek eta konstruktiboak finkatzea, elkartasuna adieraztea, sexu-desberdintasunean, gizarte-mailan, sinismenetan, arrazan eta banakako edo gizarte-ezaugarrietan oinarritutako beste zenbait bazterketei aurka eginez.

e) Natur eta gizarte-ingurunekeo gertaera eta fenomenoek arteko erlazioak ulertzea eta ezartzea, eta ahal den neurrian, ingurugiroa defendatzen, zaintzen eta hobetzen laguntzea.

f) Kultur ondarea ezagutzea eta gozatzea, zaintzen eta hobetzen parte hartzea eta hizkuntza eta kultur aniztasuna errespetatzea, herriek eta gizabanakoek duten eskubide bat bezala, eskubide horrekiko interesa eta errespetua agertuz.

g) Gaztelaniaz eta euskaraz ahozko eta idatzizko mezuak ulertzea eta sortzea, komunikazio-helburu eta -testuinguru desberdinei erantzunez; aldi berean, atzerriko hizkuntza batean ahozko eta idatzizko mezu errazak eta testuinguru batean kokatutakoak sortzea.

h) Bitarteko desberdinen bidez komunikatzea, hala nola, ahozkoak, gorputzaren bidezkoak, ikus-mailakoak, plastikoak, musikalak eta matematikoak, sentikortasun estetikoak, sormena eta arte-lanean eta -adierazpenez gozatzekeo gaitasuna garatuz.

i) Eguneroko esperientziatik abiatuta, galderak eta arazoak bereiztea eta planteatzea, eta modu sortzailean eta autonomoan irtenbidea emateko, eskura dauden ezagupen eta baliabide materialak, eta beste zenbait pertsonaren elkarlana edo laguntza erabiliz.

j) Arazo errazak konpontzeko prozedura egokiak erabiltzea, informazio egokia lortu ahal izateko eta kodeen bidez adierazi ahal izateko, arazoari irtenbidea emateko behar diren baldintza materialak eta denborazkoak kontuan hartuz.

k) Bizitza eta gizakion elkarbizitza arautzen duten oinarrizko baloreen garrantzia kontuan hartzea, eta horien arabera jardutea.

a) Nork bere gorputzaren funtzionamenduaren oinarrizko alderdiak ezagutzea eta ulertzea, baita ekintza eta erabaki pertsonalek taldeko osasunean duten eragina ere, eta ariketa fisikoa egitea, garbitasuna eta elikadura orekatsua bezalako azturek, baita bizitza osasuntsua izateak ere, dituzten onurak baloratzea.

b) Nork bere buruaz, ezaugarriez eta ahalmenez irudi egokia egitea, eta prestakuntza autonomo eta orekatsurako jarduerak garatzea, ahaleginak eta zailtasunak gainditzea baloratuz.

c) Beste zenbait pertsonarekin harremanak izatea eta taldeko jardueretan elkartasuna eta tolerantzia agertuz, inhibiziorik eta aurreiritzirik gabe, arraza, sexua, gizarte-maila, sinismen eta banakako eta taldeko ezaugarriengatik izan daitekeen beste zenbait baztertze saihestuz.

d) Gizarte funtzionamendua arautzen duten mekanismoak eta baloreak aztertzea, bereziki hiritarren eskubideei eta betebeharreri dagozkienak, epai eta irizpide pertsonalak lantzea eta bizitza aktiboan eta helduaroan autonomiaz eta ekimenez jardutea.

e) Ingurune fisikoa arautzen duten oinarrizko mekanismoak aztertzea, giza jarduerak ingurune fisikoan duten eragina baloratzea eta ingurune fisiko defendatzen, zaintzen eta hobetzen aktiboki laguntzea, bizi-kalitatearen elementu erabakior bezala.

f) Garapen zientifikoa eta teknologikoa ezagutzea eta baloratzea, baita ingurune fisikoan eta gizarte-ingurunean dituzten aplikazioak eta eraginak ere.

g) Kultur ondarea ezagutzea, baloratzea eta gozatzea, eta zaintzen eta hobetzen aktiboki laguntzea, hizkuntza eta kultur aniztasuna herri eta gizabanako orok duen eskubidea eta betebeharra bezala ulertuz; aldi berean, eskubide horrekiko interesa eta errespetua azaltzea.

h) Gaztelaniaz eta euskaraz, eta gutxienez beste hizkuntza atzeritar batean, ahozko eta idatzizko mezuak ulertzea eta sortzea, komunikatzeko eta nork bere pentsamenduak antolatzekeo erabiliz; eta hizkuntzaren erabileran nahastan diren prozesuei buruz gogoeta egitea.

i) Zehaztasunez, autonomiaz eta sormenez, kode artistikoak, zientifikoak eta teknikoak erabiltzen dituzten mezuak interpretatzea eta sortzea, komunikatzeko ahalmena aberasteko eta erabileran nahastutako prozesuei buruz gogoeta egitea.

j) Ezagupenaren eta esperientziaren alor desberdinetan, arazoak antzematekeo eta konpontzeko estrategiak lantzea, intuizio-prozeduren eta arrazoiketa logikoaren prozeduren bidez, elkarren artean erkatuz eta jarraitu den prozesuari buruz gogoeta eginez.

k) Informazioa lortzea eta aukeratzea, normalean aurkitzen deneko iturriak erabiliz, modu autonomoan eta kritikoki aztertzea, aurretik finkatutako helburuarekin, eta gainontzekoei informazioa antolatuta eta ulergarria igortzea.

l) Gure tradizioaren eta kultur ondarearen sinismenak, jarrerak eta oinarrizko baloreak ezagutzea, kritikoki baloratzea eta pertsona bezala garapen integralari gehien lagunduko dioten aukerak aukeratzea.


↓

B

↓

GINARRIZKO GAITASUNAK

↓



Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako helburu orokorrek, oinarrizkotzat jotzen diren gaitasunak indartzen dituzte, zeintzuk pertsonaren garapenaren alderdi fisikoak, ezagutza-mailakoak, afektibitate-mailakoak eta gizarte-alderdiak barne hartzen dituzten. Gaitasun horiek jarduera desberdinetan agertzen dira, eta ikaskuntza-edukiak banatzen direneko esparruetan edo arloetan zehaztasun handiagoarekin zehazten dira. T. Maurik eginiko sailkapenak, oinarrizko gaitasun horiek edukien garapenerako esparruekin erlazionatzea ahalbidetzen du.

GINARRIZKO GAITASUNAK

- Gorpuztasunarekin, autonomiarekin eta identitate pertsonalarekin erlazionatutakoak
- Arazoak antzematearekin, planteatzearekin eta konpontzearekin erlazionatutakoak
- Ingurune fisikoarekin eta gizarte-ingurunearekin, ezagupenarekin, baloratzearekin eta zaintzearekin erlazionatutakoak.
- Komunikazioarekin, adierazpenarekin eta irudikapenarekin erlazionatutakoak, kode eta kultur forma desberdinak erabiliz.
- Gizarte-harremanekin, araudiarekin eta pertsonen arteko elkarbizitzarako baloreekin erlazionatutakoak

C *Egokitzeko Trebetasunak*⁽⁹⁾

- Komunikazioa
- Nork bere burua zaintzea
- Etxeko bizimodua
- Gizarte-trebetasunak
- Komunitatearen erabilera
- Nork bere burua gidatzea
- Osasuna eta segurtasuna
- Akademika funtzionalak
- Aisia
- Lana

OINARRIZKO GAITASUNAK EGOKITZEKO TREBETASUNAK

<p>MUGIMENEZKOAK -</p> <p>AFEKTIBITATE-MAILAKOAK</p> <p>Gorpuztasunarekin, autonomiarekin eta identitate pertsonalarekin erlazionatutakoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Nork bere burua zaintzea. • Etxeko bizimodua. • Komunitatearen erabilera. • Aisia. • Osasuna eta segurtasuna, ...
<p>EZAGUTZA-MAILAKOAK -</p> <p>GIZARTERATZEA</p> <p>Arazoak antzematearekin, planteatzearekin eta irtenbidea ematearekin erlazionatutakoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Nork bere burua gidatzea. • Osasuna eta segurtasuna. • Lana. • Komunitatearen erabilera, ...
<p>EZAGUTZA-MAILAKOAK -</p> <p>GIZARTERATZEA</p> <p>Ingurune fisikoa eta gizarte-ingurunea ezagutzearekin, baloratzearekin eta zaintzearekin erlazionatutakoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Komunitatearen erabilera. • Osasuna eta segurtasuna. • Komunikazioa. • Akademika funtzionalak. • Aisia, ...
<p>AFEKTIBITATE-MAILAKOAK -</p> <p>GIZARTERATZEA</p> <p>Gizarte-harremanekin, araudiarekin eta pertsonen arteko elkarbizitza-erlazioarekin erlazionatutakoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte-trebetasunak. • Komunikazioa. • Komunitatearen erabilera. • Aisia. • Lana, ...

(9) Ikus *Habilidades adaptativas y evaluación curricular*. Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako PATEko CEDEko programaren arduradunek egina (1997). IBI/IPEI eta Pedagogi Aholkutegetan.

<p>KOMUNIKAZIO-MAILAKOAK GIZARTERATZEA</p> <p>Komunikazioarekin, adierazpenarekin eta irudikapenarekin erlazionatutakoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Komunikazioa. • Akademika funtzionalak. • Gizarte-trebetasunak. • Komunitatearen erabilera, ...
---	--

Helburu orokor egokituak adieraziko dituzte ikasleek, eskolatzean zehar, garatu behar dituzten gaitasunak eta trebetasunak, eta horiek izango dira hezkuntza-praktika egokitzeko erreferentea. Gaitasun horiek esperientzia-esparruetako edukietan, gelako programazioan, ikaskuntza-esparruen erabileran, eta abar, isladatuko dira.

D. Ikastetxearen helburu orokor egokituak

1. Nork bere gorputza ezagutzea eta kontrolatzea, gainontzekoengandik bereiziz, zaintzeko eta garbitasunarekiko jarrera positiboa agertuz, eta osasunarentzat, garbitasunarentzat eta ongizate pertsonalerako oinarritzakoak diren azturak bereganatuz.
2. Pixkanaka-pixkanaka, eguneroko ohiko jardueretan gero eta autonomia handiagoarekin jardutea, ekintzarako gaitasunak eta berdinkideekin eta pertsona helduekin, ongizate pertsonala eta emozio-ongizatea lortzeko loturak eta harremanak izateko gaitasunak garatuz.
3. Portaera antzematea, kontrolatzea eta artikulatzea, gainontzekoak, egoera bakoitzaren berezko arauak eta baloreak kontuan hartuz, afektibitateari erantzunez eta gizarte-trebetasunak eta parte hartzeko, elkarlanerako eta laguntza eskaintzeko jarrerak garatuz.
4. Erlazioak izateko eta elkarbizitzako oinarritzako guneetan, gizarte-harremanak garatea: familian, eskolan, auzoan, lanean; gizarte-arauak eta gainontzekoekiko errespetuzko jarraibideak ikasiz, eta beste gizarte-esparru batzuetan normalizazioa eta orokortzea erraztuko duten loturak ezarriz.
5. Komunikazio-estrategiak garatea, ahozkoak zein ahozkoak ez direnak, euren oinarritzako ideiak, nahiak adieraztea, ingurunea ulertzea, ulertuak izatea eta inguruneak azaltzen duen portaeran eragina izatea ahalbidetuko dutenak.
6. Hurbileko ingurune fisikoa ezagutzea, objektu, gertaera eta egoera esanguratsuenak bereiziz, irudikapena eta sinbolizazioa adierazpenerako modu desberdinen bidez erraztuz, hala nola: jolasa, ikus-mintzairak, komunikaziorako sistema alternatiboak, musika, hizkuntza plastikoak, eta abar.
7. Pixkanaka-pixkanaka eskolako, eskolaz kanpoko eta aisialdiko jardueretan autonomia-maila handiagoa lortzea, eguneroko bizitzako ohiko egoerak ekimenez eta autonomiaz konpontzen ahalbidetuko duena.

8. Hurbileko natur ingurunea aztertzea eta ezagutzea, ingurunea zaintzeko, errespetatzeko eta gozatzeko azturak eta jarrerak garatuz, gizarte-adierazpen eta kultur adierazpen esanguratsuenak ezagutuz, bertan aktiboki parte hartuz.
9. Helduarora igarotzea erraztuko duten gaitasunak, trebetasunak eta teknikak garatzea, inguruan duten ingurunea ulertzea eta bertan integratzea, komunitateko zerbitzuak erabiliz, eta gizarte-egoera eta lan-egoera desberdinetara egokituz.

4. proposamena: Ikastetxearen curriculuma antolatze eskema

IKASTETXEAREN CURRICULUMA

ikastetxearen helburu orokorrak, modu esanguratsuan egokituak

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza



<i>Ikastetxearen zikloak Ikastetxeko Etapa</i>	<i>Adina</i>	<i>HPB eta Curriculum-Erreferentziak</i>	
1. Zikloa	8 urtetik behera salbuespen bezala, haur-adineko ikasleak	HPB + Haur Hezkuntzako helburu egokituak	Haur Etapa
2. Zikloa	8-11/12 urte	HPB + Lehen Hezkuntzako helburu egokituak	Lehen Etapa
3. Zikloa	12-15/16 urte	HPB + Lehen Hezkuntzako helburu egokituak	
4. Zikloa	15-18 urte	HPB + Lehen Hezkuntzako eta DBHko helburu egokituak • Zereginen Ikaskuntzarako Programak: Zereginak: Oinarrizko Ikaskuntzak egokitzea • Autonomia pertsonalerako programak	Bigarren Etapa
5. Zikloa Gizarte Bermerako Programak	18-20 urte	HPB + DBHko helburu egokituak. • Zereginen Ikaskuntzarako Programak: Zereginak: Oinarrizko Ikaskuntzak egokitzea • Autonomia pertsonalerako programak	




ikastetxearen helburu orokorrak, modu esanguratsuan egokituak

3. FASEA: Curriculumaren garapena

4. proposamenean azaltzen den antolamendurako eskema jarraituko dugu, eta helburuak, esparruak, hezkuntza-atal edo -etapa desberdinak igarotzeko irizpideak eta ebaluazio-irizpideak definituko ditugu.

5. proposamena. Etapa desberdinetako curriculumaren garapena



Helburuak: Etapa hau garapen pertsonala indartzera zuzentzen da, oinarrizko alderdiei dagokienez: emozio-ongizatea, sentimen-garapena, pertzepzio- eta mugimen-garapena, autonomia pertsonala, objektuak ezagutzea eta gizarte-elkarrekintza. Helburu bezala dugu, pixkanaka-pixkanaka pertsonekin, objektuekin eta hurbileko ingurune egoerekin harreman normalizatu izatea, eta xedetzat afektibitate- eta emozio-ongizatea eta autonomia pertsonala lortzea dugu. Gainontzekoekin izaten den elkarrekintzan asmoa eta interesa garatzea lortu nahi da, komunikazioa hasteko eta garatzeko estrategiak eskainiz, ikasle bakoitzaren gaitasunetara egokituak.

Esparruak:

- Identitate eta autonomia pertsonala
- Ingurune Fisikoa eta Gizarte Ingurunea ezagutzea
- Komunikazioa eta Irudikapena

Promozio-irizpidea:

- Adin kronologikoa: 8 urte baino gehiago

Ebaluazio-irizpideak:

- Bereganatutako gaitasunak: hasierako komunikaziorako ahozko edo keinuen bidezko estrategiak; komunikatzeko sistema alternatiboa edo argigarria erabiltzea; bereganatutako oinarrizko mugimen- eta autonomia-azturak; eguneroko egoeretan objektuak ezagutzea eta erabiltzea; eguneroko egoeretan euren jarrera autoerregula dezakete; hasierako plangintzarako eta nork bere burua gidatzeko estrategia errazak; gizarteratzeko eta gizarte-trukerako egoeretan egokitzapen pertsonala; hurbileko ingurune fisikoa eta gizarte-ingurunea oinarrian ezagutzea, eta eguneroko egoerak ulertzea; laguntzarekin, zereginak egitea eta arazoei irtenbidea ematea; komunikaziorako lanabesak, ahozkoak, keinuen bidezkoak, grafikoak, idazmena, ... bereganatutakoak; sailkapen, asoziazio, konparazio, identifikazio, eta abarrerako ezagutza-garapena. Oinarrizko trebetasun akademikoak, erabilera funtzionala dutenak.

BIGARREN ETAPA

ikastetxearen helburu orokorrak, modu esanguratsuan egokituak

4. Zikloa	15-18 urte	<p><i>Curriculuma egokitzeko erreferentziak</i></p> <p>HPB + Lehen Hezkuntzako eta DBHko helburu egokituak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zereginen Ikaskuntzarako Programak: Zereginak: Oinarrizko Ikaskuntzak egokitzea • Autonomia pertsonalerako programak 	Bigarren Etapa
5. Zikloa Gizarte Bermerako Programak	18-20 urte	<p>HPB + DBHko helburu egokituak.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zereginen Ikaskuntzarako Programak: Zereginak: Oinarrizko Ikaskuntzak egokitzea • Autonomia pertsonalerako programak 	

Helburuak: Hezkuntza-etapa honek helduarora igartzeko prestatzeko balio du. Etxeko, komunitateko eta laneko trebetasunak bereganatzea eta erabiltzea izango da nagusi curriculumean. Ikaskuntzak zentzu funtzionala izango du, hots, ikasitakoa testuinguru desberdinetan erabiltzen ikasiko da. Helburua lanerako azturak bereganatzea da, ikasleak lanean hastea edo okupaturik egotea ahalbidetuko dutenak, euren gaitasunen arabera. Edukiak, sozializazioa, eguneroko jardueretara eta lan-jardueretara bideratuko dira. Ikasleak ibiliko diren hurbileko testuinguruan ahalik eta integrazio handiena lortzeko gaitasunak eta trebetasunak bereganatzea lortu nahi da.

Esparruak:

- . Identitate pertsonala eta gorputz-garapena
- . Autonomia pertsonala eta arazoak konpontzea
- . Ingurune fisikoa eta Gizarte Ingurunea ezagutzea
- . Komunikazioa eta Irudikapena
- . Lana-okupazionala-eskuzkoa

Promozio-irizpidea:

- Ikasleen adina: 20 urte

Ebaluazio-irizpidea:

- Bereganatutako gaitasunak: zeregin errazak egitean arreta jartzea; gainbegiratuak izango diren zeregin errazak egiteko jarraibideak jarraitzeko gaitasuna; laguntzaren bidez, zeregin errazak planifikatzea; arazo errazei irtenbidea ematea; testuinguru desberdinetan oinarrizko premiak komunikatzeko estrategiak: eskola, familia, aisialdia, lanean hasi aurretik eta lanean; eguneko zentroetan, lanerako lantegietan edo babestutako lan-zentroetan sartzeko gizarte-estrategiak.

6. proposamena. Esperientzia-esparruak eta edukiak

Lehenago azaldu dugun bezala (23. orr.), ikaskuntza-edukiak esparruetan banatzea proposatzen da, non hezkuntza-esperientziak gauzatzen diren. Proposamen honetan egokitzapen desberdinak egiten dira:

- curriculumeko zenbait arlo kentzen dira
- ikaskuntzak, ikasleentzat esperientzia-esparru esanguratsuetan antolatzen dira; esperientzia-esparru bakoitzak, bere inguruan eduki eta ikaskuntza-egoera jakin batzuk antolatzeko balio digu.
- premia bereziak dituen ikaslearentzat ikaskuntza funtzionalenak eta esanguratsuenak aukeratzen dira

Curriculum funtzional baten aukerak, prozedura-mailako edukiei lehentasun handiagoa ematea eskatzen du. Aukera hori jarraituz, proposamen honetan ez dira hiru eduki-mota bereizten; funtzionaltasuna eta autonomia pertsonala, ikasle hauen irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren xedea, nagusiki prozedurazkoak diren edukietan isladatzen da.

Jarraian azaltzen diren adibideek, zenbait helburu eta eduki sekuentziatu azaltzen dituzte, zeintzuk esparru handi hauetan sar daitezkeen, eta gainera, curriculum lantzeko erreferentzia izan nahi dute. Hezkuntza-etapa bakoitzean aurkeztutako esparruen proposamena jarraituz, ondorengo esparruak adibidez adierazten dira:

1. Identitate Pertsonalaren eta Gorputz Garapenaren esparrua

2. Autonomia Esparrua eta Arazoak Konpontzeko Esparrua

3. Ingurune Fisikoa eta Gizarte Ingurunea ezagutzeko Esparrua

4. Komunikazio eta Irudikapen Esparrua

5. Lanean hasi aurreko Esparrua - Lan-esparrua - Eskuzkoa

1. Identitate Pertsonalaren eta Gorputz Garapenaren Esparrua

Esparruaren helburu orokorrak

- Sentimen-, mugimen- estimulu- eta pertzepzio-esperientziak esperimendatzea, ezagutzea eta bereiztea, norberaren gorputzarekin, espazio fisikoarekin eta gizarte-ingurunearekin erlazioan.
- Nork bere gorputza ezagutzea eta kontrolatzea, nork bere gaitasunak kontuan hartuta
- Eguneroko bizitzako jardueretan azaltzen diren mugimen-trebetasunak garatzea
- Osasunari, garbitasunari eta ongizateari dagokienez, oinarrizko azturak bereganatzea
- Oinarrizko premiak antzematea eta bereiztea
- Portaera kontrolatzea eta eguneroko bizitzako egoeretara artikulatzea
- Gainontzekoekiko harremanetan ongizate pertsonala bereganatzea

Esparruarekin erlazionatutako edukiak

1. Sentimen-mugimenaren mugimendua eta gorputzaren mugimendua garatzea.

Pertzepzio- eta mugimen-trebetasunak garatzea: lauoinka ibiltzea, laguntzaren bidez oinez ibiltzea, laguntzarik gabe oinez ibiltzea, igotzea, jaistea, korrika egitea, salto egitea, bira ematea, kulunkatzea ...

Espazioan autonomoki mugitzea: gora-behera, barrura, kanpora, azpira, aurrera, atzera, gertu, urruti, alde batera, Jolas-jardueretan eta eguneroko jardueretan gorputzak dituen mugimen-gaitasunak aztertzea

Arazoak konpontzeko mugimen-trebetasunak erabiltzea: atea irekitzea, eskailera igotzea zerbait hartzeko, jolasteko salto egitea, ...

Gorputz- eta afektibitate-erritmoa eguneroko bizitzako sekuentzietara eta ohituretara egokitzea

Mugimen-trebetasun berriak bereganatzea eskatzen duten jardueretan, gorputzaren koordinazioa eta kontrola bereganatzea: joan-etorriak, objektuak eta lekuak aztertzea, jolas fisikoak, pilotarekin jolasak, jolasteko objektuak erabiltzea, trizikloa edo bizikleta erabiltzea, igeri egitea, ...

2. Norberaren gorputzaren sentsazioak bereiztea

Sentimenak garatzea: ukimena, ikusmena, usaimena, dastamena, entzumena.

Sentimen-pertzepzioen bidez gauzak aurkitzea: ikusmena, usaimena, ...

Sentimenak eguneroko egoerekin erlazionatzea: musika entzutea, argazkiak ikustea, elikagaiak usaitzea, ...

Gorputz-erritmoa antzematea eta kontrolatzea: arnasketa, logura, esna-aldia, ...

Gorputzaren tentsio-erlaxazioarekin erlazionatutako pertzepzio-esperientziak garatzea.

Entzumen-mailako sentsazioak garatzea eta bereiztea

Sentsazioak bereiztea, beroa gosea, logura, nekea, eta abar, eskola-eguneko jarduerekin edota eguneroko bizitzako egoerekin.

3. Gorputza ezagutzea

Gorputz-atalak ezagutzea: eskua, ilea, ahoa, sudurra, ...

Ezaugarri pertsonal bereizgarriak ezagutzea: sexua, altuera, ilearen kolorea, ...

Nork bere gorputz-irudia bereganatzea: ispiluan, argazkian, ... nork bere gorputza ezagutzea.

Gainontzeko pertsonak ezagutzea: besteen izena, lekua, norberaren gauzak ezagutzea, ...

Nork bere identitate-datuak ezagutzea: izena, adina, ezaugarri pertsonalak, familiako partaideak, helbidea, eta abar.

4. Sentimenduak eta emozioak ezagutzea:

Sentsazio desberdinak bereiztea: atsegina-desatsegina, barrea-negarra, poza-haserrea, ...

Oinarrizko emozioak gertatzen direneko egoerekin erlazionatzea.

5. Manipulazio-trebetasunak bereganatzea eta lanabes komunak zuzen erabiltzea

Jolas-jarduerak garatzeko beharrezkoak diren mugimenduen kontrola eta zehaztasuna bereganatzea: fitxak sartzea, kartak edo fitxak banatzea, piezak biratzea...

Eguneroko ohituretan ekintzak aztertze edo gauzatzeko behar diren mugimenduen kontrola bereganatzea: giltzak irekitzea, kutxak istea, poteak irekitzea, zigiluak jartzea, ...

Aparatu eta objektu txikiak zuzen erabiltzea: arropa zabaltzeko matxardak, botoiak, kremailerak, puntzoia, guraizak, arkatza, grapagailua, ...

6. Denbora eta espazioarekin erlazionatutako bizipen pertsonalak bereganatzea

Lo egiteko ordua, eskolara joateko ordua, jateko ordua, jolasteko ordua, etxera bueltatzeko ordua, eta abar, bereiztea

Oinarrizko bizi-esperientziak gertatzen diren lekua eta unea bereiztea: elikadura, atsedena, loa, garbitasuna, jolasa, ikaskuntza, ...

Oinarrizko bizipenak, aurre hartzen ahalbidetuko dien hormirudi edo sinboloekin erlazionatzea.

Komunikazio-estrategiak garatzea, eguneroko egoeretan autonomia emango diotenak

Norberaren joan-etorriak denbora-aldagaiarekin erlazionatzea: orain, azkar, geldo, bizkor, poliki, laster, ...

Norberaren joan-etorriak espazio-aldagaiarekin erlazionatzea: hemen, han, urruti, gertu, barruan, ...

7. Eguneroko bizitzarekin erlazionatutako erritmoak bereganatzea

Eguneroko bizitzako zeregin eta erritmoetara egokitzea: loa eta esna-aldia; eskola-eguneko erritmoak, etxeko eguneko erritmoak, ...

Giroan izaten diren aldaketak egokitzea eta onartzea

Familiako ohituretara lotutako ekintzak bereiztea eta garatzea

Eskolako ohitura finkatuekin erlazionatutako ekintzak bereiztea eta garatzea

Esperientzia pertsonalera lotutako zereginak edo mandatuak egiteagatik interesa

8. Gorputzaren bidez objektuak ezagutzea

Sentimenen bidez objektuak aztertzea: usaimena, dastamena, entzumena, ,...

Objektuekiko jakinmina garatzea eta objektuak aztertzeagatik eta funtzionamendua ezagutzeagatik interesa azaltzea

Objektuak modu konbentzionaletan eta ez konbentzionaletan erabiltzea eta manipulatzeko: txintxirrina, goilara, zorrozka, sardea, orrazia, bizarra kentzeko makina.

2. Autonomia Pertsonalerako eta Arazoak Konpontzeko Esparrua

Esparruaren helburu orokorrak

- Eguneroko bizitzako jardueretan autonomiaz eta modu askean jardutea
- Nork bere oinarriko premia pertsonalak antzematea, ezagutzea eta erantzun ematea
- Pixkanaka-pixkanaka, eskolako eta eskolaz kanpoko jardueretan autonomia lortzea
- Eguneroko bizitzako ohiko egoerak ekimenez eta autonomiaz konpontzeko estrategiak bereganatzea
- Hurbileko inguruneke testuinguru desberdinetan autonomiaz moldatzen ikastea: eskolan, familian, gizartean, aisialdian, eta abar
- Portaera kontrolatzea eta artikulatzea, gainontzekoak kontuan hartuta
- Inguruneke egoera normalizatueta aktiboki parte hartzea.

Esparruarekin erlazionaturako edukiak

1. Esfinterrak kontrolatzeko azturak bereganatzea

Esfinterrak kontrolatzeko behar diren trebetasunak bereganatzea: noiz joan behar duen jakitea, itxoiten jakitea, komunera bakarrik sartzea, galtzak bakarrik jaistea, komun-ontzia erabiltzea, komuneko papera erabiltzea,...
Esfinterrak kontrolatzeko behar diren komunikazio-trebetasunak garatzea
Komuna modu autonomoan eta askean erabiltzea

2. Garbitasun pertsonalerako azturak bereganatzea

Garbitasunarekin erlazionaturako trebetasunak bereganatzea: eskuak lehortzea, eskuak garbitzea, aurpegia garbitzea, orraztea, zintz egitea, hortzak garbitzea, bainatzea, burua garbitzen laguntzea,
Garbitasun pertsonalerako behar diren lanabesen erabilera funtzionala: eskuoihala, iturria, xaboa, orrazia, zapia, eskuila, bizarra kentzeko makina, ile-lehorgailua, ...

3. Arropa jartzeko eta kentzeko azturak bereganatzea

Arropa kentzeko trebetasunak irakastea: txaketa, zapatak, galtzerdiak, galtzak, gona, jertsea, alkandora, kuleroak, ...
Arropa jartzeko trebetasunak irakastea: txaketa, zapatak, galtzerdiak, galtzak, ...
Arropa jartzeko eta kentzeko behar diren trebetasunak garatzea: kremailerak erabiltzea, botoiak, belkroak, krisketak, korapiloak, begiztak,

4. Elikadura-azturak bereganatzea

Jateko lanabesen erabilera funtzionala: goilara, sardea, ezpain-zapia, mahai-oihala, erretilua,
Jangelaren erabilerari dagokionez, arauak eta jarraibideak bereganatzea: bukatu arte eserita egotea, erretiluan serbitzea, edalontziatik edatea, ...
Elikaduraren oinarriko trebetasunak bereganatzea: mastekatzea, edalontzi batetik edatea, goilaraz jatea, sardea erabiltzea, labanaz moztea, ...

5. Lanerako, portaerarako eta funtzionamendu autonomorako azturak bereganatzea

Arreta-jarrerak garatzea: ikus-harremana ezartzea, egoera esanguratsuetan ikusmena erabiltzea, objektuak bistaz jarraitzea, deitua izatean erantzutea, hotsetan arreta jartzea,
Egin beharreko jardueraren arabera, jarrera egokia hartzea
Eserita pasa dezakeen denbora edo zeregin bakar batean lanean eman dezakeen denbora mailaka gehitzea
Jarduera batean, mailaka, arreta-maila gehitzea

Eguneroko ohituretan nork bere portaera arautzea: txandaren zain egotea, gauzak biltzea eta txukuntzea, materialak zaintzea, ilarak egitea, sarrera-guneak eta irteera-guneak errespetatzea,

Eguneroko ohituretan izaten diren aldaketak ezagutzea eta egokitzea

Agindu errazei erantzutea: izena entzutean erantzutea, etor zaitez, begira nazazu, altxa zaitez, eman, eser zaitez, gorde ezazu, ...

6. Nork bere burua zaintzeko azturak bereganatzea

Gorputza garbitzeko azturak bereganatzea: garbitasuna, bizarra kentzea, nork bere burua zaintzea, ...

Ohiko sendagaiak kontrolatzeko eta hartzeko orduan autonomia garatzea

Ura, sua, objektu zorrotzak (guraizak, labana, ...), sukalde elektrikoa edo gas bidezko sukaldea, eta abar, erabiltzeko trebetasunak garatzea

Eguneroko bizitzan arriskuak izan daitezkeen egoerak ezagutzea

Komunikazio-estrategiak garatzea, larrialdiak ezagutzeko: sirenak, txirrinak, argiak, alarmak, ...

Helduei larrialdi-egoerak jakinarazteko, komunikazio-estrategiak garatzea

Ingurune arrisku-faktoreak ezagutzea: entxufeak, arantzak, sua, kalea zeharkatzea, ...

7. Oinarrizko arazoak konpontzeko trebetasunak garatzea

Nork bere oinarrizko premiak ulertarazteko komunikazio-estrategiak bereganatzea

Ingurune informazioa komunikatzeko eta ulertzeko estrategiak: jangela, komuna, sukaldea, bainu-gela, ...

Ingurunea zaintzeko eta ikastetxeko areto desberdinak garbi izateko trebetasunak bereganatzea: ureztatzea, eskobatzea, ...

8. Etxeko lanak egiteko trebetasunak garatzea

Etxeko lanekin erlazionatutako trebetasunak garatzea: mahaia jartzea eta jasotzea, platerak garbitzea eta lehortzea, labadora betetzea, zurgagailua pasatzea, mikrouhin-labea martxan jartzea, ...

Elikadurarekin erlazionatutako trebetasunak garatzea: sukaldean laguntzea, ogitartekoak prestatzea, cola-cajo prestatzea, ogia gurinaz igurtzitzea, entsalada prestatzea, elikagaiak zuritzea, irabiatzea, nahastea, ...

Etxetresna elektrikoak modu egokian erabiltzea: garbigailua, mikrouhin-labea, zurgagailua, ile-lehorgailua, irratia, TV, izozkailua, ...

9. Aisialdirako inguruneetan autonomia izateko trebetasunak garatzea

Parke eta lorategietan jolasteko elementuak erabiltzea: zabua, bizikleta, hondarra, ura, ...

Espazio itxietan jolasak erabiltzea: damak, partxis, kartak, ...

Aisialdian erabiltzeko eta gozatzeko trebetasun funtzionalak: zinema, kafetegia, jatetxea, menditik ibiltzea, ...

10. Kaleko ingurunean autonomia lortzeko trebetasunak garatzea

Garraioak erabiltzeko trebetasunak

Komunikabideak erabiltzeko trebetasunak: telefonoa, posta,

Hurbileko ingurune dendetan erosketak egiteko trebetasunak

Dirua erabiltzeko trebetasunak

Bideko segurtasuna eta segurtasun pertsonala izateko azturak garatzea

3. Ingurune Fisikoa eta Gizarte Ingurunea ezagutzeko Esparrua

Esparruaren helburu orokorrak

- Hurbileko natur ingurune fisikoa aztertzea eta ezagutzea
- Ingurune objektuak, ezaugarriak eta objektuen funtzioak ezagutzea eta aztertzea
- Ingurunean ohikoak diren gertaerak eta egoerak ezagutzea
- Ingurunea zaintzeko, errespetatzeko eta gozatzeko jarrerak garatzea
- Inguruneko arauak eta baloreak ezagutzea eta portaera arau eta baloreetara artikulatzea
- Gizarte-mundua ulertzeko estrategiak garatzea
- Portaera gainontzekoen jardunetara autoerregulatzea
- Harremanak izateko, gune desberdinetan normalakuntza bultzatuko duten gizarte-trebetasunak eta loturak finkatzea: familian, lanean, aisian, ...
- Ingurune normalizatu batean gainontzekoekin gizarte-harremanak garatzea
- Komunitateko kultur jarduerak ezagutzea eta bertan parte hartzea
- Afektibitateari erantzutea eta elkarlanerako jarrerak garatzea

Esparruarekin erlazioatutako edukiak

1. Ikastetxeko areto desberdinen ezagupen funtzionala

Areto desberdinak aurkitzea: gela, komunak, jolastokia, jangela, sukaldea, lantegia, liburutegia, eta abar

Areto bakoitzeko materialak non dauden jakitea, nola erabiltzen diren eta zein helburu duten, horretarako bertan garatzen diren zereginen argazkiak edo marrazkiak erakutsiz

Areto hauetan mugitzeko espazio-orientazioa bereganatzea

Hurbileko ingurunean portaera autonomoa garatzea, mezuak eramateko, objektuak leku batetik bestera eramateko, ...

Aretoen erabilera funtzionala eta egokia: sukaldean janaria prestatzen jakitea, liburutegian liburu bat bilatzea, jolastokian kulunkatzea, eta abar

2. Objektuak aztertzeke, ezagutzeko eta erabiltzeko interesa garatzea:

Hurbileko objektuak aztertzeagatiko jakinmina eta interesa

Ingurune objektu-mota desberdinak eta euren ezaugarri fisikoak ezagutzea: kolorea, forma, egitura, ezaugarriak, ...

Objektuak aztertzea eta objektuen ezaugarrien eta eguneroko bizitzan duten erabileraren arabera sailkatzea: garbiketarako, jatzeko, animaliekin erlazioatutakoak, jateko, pisatzen dutenak, ...

Gainontzekoekin gizarte-trukean objektuak erabiltzea

Objektuak eskatzeko, baztertzeke, erakusteko, ... komunikazio-estrategiak garatzea

Norberaren ekintzek eta besteen ekintzek objektuetan dituzten eraginak aurreikustea: puskatzea, betetzea, lerrokatzea, estaltzea, ...

Jolasteko objektuak ezagutzea eta erabiltzea

Besteekin jolastean, objektuak ezagutzea eta erabiltzea

Norberaren eta besteen objektuekiko errespetuzko eta zaintzeko azturak garatzea

Familiako inguruneke eta eskola-inguruneke objektuak partekatzeagatiko jarrera positiboak garatzea

Objektuak erabiltzean arrisku-faktoreak baloratzea: objektu ziztatzaileak, zorrotzak, entxufeak, ur beroa, berogailua, labeska, ...

3. Hurbileko natur habitatearen ezagupen funtzionala

Ikastetxeko inguruak erabiltzea: lorategiak, azoka, zinema, antzokia, ...

Ibilaldiak egiteko ibilbideen bidez, natur ingurunea erabiltzeko estrategiak bereganatzea: kalea zeharkatzea, azokatik eta erostetxe handietatik ibiltzea, semaforoa ezagutzea, autobusaren geltokia ezagutzea, autobusera igotzea eta bertatik jaistea, ...

Hurbileko ingurugiroaren funtzionamendu autonomoa bereganatzea

Ingurugiroko klima-aldaketak eta aldaketa fisikoak antzematea: eguzkia, euria, lainoak, haizea, ...

Klima objektuekin edo ekintzekin erlazionatzea: euria ari du, bustitzen gara, aterkia erabiltzen dugu, botak, ...

Eguraldia adierazteko zeinu grafikoak erabiltzea (hormirudiak)

4. Hurbileko paisajearen eskuhartze egokia

Jarduera garatzen deneko espazioarekiko errespetuzko eta zaintzeko azturak bereganatzea: jasotzea, txukuntzea, jangelako arauak errespetatzea, ...

Ikastetxeko, auzoko aretoekiko errespetuzko, garbitzeko eta zaintzeko azturak bereganatzea

Landareak eta animaliak zaintzen ikastea: ureztatzea, inaustea, jorratzea, ongarritzea, ...

Ingurunekeo animali edo landare esanguratsuen izenak ezagutzea

Paisajearen ezaugarri nabarmenenak erlazionatzea eta sailkatzea: kolore bereko, forma bereko loreak, alde nabarrienak, igeri egiten duten animaliak, hegan egiten duten animaliak

5. Ingurunekeo komunikabideen ezagupen eta erabilera funtzionala

Telefonoaren erabilera: zenbakia ikastea, deitzen ikastea, ...

Garraioaren erabilera: autobusa ezagutzea, ohiko ibilbideetan etxetik hurbil dagoen autobusa erabiltzea

Informazio-bitartekoen erabilera funtzionala: telebista, irratia, egunkariak, ...

Bideke segurtasunerako oinarrizko arauak: espaloitik ibiltzea, semaforoak errespetatzea, zebrabideak erabiltzea, ...

6. Ingurunekeo pertsonen ohiko jarduerak bereiztea

Ikastetxeko pertsonen ohiko jarduerak eta egoten direneko lekuak ezagutzea

Pertsonak eta pertsona horiek garatzen dituzten zereginak ezagutzea: kaleak garbitzea, gutunak banatzea, garraioa, ...

Komunitateko zerbitzuak ezagutzea: okindegia, supermerkatua, zapatadenda, eta abar,

Segurtasunarekin eta osasunarekin erlazionatutako zerbitzuak ezagutzea: suhiltzaileak, ospitalea, farmazia, ...

Zerbitzu desberdinak erabiltzeko eta zerbitzuez gozatzeko funtzionamendu autonomoa bereganatzea: txandaka egiten diren jardueretan eta jolasetan txandak hartzea, .

7. Elkarbizitzarako eta gizarte-harremanetarako arauak

Izenaren bidez, ingurunekeo familiako partaideak eta pertsona ezagunak ezagutzea

Espazio ezagunak bertan lan egiten duten pertsonekin erlazionatzea: hormirudiak, marrazkiak, eta abar, erabiliz

Eguneroko egoeretan, keinuen bidez edo hitzez agurtzea

Hitzak edo keinuak erabiltzea, eskatzeko, deitzeko, eskertzeko, ...

Objektuek edo pertsonak euren ohiko espazioan izaten dituzten aldaketak antzematea

Giro-aldaketetara egokitzea eta onartzea, eta egoera desberdinetarako egokia den portaera garatzea

Jarduera batetik bestera pasatzeko itxoin behar den denbora onartzea, pertsona heldua beste zeregin batean edo beste ikasle batzuekin dagoenean

8. Jolas sinbolikoa

Jostailuaren erabilera funtzionala: baloiarekin jolastea, trizikloa,

Errealitatekeo egoerak simulatzea eta imitatzea, jaten ematea, lo egitera joatea, erortzea, sendagilearengana joatea, erostea joatea, telefonoz deitzea, ...

Laguntzarekin fikziozko jolasak egitea, objektuekin eta objekturik gabe

Ekintzak simulatzeko gaitasuna garatzea: edatea, orratzea, jatea, lo egitea, irakurtzea, ...

Objektu errealak ordezkatzuz ekintza sinbolikoak egiteko gaitasuna garatzea

*Sekuentzia errazak eta zailak imitatzea
Txotxongiloekiko interesa garatzea
Txotxongiloak ezagutzea eta egoera egokietan erabiltzea*

9. Jolasa besteekin batera

*Jolaserako arau normalizatuak bereganatzea
Jolastokian taldeko jolasetan parte hartzea: korroan jolastea, trenak, soka, aroak eta makilak, baloia, ...
Gelan, taldeko jolasetan parte hartzea: aulkien jolasa, korroa, mahaiko jokoak, kromoak, antzara-jokoa, partxisa, ...
Animalien ekintzak, jateko ekintzak, txangoak egitea, autobusez joatea, erosketak egitea joatea, eta abar, antzeztea*

10. Komunitateko gizarte-ekintzak eta kultur ekintzak ezagutzea eta bertan parte

hartzea

*Denbora-kontzeptuak ulertzea: gaur, bihar, asteko egunak, jai-egunak, urtaroak, ...
Familiako ekintzak ezagutzea eta bertan parte hartzea: lagun baten urtebetzea, anai baten jaiotza, festak, ...
Eskolako ekintza garrantzitsuetan parte hartzea: oporrak, Gabonak, udaberriko eguna, hostoen eguna, urtebetzeak, lhauteriak, ...
Komunitateko kultur adierazpenetan parte hartzea: ihauteriak, San Blas, Santa Ageda, Olentzero, ...*

4. Komunikazio eta Irudikapen Esparrua

Esparruaren helburu orokorrak

- Asmo jakin batekin komunikazio-jarrerak garatzea, ohiko premien eta egoeren arabera
- Komunikazio-estrategiak garatzea, ahozkoak zein ahozkoak ez direnak, ulertzeko eta ulertua izateko
- Oinarrizko premiak, pentsamenduak eta sentimenduak adieraztea, ahozko hizkuntzaren edo ahozkoa ez den hizkuntzaren bidez
- Hizkuntza desberdinetan esandako mezuak ulertzea
- Irudi grafikoak eta sinboloak ezagutzea eta testuinguruko egoerekin erlazionatzea, komunitzeko modu bat bezala
- Protoelkarrizketetan, elkarrizketa sinpleetan, elkarrizketetan, eta abar, komunikazio-trukeak arautzen dituzten txandak errespetatzea
- Irudikapena eta sinbolizazioa bultzatzea, ahozko hizkuntzaren bidez, gorputz-mintzairaren bidez, hizkuntz plastikoaren bidez, hizkuntz musikalaren bidez, eta hizkuntz matematikoaren bidez

Esparruarekin erlazionatutako edukiak

1. Ahozkoa ez den komunikaziorako jokabide goiztiarrak garatzea

Gauzak seinalatze, begiratzeko, imitatze, objektu bati begira jarraitze, eta abar jarraibideak bereganatzea

Elkarrekintzarako jokabideak garatzea: begizko kontaktua ezartzea, ikus-arreta, kontaktu fisikoa onartzea, abestien mimika jarraitzea, ...

Multzo-arretarako jokabideak bereganatzea

Txandakako eta aurre hartze jolas zirkularrak garratzea: ku-ku, txaloak, Eragiozu,...

Elkarrekintza-jolasak garatzea: kilimak egitea, pilota botatzea, Eragiozu, botatzea eta hartzea

Arreta partekaturako jokabideak bereganatzea: elkarrizketetan txandak errespetatzea, txandakako jarduerak eta jolasak

Eguneroko jardueretan ohiturak bereganatzea, aurre hartze eskemak bultzatzeko

Gerta daitezkeen sentimen-estimuluak (ikus-mailakoak, ukimen-mailakoak, entzumen-mailakoak, eta abar), jarduerekin edo egoerekin erlazionatzea

Aurre hartze eskemak bereganatzea, entzumen- edo ikusmen-seinaleen bidez: sirenak, musika, koloredun txartelak, argiak, ...

2. Pertsonetikiko gizarte-interesa garatzea

Nork bere buruarengan eta besteengan oinarrizko emozioak ezagutzea: haserrea, poza, negarra, barrea, ...

Aurpegiaren espresioak barruko gogo-aldarteekin parekatzea: barrea, pena, poza, ...

lruzur-egoerak ezagutzea

Objektuak ezagutzeko, aztertze eta beraiekin erlazionatzeko gaitasunak garatzea

Eskariak egiteko eta premiak adierazteko trebetasunak garatzea (protoaginduzkoa)

Objektuak partekatzeko eta nahiak adierazteko trebetasunak garatzea (protoezagutarazlea)

3. Komunikaziorako oinarrizko trebetasunak garatzea

Premiak, ekintzak eta gertaerak, ahozkoa ez den komunikazio-sistemaren bidez adieraztea: zeinuen mintzaira, guztizko komunikazioa, piktogramak, ...

Komunikaziorako sistema alternatiboak edota argigarriak erabiltzerakoan trebetasunak bereganatzea

Ahozkoak ez diren produkzio funtzionalak, oinarrizko premiak, nahiak, gertaerak komunikatzea,....,

Ahozkoa eta ahozkoa ez den komunikazioaren bidez premiak, sentimenduak, nahiak, eta gertaerak adieraztea

Sinbolo piktografikoen, argazkien, eta abar, bidez, esaldi errazak egitea

Gizarte-arauak (agurrak, onarpena, ...) modu funtzionalean erabiltzea

*Pertsonak, animaliak, objektuak eta ekintzak ahoz edo keinuen bidez ezagutzea
BAI eta EZ funtzionalki erabiltzea, zeinuen mintzairaren bidez, seinaleen bidez, ...*

4. Hizkuntza ulertzeko trebetasunak garatzea

*Pertsona desberdinen keinuak, adierazpenak, eta abar, ulertzea eta bereiztea
Ikus-seinaleen, argazkien, marrazkien bidez, mezuak ulertzea eta bereiztea,
Objektu, ekintza eta egoera esanguratsuak eta egunerokoak ezagutzea
Objektuei, pertsonari, ekintzei eta sekuentziei dagozkien irudiak ezagutzea
Jarraibide bakunak, eta sekuentzia laburretan, ulertzea eta jarraitzea*

5. Ahozko adierazpen funtzionalerako trebetasunak garatzea

*Artikulazio-gaitasuna eta arnasketa-gaitasuna garatzea
Mugimen-trebetasunak, aho-aurpegiaren trebetasunak, onomatopeien bidezko
adierazpena, garatzea
Soinuak, silabak, hitzak, eta abar imitatzea, sortzen direnoko testuinguruarekin
erlazionatuta
Ahozko gizarte-arauen erabilera funtzionala (agurrak, onarpena, ...)
Ahozko hizkuntzaren bidez, pertsonak, animaliak, objektuak eta ekintzak ezagutzea
Ahozko hizkuntzaren bidez, BAI eta EZ modu funtzionalean erabiltzea
Oinarrizko premiak adieraztea, laguntza eskatzea, nahiak adieraztea, sentimenduak
adieraztea, informazioa igortzea, eta abar
Esaldi bakunak erabiltzea (subjektua + aditza + objektua), egoera egokian, zentzu
funtzionalean
Esaldi bakunak, baieztokak, ezeztokak, galderazkoak, funtzionalki erabiltzea*

6. Irakurmena eta idazmena lantzen hasteko, kode grafikoak edo idatzizkoak bereganatzea

*Komunikatzeko, informazioa emateko eta gozatzeko bitarteko bezala irudiak eta
sinboloak ezagutzea eta erabiltzea
Sinbolo, marrazki eta piktograma bakunak eguneroko objektu edo egoerekin
erlazionatzea
Informazio-bitarteko bezala, liburuak, marrazkiak, ipuinak, komikiak, eta abar,
erabiltzea
Objektuak, pertsonak eta ekintzak ezagutzeko eta bereizteko irudiak, argazkiak, eta
abar, erabiltzea
Gertakari baten kontaketa, mezu edo ipuin bat, eta abar, arretaz jarraitzea
Mezu bakunak igortzeko, piktograma edo sinbolo bakunak erabiltzea
Ibili ohi diren ingurunean, hitz esanguratsuak eta funtzionalak bereiztea
Adierazpide bezala, piktogramak, hitzak edo esaldiak erabiltzea*

7. Eguneroko bizitzan, prozedura logiko eta matematiko funtzionalak bereganatzea

*Espazioa antolatzea eta orientatzea (etxea, eskola, auzotokia, ...)
Denbora-zikloak eta -ohiturak bereganatzea (jateko orduak, asteke egunak, ...)
Objektuak sailkatzea, ezaugarri jakin batzuen arabera
Forma geometrikoak bereiztea, erlazionatzea eta sailkatzea
Oinarrizko kontzeptu matematikoak ezagutzea: tamainak, lodierak, ezaugarriak, ...,
Zenbakiak eta zifrak ezagutzea
Ordularia eta neurtzeko beste zenbait aparatua erabiltzea (balantzak, pisua,...)
Erosketetan eta aisialdiko jardueretan dirua erabiltzea
Kalkulagailua, ordenadorea, ordulari digitala, eta abar, erosteko, aisialdiko, lantegiko,
eta abar, egoera funtzionaletan erabiltzea
Neurtzeko jarduera bakunak eta oinarrizko operazio matematikoak ebaztea
Grafikoen, mapen, eskemen, eta abar, bidez, informazioa interpretatzea*

8. Adierazpen plastikoaren garapena

*Adierazpen plastikorako materialak aztertzea eta erabiltzea: bustina, plastilina,
tenpera, argizarria, ...
Adierazpen grafikoak garatzea: trazua orientatzea, grafismo ez-figuratiboa, grafismo
figuratiboa, ...
Manipulazio-teknikak eta -trebetasunak bereganatzea: itsastea, urratzea, zimurtzea,...
Oinarrizko teknika grafikoak bereganatzea: marrazketa, pintura, puntzonatzea,
modelatua, collage, ...
Kolore primarioak, kolore osagarriak, eta abar, antzematea, bereiztea eta
erlazionatzea*

*Material plastikoak txukun gordetzeko eta zaintzeko azturak bereganatzea
Norberaren produkzio plastikoekiko, baita besteenekiko ere, errespetuzko eta
gozatzeko jarrerak bereganatzea*

9. Adierazpen musikala garatzea

Hotsak, soinuak, musika, eta abar antzematea, bereiztea eta erlazionatzea

Inguruneko soinuak ezagutzea

Egunero erabiltzen diren objektuen soinu-ezaugarriak ezagutzea

Naturako soinuak ezagutzea eta errepikatzea.

Musika-tresna desberdinen soinuak bereiztea

*Entzumen-seinaleak eguneroko gertaerekin erlazionatzea, gertaerak aurreikusten
ahalbidetuko dutenak*

Erritmo- eta musika-oihartzunak errepikatzea

*Baterako arreta jartzeko jarraibideak bereganatzea, baita erritmoak errepikatzeko
txandak ere*

5. Lanean hasi aurreko Esparrua - Lan-esparrua - Eskuzkoa

Esparruaren helburu orokorrak

- Helduarora igarotzea ahalbidetuko duten azturak eta trebetasunak garatzea
- Aisialdiko, familiako, lan-egoeretan, bizitza aktiboan parte hartzea ahalbidetzea, ikasle bakoitzaren gaitasunen arabera
- Gizarte-trebetasunak bereganatzea, beste pertsona batzuekin erlazionatzeko eta aisialdian eta lanean hasi aurreko egoeretan taldeko jardueretan parte hartzeko
- Zeregin, egiteko edo lanbide desberdinetan oinarritzko trebetasun eta gaitasun komunak bereganatzea
- Lanean hasi aurreko esparruan erabiltzen diren lanabesak eta materialak erabiltzeko, oinarritzko trebetasunak bereganatzea
- Zeregina egiteko, baita zeregin bakunak antolatzeko ere, jarraibideak jarraitzen ahalbidetuko diguten gaitasunak garatzea
- Lan-jardueretan edo lanean hasi aurreko jardueretan jarduteko portaera-ereduak bereganatzea

Esparruarekin erlazionatutako edukiak

1. Zeregin edo lan bat gauzatzeko orduan parte hartzen duten aztura pertsonalak

Puntueltasunarekin, txukuntasunarekin, errendimenduarekin, irmotasunarekin, eta abar, erlazionatutako azturak. Lanerako materialak eta aretoak zaintzeko eta errespetatzeko jarrera garatzea

Materialak eta lanabesak sailkatzeko estrategiak

Lanerako lanabesei dagozkien lekuak ezagutzea eta materialak biltzeko azturak bereganatzea

Zereginak bukatzea

Ordutegiak, egutegiak eta lanerako lekuak ezagutzea

Lanera joan-etorriak egitea ahalbidetuko duten trebetasunak

2. Lan-esparruan sartzeko gizarte-trebetasunak

Zeregin bat garatzean, arduradunaren aginduak errespetatzea

Zeregina egiten den bitartean leku batean egotea

Egoera desberdinetan, komunikazio-estrategia funtzionalak erabiltzea: bukatu dut, behar dut, falta da, ...

Komunitateko lanerako zentroen, lanerako lantegien, aisialdirako zentroen, eta abar, aretoak ezagutzea

Komunitateko ingurunean erabiltzen diren sinboloak ezagutzea: autobusa, metroa, taxi en geltokia, hormirudi adierazgarriak, ...

Laguntza bilatzeko, bukatu dugula adierazteko, galdetzeko, onarpena azaltzeko, eta abar, trebetasunak

Ikaslearentzat interesgarriak diren gauzak edo jarduerak aukeratzea ahalbidetuko duten trebetasunak

Talde-lana egiteko eta elkarlanerako trebetasunak bereganatzea

3. Zeregin desberdinak egiteko oinarritzko lanabesak ezagutzea eta erabiltzea

Oinarritzko lanabesak bereiztea eta izenaren, argazkiaren edo marrazkiaren bidez ezagutzea

Lanabes desberdinei modu egokian eustea

Lanabes bakun baten elementuak edo pieza desberdinak aldatzen, ordezkutzen, eta abar, ikastea

Aparatu mekanikoak edo elektrikoak martxan jartzea

Oinarrizko lanabes desberdinak modu egokian erabiltzea: puntzoia, grapagailua, eskuzko lixagailua, mailua, guraizeak, zerra, bihurkina, aliketak, ...

Zeregin bakun bat egiteko lanabes egokia aukeratzea

4. Lanean hasi aurreko oinarrizko teknikak, eskuzko oinarrizko teknikak edo lanerako oinarrizko teknikak bereganatzea

Lanean hasi aurretik jarduera desberdinetan oinarrizko teknika komunak: lixatzea, arrabotaz leuntzea, argizaria ematea, barnizatzea, akabera ematea, moztea, tolestea, zulatzea, batzea, limatzea, kolpatzea, nahastea, karraskatzea, ...

Ezagutza-prozesuetan eskuhartzea eragiten duten oinarrizko teknikak: sailkatzea, baieztatzea, antolatzea, zenbatzea, pisatzea, ...

5. Lanean hasi aurreko jardunerako edo lan-jardunerako trebetasun akademiko funtzionalak

Objektuak sailkatzea, erabileraren, formaren, tamainaren, kolorearen, eta abar, arabera

Formaren bidez zenbatzeko, sailkatzeko eta erkatzeko trebetasunak

Objektuak formaren, tamainaren, kopuruaren, eta abar, bidez erkatzeko trebetasunak Hautatzeko, aukeratzeko, baztertzeko, bereizteko eta ezagutzeko estrategiak

Irakurmen eta idazmen funtzionala: bere izena, deiturak, helbidea, adina, jaiotza-data, telefono zenbakia, zerbitzu publikoak ezagutzea, garraio bideen ibilbidea, ...

Ordularia, telefonoa, kalkulagailua, ordenadorea, eta abar erabiltzea

Kalkuluak egiteko, pisatzeko, neurtzeko, eta abar, oinarrizko operazioak ebaztea

Eguneroko bizitzarekin erlazionatutako arazoak konpontzea

Inprimaki bakunak, mapak, marrazkidun edo sinbolodun eskemak, zereginak egiteko jarraibideak, interpretatzea

6. Zereginak egitea

Zereginak egiteko arreta jartzeko, kontzentratzeko, eta abar, azturak bereganatzea.

Material desberdinak multzokatzeko estrategiak

Zeregin bat egiteko orduan, jarraibide partzialak jarraitzea

Jarraibideekin zeregin bat egitea, lanabes egokiak erabiliz

Oinarrizko zeregin bat egiteko, lanabes egokia aukeratzea

Objektuak muntatzea, pieza desberdinak konbinatuz

Objektuak desmuntatzea, pieza desberdinak bereiziz

Zeregin bakun bat egiteko jarraitu behar diren urratsak antolatzea

7. Nork bere burua zaintzeko azturak

Arriskua eragin dezaketen lanabesak eta egoerak ezagutzea, baita istripuak saihesteko moduak ezagutzea ere

Gaixotasun arruntenak eta prebentzio-moduak ezagutzea

Lehen laguntzak ezagutzea

Zaintzearekin eta osasunarekin erlazionatutako hormirudiak ezagutzea: ez erre, ospitalea, larrialdietarako irteera, farmazia, ...

4. FASEA: Irizpide metodologikoak

Alderdi metodologikoei dagokienez, gogoetarako eta akordioak lortzeko gida proposatzen da. Irakasle-taldeak zentzu honetan egin beharreko gogoeta bideratzeko zenbait erreferentzia azaltzen dira, baita hartzen diren erabaki-moten adibideak, eta ICPan eta Gelako Programazioan azaltzeko modua ere.

8. proposamena: Irizpide metodologikoak lantzeko gida

Gogoetarako erreferentziak



Aukera metodologiko orokorrak

Komunikazio eta Gizarte Trebetasunak irakasteko aukera metodologikoak

- Esparru honetako hezkuntza-premia bereziei erreferentzia
- Hitz egiteko gaitasuna duten eta ez duten ikasleak; komunikazio-asmoa duten eta komunikazio-asmorik ez duten ikasleak
- Mugimen-mailako mugak, gaitasun-mailako mugak, eta abar, dituzten ikasleak
- Proposatzen diren sistema alternatiboak edo argigarriak: irudikapenezkoak, piktografikoak, ...
- Laguntza teknikoak erabiltzea: teklatura, seinale argidunak, ...
- Komunikaziorako ikus-laguntzak erabiltzea: argazkiak, sinboloak, piktogramak, ...



Jokabide disruptiboak aurreikusteko aukera metodologikoak

- Jokabide-mailako arazoaren eta komunikazio-gaitasunaren arteko erlazioak
- Komunikazio- eta gizarte-trebetasunak areagotzeko estrategiak
- Irakaskuntza- eta ikaskuntza-ingurunea egituratzea
- Jokabidea ebaluatzeko teknikak
- Ikaslearen erantzuna hobetzen duten ingurune baldintzak



Ikaskuntza-ingurune naturalak erabiltzeko aukera metodologikoak

- Ikaskuntzaren zentzu ekologikoa
- Ikastetxetik gertu dauden ingurune normalizatuak, ikasleen ikaskuntzarako erabil daitezkeenak
- Natur inguruneak: ikastetxea, kalea, aisialdia, etxeko espazioa, eta abar, erabiliko direnak
- Inguru jakinetan ikaskuntza programatzea
- Ikastetxeko espazioen egituraketa eta diseinua
- Ikastetxean egindako eta positiboki baloratutako esperientziak eta proiektuak
- Aldaketak behar dituzten alderdiak



I
C
P
a
n

E
R
A
B
A
K
I
A
K

ICPan erabakiak

• Haur E-tapan, Komunikaziorako sistema argigarrien bidez ekingo zaio irakaskuntzari, hitz egiteko gaitasunik ez duten ikasleengan komunikazio-gaitasunak garatzeko. Oinarrian honako hau erabiliko da: Zeinuen bidezko metodoa: B. Schaeffer-en Komunikazio Osoa . Ikus-seinaleak erabiltzea . Ikasleen mugimen-arazoan arabera, laguntza teknikoak

• Ikastetxean, ikus-seinaleak erabiliko dira ingurunea ulertzea errazago izateko. Espazio komunetan argazkiak, marrazkiak edo sinboloak erabiliko dira: JANGELA, KOMUNAK, GELAK, eta ikastetxeko beste zenbait areto

• JANGELAKO ingurunea, testuinguruan bertan ikaskuntzak berariaz irakasteko antolatuko da; ikaskuntzak honako hauek izango dira: Autonomia, Komunikazio Trebetasunak, zereginak Antolatzea eta zereginak Egitea

• Jokabide-mailako arazoak, ikastetxetik bertatik aztertuko dira. Ikastetxearen helburua, arazoei aurre hartzea da, horretarako: . jokabide horiek betetzen duten funtzioa ebaluatzea . komunikazio-estrategiak garatzea . azaltzen direneko testuingurua neurri handi batean aldatzea

• Beste zenbait

Gelako Programazioan eraginak

• gelako ohiturak finkatuko dira
• eguneko eta asteko jardueretarako egutegiak erabiltzea, ikus-seinale ulergarriekin: argazkiak, marrazkiak, eta abar
• agenda pertsonalak egitea, pertsona, elikagai eta objektu ohikoenen argazki eta marrazkiekin, komunikazio-funtzioak garatzeko: ematea, eskatzea, bilatzea, ...
• ikasle batekin kontzeptuen taula erabiltzea

• eguneroko jarduerekin ikus-programa erabiltzea, gelan, jangelan, ...
• gelako, komunitako, jangelako giroa objektuen, pertsonen eta jardueren ikus-seinaleekin diseinatuko dira, eta ikasleei horiek ulertzen irakatsiko zaie

• jangela ezagutzeko eta erabiltzeko ibilbideak egingo dira: erretiluan zerbitzatzea, mahaia jasotzea, ...
• jangelako giroa diseinatzea, objektuen, pertsonen eta ibilbideen ikus-seinaleekin, eta ikasleei horiek ulertzen irakatsiko zaie.

• jokabide disruptiboak azaltzen direnean, ikasle bakoitzarentzat banakako programa egingo da, behar dituzten errefortzu eta laguntzekin, denborak, jarduera, eta abar, egokituz

• jokabidea eta azaltzen deneko testuingurua ebaluatzeko, zikloan landutako erregistroa erabili.

• eta abar

9. proposamena: Ikaskuntzaren programazioa ingurune esanguratsuetan.

Ingurune arruntei, ikastetxeko espazioei eta giro naturalei eta hurbileko inguruneari buruzko erreferentzia asko egin izan da, bertan moldatzeko behar diren gaitasunak eta trebetasunak ingurune horietan bertan ikasteko. Lehendik egindako proposamenetan adierazten diren edukiak, hezkuntza-jarduera modu naturalean garatzen deneko ingurune edo azpigiro desberdinetan beregana daitezke (jangelan elikatzeke trebetasunak, komunean garbitzeko azturak, eta abar).

Eredu hau azken muturreraino eramanez, ikaskuntza-ingurune esanguratsuetan guztiz antolatutako curriculum-proiektua lor daiteke. Praktikan, eredu hau aukeratzeak ez du adierazten giro bakoitzean jarduera osoa garatu behar denik; proposamen mistoak aukera daitezke, oso praktikoak izan daitezkeenak, non ingurune desberdinak gelako espazioarekin konbinatzen diren, eta horrela programazioan isladatu. Adibide bezala, ikastetxeko azpi-inguruneak aztertzea eta ikaskuntza bertan egiteko esanguratsuenak aukeratzea proposatzen da; horretarako, abiapuntu bezala ikasle bakoitzarentzat trebetasun jakin batzuk bereganatzeak duten interesa hartuz, baita ikastetxeak berak eskaintzen dituen baldintzak ere. Bigarren proposamen batek, ingurune jakin batean modu autonomoan eta eraginkorrean moldatzeko behar diren gaitasunak eta trebetasunak azaltzen ditu. Azkenik, ikaskuntzarako behar diren baldintzak diseinatzen dira: espazioa eta denbora egituratzea, erabiliko diren materialak, ingurune zehatza errazago ulertzeko lanabesak, ikasle bakoitzak behar dituen laguntzak, ikaskuntzan bitartekari bezala dauden pertsonak, eta abar.

Natur inguruneetan ikaskuntzen programazioa, ondorengo urratsak jarraituz egiten da:

- 1. Natur ingurune edo azpi-ingurune esanguratsuenak aztertzea**
- 2. Azpi-ingurune esanguratsuenak izateagatik programatuko direnak aukeratzea**
- 3. Aipatu ingurunean egingo diren jarduerak eta behar diren laguntzak programatzea**

Natur inguruneetan curriculum-programazioa (Adibideak)

1. Ikasleen ikaskuntzarako ingurune esanguratsuenak aztertzea.

Hipotetikoki, esanguratsuen diren eta garatzeko aukera gehien eskaintzen dituzten natur testuinguruak eta ohiko inguruneak honako hauek dira:

Gela	Ikastetxeko aretoak	Kalea
<ul style="list-style-type: none">• Egunaren hasierako zona: denboraren egutegia, gaur egingo duguna, ...,• Mahai gaineko lana• Jolasteko txokoa: eraikuntzak, simulazio-jolasak eta jolas sinbolikoak, kotxeak, panpinak, sukaldea, eta abar• Lana alfonbraren gainean• Azturaren zona: komuna, esekigailua, eta abar• Komunikazio-zona: mezuak, piktogramak, egutegia, argazkiak, eta abar• Musika-zona: musika-tresnak, kasetea, sentimen-mailako, entzumen-mailako jarduerak, eta abar• Landareen, animalien zona, ...• Eta abar.	<ul style="list-style-type: none">• Jangela• Sukaldea• Jolastokia• Komuna: W.C.• Komuna: bainu-gela, dutxa• Liburutegia• Psiko-mugimenaren gela• Gimnasioa• Bideo-gela• Lantegiak• Korridoreak• Bulegoak,• Eta abar.	<ul style="list-style-type: none">• Ikastetxearen hurbileko ingurunea• Parkea - lorategia• Igerilekua• Garraioa• Kafetegia• Supermerkatua• Zinema• Beste ikastetxe bat• Informazio-bulegoak• Eta abar.

2. Programatu behar den esparrua aukeratzea, horretarako ikaslearen ikaskuntzarako esanguratsuen izango den esparrua aukeratzuz. Aldi berean, esparru horretan lan egiteko ikastetxearen baldintza egokienak zeintzuk diren kontuan hartuko dira.

Proposamena:

JANGELA esparruan ikaskuntzen programazioa aukeratu behar da.

Testuinguru esanguratsua da, ikasleak normalean erabiltzen duen testuingurua den neurrian; testuinguru honetan moldatu ahal izateko, oinarrizko zenbait trebetasun bereganatu behar dituzte ikasleek; gizarte-elkarrekintzarako aukera desberdinak eskaintzen ditu, eta ikasitako trebetasunak beste testuinguru batzuetan erabil daitezke, gizarteratzea errazten dutenak.

3. JANGELA esparruan garatuko diren gaitasunak eta trebetasunak programatzea

Ikasleek jangelan moldatzeko behar dituzten trebetasunak, laguntza-motak, espazioaren egokitzapena, jangelan erabiliko diren komunikazio-laguntzak, eta abar, kontuan hartu behar dira. Gainera, irakasleen eta pertsonal arduradunaren, zaintzaileen, pertsonal laguntzailearen, eta abar, eskuhartzea eta bitartekaritza aurreikus daitezke.

JANGELA esparruaren programazioa: Garatu behar diren edukiak

1. Identitate Pertsonala eta Gorputz Garapena.

- Gose-sentsazioa eta asetasun-sentsazioa ezagutzea
- Usaimena eta dastamena garatzea
- Gorputzaren erritmoa eta afektibitate-erritmoa jangelan finkatutako ohituretara egokitzea
- Sentsazio pertsonalak (usaimena, dastamena, gosea, asetasuna, ...), jangelako ordutegiarekin erlazionatzea
- Jangelaren espazioaren barruan autonomiaz mugitzea
- Jangelan moldatu ahal izateko, beharrezkoa den gorputz-koordinazioa eta -kontrola bereganatzea
- "Bazkariaren" lanabesak erabiltzea
- "Bazkariaren" esperientzia gertatzen deneko denbora eta lekua bereiztea
- Jangelako berezko bizipenak, bazkariaren ordutegiei aurre hartzea ahalbidetuko dioten giltzekin erlazionatzea

2. Autonomia Pertsonala eta Arazoak Konpontzea

- Elikadura-azturak bereganatzea
- Elikadurarako oinarrizko trebetasunak bereganatzea: solidoak mastekatzea, edalontzi batetik edatea, ...
- Jateko lanabesak funtzionalki erabiltzea: goilara, sardea, ezpain-zapia, mahai-oihala, ...
- Jangelako azturak, jarraibideak eta arauak bereganatzea: erretiluan zerbitzatzea, ez altxatzea, jasotzea, ...
- Garbitasun-trebetasunak garatzea: eskuak garbitzea, lehortzea, hortzak garbitzea, ...
- Ondorengo erabilera hauetarako behar diren trebetasunak garatzea: ura, janaria, erretiluak erabiltzea, ...
- Nork bere portaera arautzea: txandaren zain egotea, jatean eserita egotea, mahaia jasotzea, ...
- Elikadurarekin erlazionatutako trebetasunak garatzea: ogitartekoa prestatzea, ogia ebakitzea, likidoak irabiatzea, ...
- Ikus-erreferentziak (argazkiak, marrazkiak, ...) dituzten agenden bidez menua aukeratzea.

3. Mundu Fisikoa ezagutzea

- Ikastetxeko aretoak funtzionalki ezagutzea: jangela, sukaldea, komuna, ...
- Areto hauetatik ibiltzeko behar den espazio-orientazioa bereganatzea
- Jangelako materialen kokapena ezagutzea: platerak, erretiluak, edalontziak, ...
- Jangelaren inguruko pertsonak ezagutzea: zaintzailea, sukaldaria, mahai bereko ikasleak, ...
- Jangelari buruzko ikus-seinale eta -adierazpenak daudeneko lekuak ezagutzea
- Jangelako arrisku-elementuak ezagutzea: entxufeak, sua, lanabes zorrotzak, ...

- Ikus-erreferentziak dituzten agenden bidez elikagaiak ezagutzea eta bereiztea

4. Gizarte Ingurunea ezagutzea

- Jangelako espazioa bertan lan egiten duten pertsonekin erlazionatzea
- Jangelaren testuinguruan, keinuen, hitzen, eta abarren bidez, agurtzen, eskerrak ematen, eta abar, ikastea
- Komunikazio-estrategiak garatzea, eskatzeko, bukatu duela esateko, gustatzen ez zaiola esateko, ...
- Aurreikusitako ohituretan aldaketak iragartzen dituzten mezuak ezagutzea eta ulertzea
- Pixkanaka-pixkanaka giroan izaten diren aldaketetara egokitzea eta modu egokian portatzea
- Gainontzekoekin jaten ahalbidetuko duten elikadura-jarraibideak bereganatzea
- Ikus-erreferentziak dituzten agendetan, aurretik eguneko menua ezagutzea: jan dena, jango dena, ...

5. Komunikazioa eta Irudikapena

- Jangelan ezarritako ohiturak indartzea, aurre hartzeko eskemak errazteko
- Sentimen-estimuluak (ikus-mailakoak, entzumen-mailakoak, ...), jangelako jarduerarekin erlazionatzea
- Eskariak egiteko, premiak adierazteko, eta abar, trebetasunak garatzea, komunikazio-mailakoak, keinuen bidezkoak, ahozkoak, ...
- Janariko elikagaiak aukeratzeko ikus-mailako eta keinuen bidezko giltzak erabiltzea
- Jangelako berezko objektuei eta ekintzei dagozkien irudiak ezagutzea
- Sinboloak, marrazkiak, piktogramak, eta abar, jangelako egoera jakinekin erlazionatzea
- Jangelan, erabilgarriak diren jarraibide errazak ulertzea eta jarraitzea
- BAI eta EZ modu funtzionalean erabiltzea, ahozko hizkuntzaren edo keinuen bidez
- Jangelan moldatu ahal izateko agenda grafikoak erabiltzea

JANGELA ingurunearen programazioa: Ingurunearen antolamendua

1. Jangelako zereginen azterketa

- Ikastetxeko ikasleei jangelan eskatzen zaiena aztertzea
- Jangelan moldatu ahal izateko behar diren gaitasunak
- Ikaslea jangela esparruan behatzea
- Gainontzekoekin partekatu dezakeena behatzea
- Ikasleari eta taldeari berriaz irakatsi behar zaizkion gaitasunak aztertzea

Adibidea:

- Janaria modu autonomoan zerbitzatzeko erretilua erabiltzea
- 6 ikasleko mahaian leku finkoa izatea
- Modu autonomoan jatea
- Erretilua itzultzea
- Txandaka, mahaia jartzea eta garbitzea

2. Ikasleek partekatzen dituzten jarduerak definitzea

- 6 ikasleko mahaian leku finkoa partekatzea
- Modu autonomoan jatea
- Jangelatik modu autonomoan mugitzea
- Erretilua erabiltzea laguntzaz zerbitzatzeko eta erretilua itzultzea

3. Jangelako espazioa diseinatzea

- Erretiluak eta jateko beste lanabesak daudeneko lekua argazkien edo marrazkien bidez adieraztea
- Jangelan jarraitu behar den ibilbidea ikus-giltzen bidez adieraztea
- Ikaslearen mahaian dagoen argazkia edo marrazkia
- Ikasle-kopuru mugatua
- Soinu-maila, argi-maila, eta abar, kontrolatzea
- Ikasleen erregimen bereziak, bitartekaritza, eta abar, adierazten dituzten hormirudiak
- Beste zenbait

4. Beharrezkoak izango diren laguntzak finkatzea

- Helduaren laguntza pertsonala, edota gaitasun handiagoa duen beste ikasle baten laguntza
- Mugimen-mailako zailtasun larriak dauden kasuetan, laguntza fisikoa
- Material egokituak: labainkadakontrako mahai-oihala, mahai-tresna bereziak, ...
- Jangelako ibilbidea jarraitzeko, agenda pertsonalizatuak
- Mahaiko agendak

5. Ikasleari berariaz irakatsi beharreko jardueren programazioa

- Trebetasun zehatzak irakastea: moztea, janaria sardearekin hartzea, ...
- Marrazkia edo giltza, egin behar dueneko objektuarekin edo ekintzarekin erlazionatzea
- Erretilua erabiltzeko trebetasunak entrenatzea
- Janaria zerbitzatzeko jangelan zehar bete beharreko ibilbidea erakustea
- Komunikazio-trebetasunen erabileran entrenatzea: bukatu duela esateko, gehiago nahi duela, lanabesen bat behar duela esateko, eta abar.

6. Ikastetxeko irakasleei, irakasleak ez diren pertsonalari eta familiei zuzendutako jarduerak programatzea

- Helburuei eta egingo diren jarduerari buruzko informazioa
- Erabiltzen diren ikus-laguntzei buruzko informazioa, laguntza horiek ezagutzea eta erabiltzea: argazkiak, grafikoak, piktogramak eta agendak
- Ikasleari zuzentzeko moduak ezagutzea eta erabiltzea: hitzak, keinuak, marrazkiak, ...
- Inguruko ikastetxeetako ikasleekin alderantzizko integrazioa lortzeko programak eta jarduerak
- Beste zenbait profesionalentzako informazioa (bolondresak, praktiketan dagoen pertsonala, ...)

5. FASEA: Antolamenduari buruzko erabakiak

10. proposamena: Antolamendurako irizpideak lantzeko gida.

Gogoetarako erreferentziak

Ikasleak multzokatzeko irizpideak

- Adinaren irizpideak
- Ikasleek eskolatzean zehar dituzten elkarrekintzarako premiak
- Ikasleek banakako arreta jasotzeko premiak
- Beste adin, maila, ingurune eta abarretako ikasleekin partekatze jarduerak
- Jarduera adin eta maila desberdinen artean garatzen diren inguruneak
- Denbora baterako ikastetxe arruntean eskolatzeko diren ikasleak

Baliabide pertsonalak antolatzeko irizpideak

- Funtzionamendu-mailako irizpideak
- Pertsonal laguntzailearen, logopedaren, eta abar, arreta-mailako lehentasunak
- Ikasleen banakako eta taldeko arreta antolatzeko irizpideak

Materialak eta baliabideak antolatzeko irizpideak

- Arlo desberdinetako lanerako baliabide didaktikoak
- Laguntza teknikoak eta informatikoak
- Baliabide materialak antolatzeko irizpideak

Espazioa eta denbora antolatzeko irizpideak

- Ikastetxeko erabilera komuneko espazioak antolatzeko irizpideak: atsedeen hartzeko, jolasteko, esfinterrak kontrolatzeko, lanerako zonak, eta abar
- Ikastetxeko lanerako zonak antolatzea
- Denbora antolatzeko irizpideak: ordutegiak, egutegia, ...

Koordinaziorako irizpideak


- Irakasleen koordinaziorako uneak: etapen artean, zikloak, lantegiak, eta abar
- Zuzendaritza-taldearen koordinazioa
- Ikasleen jarraipena egiteko uneak
- Familiei informazioa emateko eta beraiekin koordinazioa lortzeko bideak
- Beste zenbait zerbitzuekin koordinatzea



I
C
P
a
n

E
R
A
B
A
K
I
A
K

(Adibidea)



6. FASEA: Ebaluazioari buruzko erabakiak

11. proposamena: Ebaluazio-irizpideak lantzeko gida

Gogoetarako erreferentziak

Ikastetxean ebaluazioak izango duen zentzua definitzea

- Prozesuaren ebaluaziorako
- Ikasleen hezkuntzarako hobekuntzak gehitzeko
- Helburu eta eduki partzialetan oinarritutako ebaluazioa
- Lortu nahi diren ikaskuntzetan, akatsen tratamenduan, eta abar oinarritutako ebaluazioa

Etapetan eta zikloetan, etapa edo zikloa igarotzeko irizpideak eta ebaluazio-irizpideak zehaztea

Ebaluaziorako teknikak eta lanabesak definitzea

- Curriculumaren alderdi desberdinak ebaluatzeko erabiliko diren teknikak
- Hezkuntza-etapa edo -ziklo bakoitzean erabiliko diren lanabesak
- Ikastetxeko egoera jakin batzuk ebaluatzeko landu beharreko edo egokitu beharreko lanabesak

Ebaluaziorako uneak

- Ikasleen hezkuntza-premia berezien diagnostikoa
- Hasierako ebaluazioa: ikasturtea hastean, zikloa hastean, ...
- Prozesuan zehar ebaluazioa: nola ikasten duen, ikasle bakoitzak behar dituen laguntzak, ...
- Amaierako ebaluazioa: ikasturtea amaitzean, zikloa amaitzean, ...
- Ikasleen jarraipena

Ebaluazio-txostenak

- Etapa edo ziklo bakoitzean, ebaluazio-txostenen edukia
- Familiei informazioa emateko ereduak: nola egingo den, zein unetan, ...
- Ikasleei informazioa emateko ereduak
- Ikaslearen espedientea: Eskolaketa Liburua, informazioa biltzea, ...

Ebaluazioaren arduradunak

- Ebaluazio-bilkurak
- Tutoreak eta Ikastetxeko beste zenbait profesionalek dituzten funtzioak.


Irakaskuntza-prozesuaren eta irakas-praktikaren ebaluazioa

- Gelako plangintza aztertzea eta hezkuntza-baliabideak erabiltzea
- Eskola-elkarteko elementuen arteko koordinazioa berrikustea
- Ikastetxearen Curriculum Proiektua berrikustea

I
C
P
A
N

E
R
A
B
A
K
I
A
K

(Adibidea)



LEGEGINTZA-MAILAKO ERREFERENTZIAK

Apirilaren 7ko 13/1982 Legea, minusbaliatuen gizarteratzeari buruzkoa (BOE 1982-4-30)

Hezkuntza Departamentuaren 9/1982 AGINDUA, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Berezia arautzeko (EHAA)

Marxoaren 6ko 334/1985 ERREGE DEKRETUA, Hezkuntza bereziaren antolamenduari buruzkoa (BOE 1985-3-16)

Urriaren 3ko 1/1990 LEGE ORGANIKOA, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzkoa (BOE 1990-10-4)

1992ko abuztuaren 11ko DEKRETUA, Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntzako curriculuma ezartzen duena (EHAA)

1992ko abuztuaren 11ko DEKRETUA, Euskal Autonomia Erkidegoko Lehen Hezkuntzako curriculuma ezartzen duena (EHAA)

Otsailaren 19ko 1/1993 LEGEA, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa (EHAA 1993-2-25)

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 1993ko maiatzaren 5eko AGINDUA, Euskal Autonomia Erkidegoan Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako curriculum-egokitzapenak arautzen dituena (EHAA 1993-5-5)

1994ko ekainaren 21eko DEKRETUA, Euskal Autonomia Erkidegoko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren curriculuma ezartzen duena (EHAA)

ERABILITAKO DOKUMENTAZIOA

- *Euskal Herrirako Hezkuntza Bereziko Egitamua*. 1983. Hezkuntza eta Kultura Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. 15. dokumentua. 1. argitalpena. Vitoria-Gasteiz.
- *Eskola Muinbakar eta Integratzailea. Hezkuntza Bereziko Batzordearen Txostena*. 1989: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz
- *Habilidades adaptativas y evaluación curricular*. 1997. CEIk eta Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako PATeko ECDko Programen arduradunek landua. CEIn eta Pedagogi Aholkutegietan.
- *Garapenaren arazo orokorrak dituzten ikasleentzako gela egonkorren funtzionamendurako orientabideak*. 1997. Dokumentuak Saila. 1. zk. Curriculuma Eratzeko eta Irakasleen Prestakuntzarako Institutua. Berrikuntza Pedagogikoak zuzendua. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz
- *Hezkuntza-premia bereziak dituzten gazteen bizitza aktiborako iragaitea: zereginen ikaskuntzarako programaren curriculum-esparrua*. 1997. Serie Documentos. nº 5. Instituto para el Desarrollo Curricular y la Formación del Profesorado. Dirección de Renovación Pedagógica. Departamento de Educación, Universidades e Investigación. Gobierno Vasco. Vitoria-Gasteiz
- *El Proyecto Educativo y el Proyecto Curricular en los Centros de Educación Especial*. 1995. Conselleria d'educació i ciència. Generalitat Valenciana.
- *Orientaciones para la Adaptación del Currículo en los Centros de Educación Especial*. 1995. Centro de Desarrollo Curricular. Dirección de Renovación Pedagógica. Ministerio de Educación y Ciencia.
- BRONFENBRENNER, U. 1987: *La ecología del desarrollo humano*. Paidós. Barcelona.

- CARMEN, L. del y ZABALA, A. 1992: *Guía para la Elaboración, Seguimiento y Valoración de Proyectos Curriculares de Centro*. Madrid. CIDE.
- GARANTO ALÓS. 1993. *Trastornos de conducta en la infancia*. Universitas-54. Barcelona.
- HEGARTY S., HODGSON A., CLUINIES-ROSS L. 1988. *Aprender juntos. La integración escolar*. Morata. Madrid.
- HERNANDEZ, J. 1995. *Propuesta curricular en el área de lenguaje: Educación Infantil y alumnos con trastornos en la comunicación*. Madrid. CEPE.
- LOU BROWN. 1989. *Criterios de funcionalidad*. Fundación Catalana Síndrome de Down. Barcelona.
- MAURI, T. *Los contenidos escolares*. Aula de Innovación Educativa, nº 11. Graó. Barcelona.
- TAMARIT, J. 1993. Prueba ACACIA. Madrid. Ed. Alcei
- TETZCHER, S.V. y MARTINSEN, H. 1993. *Introducción a la enseñanza de signos y uso de ayudas técnicas para la comunicación*. Madrid. Visor-Aprendizaje.
- SCHAEFFER, B.1993: *La mejora de la enseñanza del lenguaje para niños autistas*. En Actas del VII Congreso Nacional de Autismo. Salamanca. Amarú
- V.V.A.A. 1994.*Curriculo Carolina: Evaluación y ejercicios para bebés y niños pequeños con necesidades especiales*. TEA. Madrid.
- VERDUGO, M.A. 1995. *Personas con discapacidad*. Siglo XXI. Madrid
- VV.AA. 1995. *Sistemas de evaluación para personas plurideficientes*. CEPE. Madrid.
- VV.AA. 1995. *La atención a alumnos con necesidaes educativas graves y permanentes* . Departamento de Educación, Cultura, Deporte y Juventud. Gobierno de Navarra
- VV.AA. *Mental retardation*. 1992. American Association on Mental Retardation. Washington